

74

GIZARTEA HOBETUZ

DOCUMENTOS DE BIENESTAR SOCIAL

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 60 URTETIK GORAKOEN BIZI-BALDINTZEI BURUZKO AZTERLANA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
GAJETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES

74

GIZARTEA HOBETUZ

DOCUMENTOS DE BIENESTAR SOCIAL

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
60 URTETIK GORAKOEN
BIZI-BALDINTZEI BURUZKO AZTERLANA**

APBBI-EUSKADI 2010

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
GAJETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2011

Lan onen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi
Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:

<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>

LAN TALDEA ETA IDAZKETA:

Azterlanaren zuzendaritza: Mayte Sancho Castiello

Emaitzen txostena: Elena del Barrio

Mayte Sancho

Javier Yanguas Lezaun

INGEMA Fundazioa

Argitaraldia: 1. a, 2011ko martxo

Ale-kopurua: 500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Azalaren diseinua: Canaldirecto

Konposaketa: mccgraphics

Inprimaketa: mccgraphics

ISBN: 978-84-457-3118-5

L. G.: BI-334-2011

HITZAURREA

Mundu akademikoak ez du zalantzan jartzen gauzak behar bezala egiteko ibilbide bakarra eta hoberena lehendabizi errealitatea ezagutzea dela, errealitate horretan behar bezala esku hartu ahal izateko ondoren. Portaera-arau hori oinarritzkoa da Eusko Jaurlaritzaren aburuz eta baita Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren iritziz ere. Horregatik, adinekoei bideratutako programak, zerbitzuak eta bestelako ekimenak planifikatzeko ardura hartzerakoan, uste dugu beharrezkoa dela herritarren sektore garrantzitsu horri buruzko diagnostikoa –gaur egungoa, egokia eta zehatza– egitea.

Gure ustez, 60 urte edo gehiago dituztenen bizi-baldintzei buruzko erradiografia ona egin behar da; adineko horiek, gaur egun, milioi erditik gora baitira Euskal Autonomia Erkidegoan. Azterlanak honako hauek aztertu beharko lituzke: adineko horien ezaugarri soziodemografikoak, bizikidetzaren ereduak, gizarte- eta familia-arloko sareak, heziketa-maila, etxebizitzaren egoera, diru-sarrerak eta funtsezko informazio multzo bat.

Horretaz gain, gure iritziz aukera hau aparta da gure adinekoen bizi-baldintza «objektiboan» berri izateko ez ezik adineko horien fazeta subjektiboaren zati handi baten berri izateko ere: haien jarrerak, balioak, gogo-aldartea, depresio-adierazleak, antsietatea edo bizi-kalitatea. Era berean, jakin nahi genuen adineko horiek zenbate-raino atzematen duten beren eskubideak errespetatzen direla.

Argitalpen hau ikerlanaren emaitzak hedatzeko da. Argitalpen honi esker, hainbat gako identifikatu ahal izan dira, eta gako horiek, zalantzarik gabe, Euskadiko adinekoei beren eguneroko bizitzan autonomia izateko duten eskubideari eustera bideratutako politika publikoak planifikatzen lagunduko digute, baita zentzu horretan bideratutako proiektu eta ekimen berriak sendotzen ere.

Hamazazpi urte igaro dira antzeko azterlan bat egin zenetik, eta hura ere Eusko Jaurlaritzak hartu zuen bere gain. Bi azterlanak alderatzen baditugu, argi eta garbi ikus daiteke biztanleria talde horren bizi-baldintzak nabarmen hobetu direla aztertu-tako adierazle guztietan. Eta ez hori bakarrik: «bizi-tonu» ona duten eta, beren bizitzekin, orokorrean, pozik samar dauden herritar multzo baten aurrean gaude.

Gehienen balioespenak positiboak dira, baina ez guztienak. Hala eta guztiz ere, hobe dugu autokonplazientziak alde batera uztea horrelakoek errakuntzara bagaramatzate. Zahartzaroari buruz hitz egiteak heterogeneotasunean pentsatzera behartzen gaitu eta ezin dugu inola ere gutxietsi talde desberdinak daudela.

Talde bat autonomiaz bizi diren, eta, orokorrean, 80 urtetik beherakoak diren adinekoen ia % 80 horrek osatzen du. Bestea, berriz, bere eguneroko zereginak egiteko laguntza behar duten, eta, nagusiki, gizarte- eta familia-sare gutxi dituen emakume profila duten eta beren etxebizitzetan irisgarritasun-arazoak dituzten adinekoen ia % 20k osatzen du.

Familiek, alabek eta emazteek osatzen dute orain ere «gizarte-babeseko ezkutuko multzoa», eta batez ere emakumeez osatuta dagoen beste talde baten, hots, emakume etorkinen taldearen laguntza dute gero eta gehiago. Nolanahi ere, botere publikoek lagundutako gizarte-baliabideen eskaintzak bilakaera positiboa izan du.

Txosten honetan dagoen informazio baliotsuak dokumentazio multzo bat osatzen du, hain zuzen ere adinekoentzako Ekintza Plana diseinatzeko prozesuari ekitea ahalbidetuko digun dokumentazioa. Espero dugu Plan hori datorren urtean hedatu ahal izatea. Plan hori egiteko, prozesu parte-hartzaile zabal bat ireki behar da, eta prozesu horretan mundu asoziatiboan eta akademikoan jarduten dutenen iritziak eta ekarpenak nahi ditugu, baina baita adinekoak artatzeko konpromisoa duten gainerrako administrazio publikoena eta erakundeena ere. Eta, jakina, adinekoena, beren ordezkarietako elkarteetan, organoen eta kontseiluen bitartez.

Herritar talde horren autonomia sustatzea, mendekotasun-egoerak prebenitzea eta zahartze-prozesuaren edozein etapatan ongizatearen eta bizi-kalitatearen kota altuei eustea dira euskal gizarteak partekatzen dituen erronkak. Guztion artean, eta ondorengo urte hauetan, gainditzen ahaleginduko garen erronkak, alegia.

GEMMA ZABALETA ARETA

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua

AURKIBIDEA

Aurkezpena	9
1. Bigarren mailako iturrien azterketa estatistikoa	13
2. Azterlanaren helburuak	23
3. Metodologia	27
3.1. Fitxa teknikoa	29
3.2. Gaikako blokeak	30
3.3. Tresna estandarizatuak	31
4. Emaitzen azterketa	35
4.1. Adinekoen gizarte-errealitatea EAEn	37
4.1.1. Profil soziodemografikoa	37
4.1.2. Elkarbizitza-ereduak eta familia-sareak	47
4.1.3. Etxebizitza eta ingurunea	56
4.1.4. Osasuna, mendetasuna eta zaintzak	70

4.1.5. Eguneroko bizi-tzita	87
4.1.6. Ongizate psikologiko	106
4.1.7. Jarrerak eta balioak	114
4.2. Adinekoen bizi-baldintzei buruzko alderaketa nazionala eta nazioartekoa	123
4.2.1. Adinekoak Euskadin 1993-2010	123
4.2.2. Adinekoen egungo egoera EAEn eta estatuan	131
4.2.3. Nazioarteko alderaketa	141
5. Laburpena	147
6. Ondorioak	161
7. Bibliografia eta Iturriak	167
8. Eranskina: Galdesorta	173

AURKEZPENA

Adineko pertsoneri eta horien bizi-baldintzei buruzko azterketa, Espainiaren kasuan, 70eko hamarkadaren lehen urteetan hasi zen, «La situación del anciano en España» izeneko azterlan soziologikoarekin (Zaharraren egoera Espainian), *Gaur Txostena* izenez ere ezaguna. Txosten horrek demokrazia aurreko Espainian bizitako egoeraren argazki finko paregabea eskaintzen du, eta baita zahartzaroaren mugak gainditu ere. Azken lau hamarkada eskasetan gertatutako aldaketa benetan aurrez pentsaezina izan da. Duela gutxiko gure historian geratu dira adinekoek eguneroko bizitzan bizi behar zituzten miseria, analfabetismoa, osasungaitzasuna eta ongintza, eta baita beldurra eragiten zuten babes-etxeak ere.

90eko hamarkadatik aurrera azterlan ugari egiten hasi ziren, kasu askotan, premien diagnosiak, estatuan eta autonomia-erkidegoetan gerontologia-planifikazioei aurre egiteko xedez. Horietako bat 1993an egin zen, Eusko Jaurlaritzaren ekimenez, 1994an hedatutako Gerontologia Plana egiteko, hain zuzen ere. Urteak igaro ahala, eta ondoren aurkeztutako azterlanaren ikuspegiarekin, 1993ko Hirugarren Adinari buruzko Inkesta erreferentea dugu eta EAEko adinekoen bizitzako alderdi ugariaren joerak aztertzea ahalbidetzen digu.

Alabaina, Adinekoen Bizi Baldintzei buruzko Inkestaren diseinua oraindik berria da gure herrialdean. IMSERSO Institutuak, adinekoen Behatokiaren bitartez, 2004ko, 2006ko eta 2009ko inkestak egitea sustatu du, gaikako hainbat alorretako informazio-hutsuneak betetzen saiatuz, eta aldi berean, kolektibo horrek denboran izandako eraldaketak jakinaraziz.

Azterlan-modalitate horren erreferentea biztanleria osoari zuzendutako Bizi Baldintzei buruzko Inkestak –Europar Batasunean, Espainian eta Euskadin eginak– dira. Lehen kasuan, Europako inkesten xede orokorra erkidegoko estatistika-azpiegitura indartzeko asmoan datza, errentari eta pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren mailari eta osarari buruzko zeharkako eta luzeratako datu alderagarriak eta eguneratuak –nazionalak nahiz Europakoak– sortuz.

Euskal Autonomia Erkidegoko Bizi Baldintzei buruzko Inkestak 1989an hasi ziren egiten, hamabost urtean behingoak dira eta pertsonen bizi-kalitatearen hobe-

kuntzan eta narriaduran eragina duten faktoreak ezagutzea beharrezkoa zelako sortu ziren. Inkesta horiek bi helburu dituzte: batetik, hainbat adierazleren bitartez bizi-kalitatearen dimentsio desberdinak deskribatzea, eta bestetik, funtsezko dimentsioen arteko loturak eta dimentsio bakoitzaren barruko elementuen arteko loturak aztertzea, Bizi Kalitatearen izaeraren gaineko ulermena aberasteko xedez.

Oraingoan, Eusko Jaurlaritzak, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren bitartez, «Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 60 urte baino gehiagoko pertsonen errealitateari» buruzko azterlan bat egiteko lehia libreko kontratazioa jakitera eman du, adinduek duten autodeterminazio-eskubideari eustera bideratutako politika publikoak erkidegoen eta erakundeen esparruan planifikatzen lagunduko duten gakoak identifikatzeko xedez. Halaber, adinekoek sentitzen dituzten premia desberdinen mailak eta ezaugarriak zehazten dituzten elementu bereizgarriak sakontasun handiz ezagutzeko jomuga ere badu. Azkenik, Espainiako beste hainbat tokirekiko, eta hala badagokio, Europarekiko alderaketak egiteko xedea du, horren guztiaren bitartez, eskumen-esparruen barruan erabakiak hartzeko gakoak identifika daitezten.

INGEMA Fundazioak lan hori bere gain hartu du; horrela, lan horren emaitzak jarraian aurkeztuko ditugu. Ondorengo orrialdeetan, hainbat alderdiri buruzko informazio xehatua ikus daiteke, zehazki, «adinekoak» kalifikatzailea aplikatzen zaienean gero eta heterogeneoagoa eta edozein adineko herritarrekin alderatuz gero eta homogeneoagoa den talde bat osatzen duten ia milioi erdi pertsonaren bizimodu eta bizi-baldintza materialak, alderdi psikologikoak, osasun-hautemateak, mendetasuna, baliabideak eta premiak, hain zuzen ere.

1.
BIGARREN MAILAKO ITURRIEN
AZTERKETA ESTATISTIKOA

Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) egindako Biztanleen azken Udal Erroldan (2009) jasotako datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan 60 urte edo gehiagoko 542.188 pertsona zeuden zenbatuta (65 urteko edo gehiagoko 409.537). Zifra hori Euskadiko guztizko biztanleriaren % 25,0ren arabera da, hots, EAEko lau pertsonatik 1ek 60 urteen ataria gainditzen du.

60 urte edo gehiagoko biztanleek garrantzi erlatibo handiena Bizkaiko Lurralde Historikoan dute, zehazki, % 25,5 eta ia 300.000 adineko pertsona.

1. TAULA. 60, 65 eta 80 urteko edo gehiagoko biztanleria EAEn, Lurralde Historikoen arabera, 2009.

	60 urte edo gehiago		80 urte edo gehiago			65 urte edo gehiago	
	Milaka	Ehunekoa	Milaka	Guz. bizt. gaineko %	65 edo + gaineko %	Milaka	Ehunekoa
EAE	542.188	25,0	117.297	5,4	28,6	409.537	18,9
Araba	72.155	23,0	14.869	4,7	27,9	53.300	17,0
Gipuzkoa	175.879	24,9	37.907	5,4	28,8	131.611	18,6
Bizkaia	294.154	25,5	64.521	5,6	28,7	224.626	19,5


Iturria: EIN: Biztanleen Udal Errolda, 1999 eta 2009

Euskadiko 65 urte edo gehiagoko pertsonen taldea guztizko biztanleriaren % 18,9ren arabera da, adineko biztanleei dagokienez Estatuak duen zifra portzentajezko 2 punturekin baino gehiagorekin gaindituz (% 16,6). Biztanleria zaharraren (65 urte edo gehiago) ehunekoak honela banatuta daude probintzien arabera: % 17 Araban, % 18,6 Gipuzkoan eta % 19,5 Bizkaian.

Azkeneko hogeita hamar urteetan, 65 urtetik gorako biztanleriaren ehunekoak bikoiztu egin da; 1981ean % 9,2 zen, eta 2009an, berriz, % 18,9. Era berean, 0-19 urteko biztanleriaren garrantzi erlatiboak behera egin du; % 34,2 zen 1981ean, eta

2009an, ostera, % 17,0. 2020rako proiektioek adierazten dutenez, adinekoen garrantzi erlatiboak hazten jarraituko du. Urte horretarako, 65 urte edo gehiagoko biztanleen ehunekoa guztizko biztanleriaren % 20ra iritsiko da.

1. GRAFIKOA. Adinen araberako egituraren bilakaera EAEn (1981-2020)




Iturria: Eustat. Biztanleen eta Etxebizitzaren Errolda. Udal Biztanleriaren eguneratzea. Biztanleriaren proiektioak 2020rako.
 EIN: Biztanleen Udal Errolda, 2009. Eustatek egina.

Euskal Autonomia Erkidegoan, 90eko hamarkada inflexio-puntua izan zen duela gutxi historia demografikoan, adin-taldearen proportzioan gertatutako aldaketa garrantzitsuen eraginez: 65 urte edo gehiagoko biztanleen kopuruak haurren kopurua (0-14 urte) gainditu zuen. Harrez geroztik, adinekoen zifrak haurren zifra gainditzen du, eta distantzia hori apurka-apurka ari da handiagotzen. 15 urtetik beherako biztanleak guztizko biztanleriaren laurdena baino gehixeago ziren 1981ean, eta 2004an, aldiz, Euskadiko guztizko biztanleriaren zortzirena baino gutxiago; halaber, 65 urtetik gorako pertsonen osatutako taldearen garrantzia 1981ekoaren bikoitza izateraino hazi zen. Denbora igaro ahala 15 urtetik beherako garrantzia murrizteaz eta 65 urtetik gorakoena handiagotzeaz gain, adin-taldearen garrantzia alderantzikatu egin da, talde zaharrenak gazteena portzentajezko 6 punturekin gaindituz. Joera demografikoa alderantzikatzeak duen garrantzia dela-eta (horren eraginez, adineko pertsonak haurrak baino ugariagoak dira), biztanleriaren egitura aldatu egin da, eta sektore ekonomikoetan nahiz sozialetan du eragina horrek.

Adinen mediana biztanleria bi zati berdinetan banatzen duen adierazlea dugu, zifra horretatik behera edo gora. 1960an, Euskadiko adinen mediana 27,5 zen, eta zifra horrek gora egin du biztanleriaren egitura zahartu zen heinean; izan ere, 2003an adinen mediana 40,2 urte zen.

2. GRAFIKOA. 15 urtetik beherako eta 65 eta 75 urtetik gorako biztanleriaren adinen medianaren bilakera EAEn




Iturria: Eustat. Demografia, 2004

Halaber, egitura demografikoak izandako bilakaeran alderdi garrantzitsu bat nabarmendu behar da, adinekoek, 80 urte gainditu dutenek, eta zenbait kasutan baita 100 urte gainditu dutenek ere, gora egin dutela, hain zuzen ere. EAEn 80 urte edo gehiagoko 117.297 pertsona daude (EIN, 2009). Euskadiko guztizko biztanleriaren % 5,4 eta adinekoen % 28,6 dira adierazitako pertsona horiek. 1999-2009 denboraldian, 65 urte edo gehiagoko biztanleriaren hazkundera % 15,5 izan da Espainian. Laurogei urte edo gehiagoko biztanleriaren hazkundera % 46,1era iritsi da. Euskadin, adineko biztanleriaren hazkundera Estatuko batez bestekoaren (% 15,8) oso antzekoa izan da, eta 80 urte edo gehiagoko biztanleriak % 54,5eko hazkundera izan du, hots, zortzi puntu gehiagoko alde dago. Hori horrela izanik, laurogei urte edo gehiagoko biztanleriari dagokionez hazkunde handienetakoa izan duen autonomia-erkidego bilakatu da Euskadi hamar urteko denbora-tarte horretan.

Adineko biztanleria orokorrak (65 urte edo gehiago) hazkunde txikia izanaren arrazoi nagusia zera da, denboraldi horretan 1936-1941 denbora-tartean jaiotako belaunaldiak txertatu berriak zirela; gerra zibilean gertatutako jaiotzen defizita zela-eta, belaunaldi horiek nabarmen txikiagotuta zeuden. Hala eta guztiz ere, adinekoen talde horren barruan zeuden belaunaldien bizi-itxaropena modu esanguratsuan handiagotu da adin-talde horretako pertsona gehienek kasuan, eta fenomeno horri «zahartzaroaren demokratizazioa» deritza. Estatuari dagokionez, etorkizunerako aurreikuspen arabera, 2060an laurogei urte edo gehiagoko biztanleria guztizko biztanleriaren % 13,1era eta adineko biztanleriaren % 44,0era iritsiko da. Zahartzaroaren zahartzeak askotariko ondorioak izango ditu (izan ere, askotariko ondorioak izaten ari da jadanik); horietako bat, gaur egun ikerketa demografiko eta soziosanitarioaren ikerketaren muinean dagoena, mendetasun-egoeran dagoen biztanleriak izan dezakeen bilakaera

dugu. Kasu askotan, adinak gora egite horren ondorioz, mendetasuna areagotu egi-ten da. Alabaina, osasun-sistemen unibertsalizazioaren, biztanlerien bizi-baldintzen hobekuntzaren eta ohitura osasungarriak hartzearen eta praktikatzearen efektua ikusten hasi gara; horrela, mendetasunaren eta laguntza-premiaren agerpenari nabarmen eusten ari zaiola jasotzen duten datu frogagarriak daude zenbait herrialdetan (Manton eta Gu, 2001). Nolanahi ere, 2060rako aurreikusten denez, adineko biztanleriaren ia erdia laurogei urte edo gehiagoko pertsonak osatuko dute, eta horrenbestez, mendetasun-egoerak konpontzeko eta horietan laguntzeko lana ezinbesteko elementua izango da etorkizuneko gizartean.


3. GRAFIKOA. 65 urte edo gehiagoko eta 80 urte edo gehiagoko biztanleriaren areagotzea AEen arabera, 1999-2009



Iturria: EIN: Biztanleen Udal Errolda, 1999 eta 2009

Etorkizun demografikoan beste alderdi bat ere hartu beharko da kontuan, «baby boom» deritzoneko belaunaldiak erretiro-adinera iristean (2040) izango duten efektua, hain zuzen ere. Belaunaldi horien efektua oso garrantzitsua izango da, hezkuntza-sistematik pasatzean edota lan-merkatuan sartzean izan zutenaren parekoa, hain zuzen. Multzo horiek presio garrantzitsua izango dute gizarte-babeseko sistemetan, batez ere, zahartutako biztanleriak eskatuko dituen programetan.

4. GRAFIKOA. Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria-piramidea, 2009



Iturria: EIN: Biztanleen Udal Errola, 2009.


Pentsioen etorkizuna eta gure ongizate-sistemari eustea izan dira hainbat ikerketarako jorragaiak. Biztanleriaren adin-egituretan aurreikusitako aldaketek ondorio garrantzitsuak izango dituzte, eremu publikoan –pentsio- edo osasun-sisteman– ondorio garrantzitsuak izateaz gain, ia gizarte-erakunde guztietan izango du eragina, baita enpreetan eta familietan ere. 2020rako aurreikuspenen arabera, familia-laguntzako ratioa % 10,8 izango da estatuan, edo beste modu batean esanda, 40-65 urteko ehun pertsonatik (zaintzaileak izan daitezkeen pertsonak) ia 11 pertsona 85 urtetik gorakoak izango dira. Ratio horrek zera adierazten du, familiak (eta gizarteak) denboran eman beharko duen laguntza. Adibide gisa, 2049an oso adineko hogeita hamar pertsona egongo dira tarteko adineko ehun pertsona bakoitzeko.

Etxekoen unitateen osieran eta tipologietan ere joera nagusi bat dago: pertsona bakarreko etxekoen unitateak ugartzea. Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren datuen arabera¹, EA Eren kasuan, pertsona bakar batez osatutako etxekoen unitateak etxekoen unitate guztien % 7,7 ziren 1981ean. 2006an, zifra hori % 21,6ra igo zen. Etorkizuneko aurreikuspen guztiei jarraiki, etxekoen unitatearen neurriak txikiago-

¹ EA Eko etxebizitza-merkatuaren Azterketa Demografikoa eta epe luzeko Bilakaera, 2009

tzeko joera izango du. Adierazle horrek garrantzi berezia dauka bakarrik bizi diren adinekoen osatutako etxeko unitateen kasuan. 65 urtetik gorako pertsonen osatutako etxeko unitateen % 32 (81.900 etxeko unitate) pertsona bakar batez osatuta dago. Bakarrik bizi diren adineko pertsonen ehunekoa altua izateak biztanleria-talde hori autonomoa eta lehiakorra dela adierazten badu ere, mendekotasuna agertzen den zerbiztu profesional publikoen eta pribatuen gaineko presioa handiagoa izatea eragiten du.

5. GRAFIKOA. Familia-laguntzaren ratioaren bilakaera² Estatuan.



Iturria: 1981 eta 1991: INEBASE: Biztanleria-serie historikoak. 1981eko eta 1991ko erroldak
2000 INEBASE: 2000ko Udal Erroldaren Berrikuspena

Halaber, adineko pertsonen osatutako gero eta etxeko unitate gehiago egoteko joera ere ikusi da. Horrela, erreferentzia-talde hori etxeko unitate guztien % 18 zen 1981ean, eta 2006an, ostera, % 32. EAEko etxeko unitateen % 57tan erreferentzia-talde pertsonak 35-64 urte ditu, % 32tan, ostera, 65 urte edo gehiago, eta gainerako % 11n, azkenik, 35 urtetik behera. Aurreikuspenen arabera, 2010-2020 denboraldian adin-talde horrek 50.600-60.000 hazkundera izango du etxeko unitateei dagokienez, kalkulu-metodoari jarraiki. Logikoaenez, gehikuntza horrek ez du esan nahi adin-multzo horietan etxeko unitate berri asko sortuko direnik, baizik eta pertsona gehiagoz osatutako zenbait belaunaldi adin-multzo horietara iritsiko direla. 85 urte edo gehiagoko erreferentzia-talde pertsonak dituzten familietan lokalizatzen dira gehikuntza handienak.

Biztanleria zahartzearen ondorio nabarmenenak zahartze horrek ekarriko duen gizarte- eta osasun-gastu handiagorekin lotuta badaude ere, ez dugu ahaztu behar adineko pertsonen etengabeko ekarpen ekonomiko eta sozialak egiten dizkio-

² Familia-laguntzaren ratioa: 85 urte edo gehiagoko pertsonen kopurua 45-65 urteko 100 pertsona bakoitzeko.

la gizarteari, eta kasu gehienetan, lan-merkatutik kanpo daudenez, ekarpen horiek «ikusezinak» direla. Adinekoek gizarteari eusten laguntzen dute, familiari lagunduz, bilobak eta mendeko pertsonak zainduz, boluntariotzaren eta gizarte-partaidetzaren bitartez gizartean lagunduz, eta kontsumoaren edota soldatapeko lanaren bitartez ekarpen ekonomikoak eginez. Gaur egun hain hedatuta dauden estereotipoek, izan ere, adinekoen irudia ematen digute, eta irudi horren arabera, adinekoak laguntza-jasotzaileak baino ez dira; haatik, adinekoek egiten dituzten ekarpenei merezi duten garrantzia ematen ez digute uzten. Adinekoek gure gizartearen barruan duten garrantzia begien bistakoa da, eta beraz, ezinbestekoa da adineko pertsonak aztergai gisa ditzuten ikerlanak egitea, betiere ondo zehatutako eta identifikatutako gizarte-taldetzat (ez du zertan talde homogeneoa izan) hartzen badira; izan ere, adinekoen errealtateraren hurbilduko gaituen erradiografia osatzea premiazkoa da, horien egunerokotasunaren eta bizimodu desberdinen ezagutzan aurrera eginez.

2. TAULA. Etxekoek unitateen tipologiaren bilakaera, EAE 1981-2006

	1981	1996	2001	2006
Pertsona bakarrekoa	7,7	15,4	20,3	21,6
Konposatua	3,4	2,9	3,4	2,7
Nuklearra seme-alabarik gabe	15,0	15,5	17,0	20,9
Nuklearra seme-alabekin	62,9	46,8	40,4	38,0
Guraso bakarrekoa	7,0	9,5	10,1	8,3
Handiagotua	-	7,3	7,1	4,8
Polinuklearra	3,9	2,7	1,7	3,6

Iturria: EAEko etxebizitza-merkatuaren Azterketa Demografikoa eta epe luze Bilakaera, 2009

2.

AZTERLANAREN HELBURUAK

Azterlan honen helburu orokorra zera da, EAEko 60 urte edo gehiagoko biztanleriaren familia-bizitzaren, banako bizitzaren eta ingurunearen baldintzen gaineko informazio xehatua eta puntuala ematea gizarte-politiken planifikatzaileei eta arduradunei. EAEko adineko pertsonen errealitateari buruzko informazioa biltzeko eta informazio hori sistematizatzeko eta hedatzeko xedea ere badu azterlan honek, biztanleria-talde horri dagozkion alderdi ugari helduz.

Helburu orokor hori hiru helburu espezifikotan zehatz daiteke:

1. Adinekoen eguneroko bizitzaren zati diren alderdi ugariaren gaineko argazki eguneratua eskaintzea (baldintza materialak, osasun-egoera, heziketa-maila, astialdia, partaidetza, gizarte-harremanak, ingurunea, eta abar).
2. Ikerketa-esparru horretan dauden iturriekiko –nazionalekiko nahiz nazioarte-koekiko– konparazio-azterketa bati heldzea.
3. Euskal Autonomia Erkidegoko adineko pertsonen premiak identifikatzea.

3.

METODOLOGIA

Azterlan kuantitatiboa egitean datza ikerlana. Erabilitako lan-metodoaren informazio-euskarria EAEn bizi diren 60 urte edo gehiagoko pertsoneri etxez etxe egindako inkesta zabal bat dugu.

3.1. FITXA TEKNIKOA

- *Eremua:* Euskal Autonomia Erkidegoa.
- *Unibertsoa:* Instituzionalizatu gabeko 60 urte edo gehiagoko biztanleak, bi sexuetaoak.
- *Laginaren neurria:*

Diseinatua: 1.200 elkarrizketa. Honela banatuak:

ARABA	Hiriburua	>=5.000	5.000/20.000	20.001/50.000	50.001/100.000	Guztira
Guztira	116	25	14	0	0	155
GIPUZKOA	Hiriburua	<=5.000	5.000/20.000	20.001/50.000	50.001/100.000	Guztira
Guztira	101	38	152	60	33	385
BIZKAIA	Hiriburua	>=5.000	5.000/20.000	20.001/50.000	50.001/100.000	Guztira
Guztira	203	65	129	160	103	660

Egina: 1.207. Honela banatuak:

ARABA	Hiriburua	>=5.000	5.000/20.000	20.001/50.000	50.001/100.000	Guztira
Guztira	123	25	16	0	0	164
GIPUZKOA	Hiriburua	<=5.000	5.000/20.000	20.001/50.000	50.001/100.000	Guztira
Guztira	123	33	144	46	36	382
BIZKAIA	Hiriburua	>=5.000	5.000/20.000	20.001/50.000	50.001/100.000	Guztira
Guztira	202	65	132	160	102	661

- *Afixazioa eta laginketa Guneak:*

Proporzionala. Zazpi geruza ezarri dira:

1. geruza: Probintzietako hiriburuak.

- 2. geruza: 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriak.
- 3. geruza: 5.001-20.000 biztanleko udalerriak.
- 4. geruza: 20.001-50.000 biztanleko udalerriak.
- 5. geruza: 50.001-100.000 biztanleko udalerriak.

- *Haztapena*: Ez-proporzionala. Lagina batera tratatzeko, PONDE aldagarriaren arabera haztatu beharko dira datuak; aldagarri hori SPSS datuen artxiboko aldagarrien zerrendaren bukaeran dago kokatuta.
- *Laginketa-prozedura*: Etapa anitzekoa, konglomeratuen arabera geruzatua, lehen mailako laginketa-unitateak (errolda-atalak) eta bigarren mailako unitateak (etxebizitzak) ausaz eta modu proporzionalean aukeraturaz, eta azken unitateak (per-tsonak) ausazko ibilbideen eta sexu- eta adin-koten arabera hautaturaz.

Lurralde historikoa habitat-neurriarekin gurutzatuz sortu dira geruzak; habitat-neurria 5 kategoriatan banatuta dago: 5.000 biztanle edo gutxiago; 5.001-20.000 biztanle; 20.001- 50.000 biztanle; 50.001-100.000 biztanle eta probintziatako hiriburuak.

Galdesortak etxez etxe zuzenean egindako elkarrizketen bitartez aplikatu dira.

- *Lagin-akatsa*: % 95,5eko konfiantza-mailarako (bi sigma), eta $P = Q$, akats erreala \pm % 2,88 lagin-multzo osorako, eta ausazko laginketa sinplearen kasuan.
- *Noiz egin zen*: 2010eko apirilaren 19tik maiatzaren 28ra.

3.2. GAIKAKO BLOKEAK

Nazio barruan naiz nazioartean ondoren adierazitako alderdiei buruzko informazio alderagarriak eta harmonizatuak emateko jomuga du inkesta horrek:

- *Bizi-baldintza materialak*:
 - Eraikineko eta inguruneko zerbitzuak.
 - Balioespen ekonomiko subjektiboa.
 - Etxebizitzako ekipamenduak.
 - Etxebizitzako eta inguruneko irisgarritasuna.
- *Gizarte-sareak*:
 - Elkarbizitza-moduak.
 - Familia-sarearen kuantifikazioa.
 - Familiarekiko harremanak eta horien maiztasuna.
 - Jasotako laguntza informala.
 - Emandako laguntza informala (bilobak zaintzea, beste hainbat etxebizitzatan laguntzea, eta abar).

- *Osasuna:*
 - Hautemandako osasun-egoera.
 - Eguneroko Bizitzako Jardueretarako (EBJ) behar duen laguntza.
- *Denboraren erabilera:*
 - Etxeko lanak.
 - Astialdia.
 - Boluntariotzako eta elkarte-bizitzako jardueretako partaidetza.
 - Asebetetze-maila.
- *Gizarte Zerbitzuak:*
 - Hainbat gizarte-zerbitzu, -laguntza eta baliabideren erabilera.
- *Adierazle Psikologikoak:*
 - Bizi Kalitatea.
 - Depresioa.
 - Antsietatea.
 - Asebetetzea.
- *Balioak eta jarrerak:*
 - Erretiroaren esperientzia.
 - Politika.
 - Erlijioa eta erlijiositatea.
 - Bizitzako hainbat alderdiren garrantzi-maila.
- *Profil soziodemografikoa:*
 - Sexua.
 - Adina.
 - Egoera zibila.
 - Lortutako ikasketa-maila.
 - Jarduerarekiko lotura.

3.3. TRESNA ESTANDARIZATUAK

Galdesortaren barruko galdera jakin batzuk estandarizatutako eta zientifikoki baliozkotutako tresnak dira, eta nazioko nahiz nazioarteko beste hainbat azterlanekiko konparazio-azterketak egiteko ez ezik, EAEko adineko pertsonen egungo egoera balioesteko ere balio dute. Jarraian, gure azterlanean erabilitako tresna estandarizatuena zerrenda jaso dugu:

- *Depresioaren CESD-8 Eskala*: Depresioaren gaineko Epidemiologia Azterketen Zentroko Eskalaren bertsio laburtua (Center of Epidemiological Studies Depression Scale, CES-D8), 8 item dituen. CES-D (Radloff, 1977) funtsezko tresna dugu depresio-sintomen sustraitzea neurtzeko. Diseinatu eta baliozkotu zenez geroztik hona, hainbat motatako pertsonen depresio-sintomak neurtzeko erabili da: adineko pertsonak, nerabeak, emakumeak, biztanleria klinikoak eta gutxiengo etnikoak (Bracke, Levecque eta Van de Velde, 2010). Hasiera batean, CES-D eskalak 20 item autoinformatu zituen; depresio-nahasmendua izateko arriskuan dauden populazioak identifikatzea da item horien jomuga. Adierazitako 20 item horiek depresioaren dimentsio afektiboak eta somatikoak neurtzen ditu; dimentsio horiek zenbait kezatan islatu ohi dira hasiera batean, hala nola, umore deprimituan, erruduntasun-sentimenduetan, autoestima baxuko sentimenduetan, eta bebesgabetasun- eta etsipen-sentimenduetan, atzerapen psikomotorrean, apetitu-galeran eta loaren aldaketetan (Radloff, 1977). Erantzuten duten pertsonak adierazi behar dute joan den astean zein maiztasunez sentitu zituzten horrelako sintomak, honako bi mutur hauekin: «inoiz ez, oso noizean behin (egun bat baino gutxiago)» eta «maiz, denbora guztian (5-7 egun)». Erantzunak Likert motako (lau puntu) eskala baten (0-3 puntu) arabera puntuatzen dira. Puntuazioa 0-60 puntu izango da 20 itemeko CES-D eskalan eta 0-24 puntu 8 itemekoan, kontuan hartuz zenbat eta puntuazio handiagoa lortu orduan eta handiagoa izango dela depresio-maiztasuna. 8 itemeko bertsio labur hori depresioa neurtzeko tresna fidagarri eta baliozkotzat har daiteke. Gainera, nazioarteko inkestetan gehien erabiltzen den eskala da (Survey of Health, Ageing and Retirement in Europe; European Social Survey; English Longitudinal Study of Ageing; Health and Retirement Study, eta abar), eta honenbestez, emaitzak bestelako azterlanekin aldera daitezke. Blustein-ek, Chan-ek eta Guanais-ek (2004) ezartzen dutenez, eskalan lau puntu edo gehiago lortzeak depresioa dagoela adierazten du.
- *Antsietatearen Goldberg Eskala* (Goldberg, 1988): Eskala erraz eta laburra da, erabiltzen erraza, eta baita antsietate-nahasmenduak atzemateko oso eraginkorra ere. Oro har biztanleria osoari zuzenduta dago eta erantzun dikotomikoko (Bai/Ez) 9 item jasotzen ditu; lehen lau galderetan baiezko erantzunak daudenean baino ez dira aplikatzen azken bost itemak. Baiezko erantzuna eman zaion item bakoitzak puntu bat zenbatzen du, eta horrenbestez, zenbat eta puntuazio handiagoa lortu, orduan eta antsietate-maila handiagoa izango dugu.
- *Bizi Kalitatearen CASP-12 Eskala*: Bizi-kalitatea neurtzeko xedea du tresna horrek. 19 itemez osatutako jatorrizko bertsioaren bertsio laburra –psikometrikoki baliozkotua– dugu (CASP-19) (Hyde et al., 2003); bizi-kalitateari dagokionez, zahartze-prozesurako espezifikotzat jotako alderdiak identifikatzen ditu jatorrizko bertsioak. Bertsio laburtua Europako zenbait Inkestatan erabili da, hala

nola SHARE (Survey of Health, Ageing and Retirement in Europe) deritzanean. Eskala horren barnean hartutako aldagarriek adineko pertsonen kontrola, autonomia, autoerrealizazioa eta asebetetzea neurtzen dituzte. Adierazitako alderdi horiek, izan ere, zahartzaroan garrantzi berezia dutela kontrastatu da literatura zientifikoan. Sentimendu eta egoera jakin batzuk (eremu bakoitzeko, 3) zein maiztasunez hautematen diren ebaluatzen dute item horiek, lau puntuko Likert motako eskala baten bitartez. Puntuazio-tartea 12-48 da; horrela, puntuazioa 35etik beherakoa bada, kategoriak bizi-kalitate baxuaren eskalakoak izango dira, 35-37 bada, berriz, bizi-kalitate ertainaren eskalakoak, 37-39 bada, berriz, bizi-kalitate altuaren eskalakoak, eta 39-41 bada, azkenik, oso bizi-kalitate altuaren eskalakoak (SHARE, 2004). Aldagarriak honela banatzen dira eskalan:

CASP-12

KONTROLA

- Adina dela-eta, egin nahi lituzkeen gauzak ezin ditu egin
- Gertatzen zaiona bere kontrolpean ez dagoela sentitzen du
- Gertatzen zionetik baztertuta sentitzen da

AUTONOMIA

- Egin nahi dituen gauzak egin ditzakeela sentitzen du
- Familia-erantzukizunak direla-eta, egin nahi kituzkeen gauzak ezin dituela egin sentitzen du
- Dirurik eza dela-eta, egin nahi dituen gauzak ezin dituela egin sentitzen du

ASEBETETZEA

- Ilusioarekin itxaroten du egun bakoitza noiz iritsiko
- Bere bizitzak zentzua duela sentitzen du
- Bere bizitzaren iraganari zoriontasunez begiratzen dio

AUTOERREALIZAZIOA

- Azken aldian, energiaren gainezka sentitzen da
- Bizitza aukeraz beteta dagoela uste du
- Etorrizuna aurreikuspen onez etorriko dela sentitzen du

- *Zaintzailearen Kargaren Eskala* (The Burden Interview; Zarit et al., 1980; Zarit eta Zarit, 1982): Zaintzaileak zaintze-lanetan izan dezakeen karga ebaluatzen du. Jatorrizko eskalak 22 item ditu; item horiek zaintzaileak hautemandako inpaktua neurtzen dute, eta zaintze-egoerari, zaintzailearen osasun fisikoari eta emozionalari eta gizarte-jarduerari buruzkoak dira. Zaintzaileak Likert motako eskala baten arabera (5 puntuko eskala) erantzun behar du, baieztapen bakoitza bere kasuan zein neurritan aplikatu daitekeen deskribatuz. Erantzunen muturrak: 0 = sekula ez, eta 4 = ia beti. Zaintzaileek beren rolari dagokionez sentitutako karga-maila aztertzen du, eta horrek gaixoaren instituzionalizazioarekin lotura handia duela ikusi da (Deimling eta Bass, 1986; Gilhooly, 1984). Azterlan honetarako eskala horren 12 item aukeratu dira.


4.
EMAITZEN AZTERKETA

4.1. ADINEKOEN GIZARTE-ERREALITATEA EAEn

4.1.1. PROFIL SOZIODEMOGRAFIKOA

BBA-Euskadi 2010 azterlanaren lagina 60 urte edo gehiago izanik EAeko etxeetan bizi diren pertsonak osatzen dute. Lagin horren banaketa, sexuen arabera: gizonak, % 43,4, eta emakumeak, % 56,6. Adina zenbat eta handiagoa izan, orduan eta gehiago desorekatzen da banaketa hori, emakumeen alde. Laurogei urte edo gehiagoko pertsonen artean, emakumeen ehunekoak % 25etik gora gainditzen du gizonena, eta laurogeita hamar urte edo gehiagoko kasuan, berriz, % 50etik gora (90 urte edo gehiagoko pertsonen % 24 gizonak dira, eta % 76, berriz, emakumeak, nahiz eta zuhurtziaz erabili behar den datu hori, geruzapen horren ondoriozko lagina txikia baita).

6. GRAFIKOA. 60 urteko edo gehiagoko pertsonak, sexuaren eta adinaren arabera, 2010




60 urte edo gehiagoko pertsonen egoera zibil nagusia ezkondua da, edo bikote-kidearekin bizitzen, zehazki, % 61,4 egoera horretan dago. Ondoren, alargunen ehunekoa dago (% 29,4), eta % 10etik beherako indizeekin, ezkongabeena (% 6,2) eta dibortziatu edo banandua (% 2,9).

Adinak gora egin ahala, ezkonduen eta bikotekidearekin bizi direnen zifrak eta alargunenak parekatu egiten dira, eta baita alderantzikatu ere. Laurogei urte edo gehiagoko pertsonen artean, alargunen ehunekoa % 52,8ra igoz da, eta ezkonduena edo bikotekidearekin bizi direnena, berriz, % 40,1era jaisten da.

Zifra horiek oraindik erlatiboki txikiak badira ere, bananduen edo dibortziatuen kasuan ere adin-taldeen arteko desberdintasunak ikus daitezke. Gazteenen kasuan (60-69 urte), zifra hori bi aldiz handiagoa da, laurogei urte edo gehiagokoekin alderatuz (% 4,6tik, % 2,0ra). Joera hori xehetasun handiagoz aztertu beharko dugu, soilik belaunaldi-efektuaren eta pertsonen bizi-ibilbideen ondoriozkoa ote den edota azken urteotan familia-ereduetan gertatzen ari diren aldaketa sakonak nabaritzen ari ote diren jakiteko.

7. GRAFIKOA. 60 urteko edo gehiagoko pertsonak, egoera zibilaren eta adinaren arabera, 2010




Genero-desberdintasun nabarmenak daude egoera zibilaren banaketan. Emakumeei dagokienez, alargunen ehunekoa % 41,8ra igoz da, eta ezkondua edota bikotekidearekin bizi diren gizonen ehunekoa, ostera, % 74,0 da. Egoera horren kausen lehen interpretazioa bizi-itxaropeneko desberdintasun handietan (altuagoa emakumeen kasuan) datza; izan ere, lehen agertu dugun bezala, adinekoen artean emakume gehiago egotea justifikatzen du horrek. Izan ere, 80 urtetik gorako lau alargunetatik bat emakumea da. Zahartzaroko elkarbizitza-ereduen konposizioan ikus daitezkeen genero-desberdintasunen enbor-kausa horretaz gain, beste hainbat ere badaude, esate baterako, bikotekidea izaterakoan edota ezkontzerakoan gizonen eta emakumeen izan ohi duten adina.

Nabarmendu beharreko beste alderdi bat ere badago, zehazki, 60 urtetik gorako gizon ezkongabeen ehuneko % 9,8 dela, eta emakumeena, berriz, % 3,6. Ehuneko hori % 12,4raino igotzen da 60-69 urteko adin-tartean dauden gizonen taldearen kasuan.

Elkarbizitza-moduei dagokienez, pertsona bakarreko etxekoek unitateen % 71,4 alargunei dagokiela nabarmendu behar da. Orobat, seme edo alabaren etxean bizi diren adineko pertsonen % 80 ere alargunei dagokie. Beste modu batean esanda, alarguntasuna bakartasunarekin eta gabezia-egoerekin lotuta dago; izan ere, normalean laguntza behar dutelako etxetik atera eta seme edo alabaren etxera joan behar izan duten pertsonak halako ezaugarriak izan ohi dituzte: adineko emakumeak, osasun-arazo asko dituztenak eta mendetasun handiko egoeretan daudenak, zailtasun ekonomikoak izateaz gain.

Aitzitik, gizonen kasuan bikote-bizitza da profil nagusia: soilik ezkontidearekin edota bikotekidearekin eta seme-alabekin beren etxean bizi diren gizon gazteak izan ohi dira, osasun-egoera onean daudenak eta EBJetarako laguntzarik behar ez dutenak. Ezkongabeen taldean bakarrik edota bestelako etxekoek unitateren batean (zehaztu gabea) bizi diren, osasun-egoera txarrean dauden eta EBJetarako laguntza behar duten 60-69 urteko gizonak dira nagusi.

8. GRAFIKOA. Heziketa-maila sexuen arabera, 2010



Gaur egun, 60 urtetik gora izanik Euskadin bizi diren pertsona gehienek lehen hezkuntzako ikasketak dituzte, baina kasu guztietan ikasketa horiek ez dituzte amaituta (% 30,8k amaitu gabe ditu, eta % 31,3k, ostera, amaituta). Adin horretako pertsonen artean, irakurtzen eta idazten ez dakiten % 2k dirau (emakumeen % 2,8 eta gizonen % 1). Unibertsitateko goi-mailako ikasketak dituztenak, bestalde, % 5,1 dira (emakumeen % 3,2 eta gizonen % 7,7). Adineko emakumeak, beraz, prestakuntz-maila txikienetan kokatzen dira proportzio handiagoan. Genero-rol tradizionalekin bat datoz datu horiek; rol horien arabera, emakumeak esparru pribatuan, etxekean eta ugalketari dagokionean kokatzen dira, eta horrenbestez, araututako prestakuntza izateko aukera gutxi izan dituzte. Aldagarri horrek adinarekin duen alderantzizko lotura ere nabarmena da, emakumeak zenbat eta urte gehiago, lortutako prestakuntz-mailak orduan eta txikiagoak.

3. TAULA. Egoera zibila, 2010

	Ezkongabea	Ezkondua Bik. bizitzen	Banandua Dibortziatua	Alarguna	K
GUZTIRA 60 edo +	6,2	61,4	2,9	29,4	1.207
GUZTIRA 65 edo +	4,9	56,6	2,3	36,2	908
Adina					
60-69	8,0	72,3	4,6	15,0	521
70-79	4,9	60,4	1,3	33,4	442
80 edo +	5,2	40,1	2,0	52,8	224
Adina					
Gizonak	9,8	74,0	2,9	13,3	524
Emakumeak	3,6	51,8	2,9	41,8	683
Etxekeoen unitate mota					
Pertsona bakarrekoa	21,6	1,5	5,6	71,4	270
Bikotea	0,0	99,5	0,2	0,2	439
Bel. anitz. bere etxean	2,4	66,0	3,3	28,3	424
Be. an. seme edo alabaren etxean	0,0	14,3	5,7	80,0	35
Beste bat	20,5	38,5	5,1	35,9	38
Osasun-egoera					
Oso ona+Ona	5,0	67,5	2,4	25,1	662
Hala-moduzkoa	7,8	59,2	2,6	30,5	387
Txarra+Oso txarra	9,8	41,5	6,5	42,3	123
EBJetarako laguntza behar du					
Laguntza behar du	8,0	38,5	4,0	49,5	275
Ez du behar	5,8	68,2	2,5	23,5	932

Gainera, analfabetismoak presentzia du adineko pertsonen artean, eta osasun-egoera okerragoarekin, mendetasun-egoerarekin eta adinekoak eta haren semeak edo alabak osatutako etxekoen unitate motarekin (etxea seme edo alabarena izaki) lotuta dago adierazitako hori. Horri dagokionez, genero-desberdintasunak are handiagoak dira.


4. TAULA. Heziketa-maila, 2010

	Analfabetoa	Ikasketarik ez (irakurtzen eta idazten badaki)	Lehen he.amaitu gabe	lehen he. amaituta	Bigarren he.	Lanbide Heziketa	Unibertsitate Irakaskuntza	Arautu gabeko beste ikasketak
GUZTIRA 60 edo +	2,0	16,3	30,8	31,3	6,9	6,6	5,1	0,4
GUZTIRA 65 edo +	2,5	20,3	35,2	27,7	5,4	3,2	4,6	0,5
Adina								
60-69	1,1	7,3	24,3	38,8	9,5	12,5	5,9	0,2
70-79	2,0	20,1	36,3	27,1	4,3	2,8	5,9	0,8
80 edo +	3,7	28,8	34,9	22,9	5,9	1,0	2,2	0,0
Sexua								
Gizonak	1,0	12,3	29,3	31,4	7,3	10,3	7,7	0,2
Emakumeak	2,8	19,4	32,0	31,3	6,4	3,8	3,2	0,6
Etzekoen unitate mota								
Pertsona bakarrekoa	2,6	19,3	36,4	25,7	5,6	4,1	5,2	0,7
Bikotea	1,4	17,6	30,4	31,3	6,2	7,1	5,5	0,2
Bel. anitz. bere etxean	1,4	11,5	28,5	35,8	8,5	8,2	4,7	0,5
B. an. seme edo alabaren etxean	5,7	28,6	31,4	17,1	5,7	8,6	2,9	0,0
Beste bat								
Osasun-egoera								
Oso ona+Ona	1,2	10,6	27,2	34,9	9,2	9,2	6,5	0,6
Hala-moduzkoa	2,3	21,8	33,7	29,5	4,1	3,9	4,1	0,0
Txarra+Oso txarra	3,2	23,4	43,5	19,4	4,0	2,4	2,4	0,8
EBJetarako laguntza behar du								
Laguntza behar du	4,7	27,1	35,0	22,0	3,2	2,2	4,7	0,7
Ez du laguntza behar	1,2	13,1	29,5	34,1	7,9	7,9	5,3	0,3

ED/EE erantzun-ehunekoak ez dira kontuan hartu


Egoera ekonomikoari dagokionez, biztanleria-ehuneko handienari dagokion diru-sarreraren tartera hileko 601-900 eurokoa da (% 26). Eta nabarmendu beharrekoa da pertsonen oso ehuneko handi batek nahiago izan duela galdera horri ez erantzun (% 26,9).

9. GRAFIKOA. **Hileko diru-sarrereren maila, 2010**



Erantzun ez duten pertsonak alde batera utzita, hileko diru sarrereren banaketak –adinaren arabera– zera uzten du agerian, adinak gora egin ahala, adinekoek hileko dituzten diru-sarrerek behera egiten dutela. Laurogei urte edo gehiagokoak izanik (emakumeak dira adin-tarte horretako gehienak) 600 eurotik beherako diru-sarrerek dituztenen ehunekoa 60-69 urtekoena baino hiru aldiz handiagoa da. Sexu-desberdintasun handiak ikusita, begien bistakoa da hori. Diru-sarrereren tarteei dagokienez, emakume gehienak gizonak baino txikiagoak dira.

10. GRAFIKOA. **Hileko diru-sarrereren maila, adinaren eta sexuaren arabera, 2010**



Laburbilduz, diru-sarrera txikiak jasotzen dituzten etxekoek unitateak (600 euro baino gutxiago hilean) belaunaldi anitzekoak (eta adinekoa seme edo alabaren etxean

bizi da), eta pertsona bakarrekokoak dira, bereziki emakumeek eta adinekoek osatzen dituztenak. Eta diru-sarrerera handienak, aitzitik, gazteenek jaso ohi dituzte, eta eredu berberari jarraiki, bikoteak edota bestelako belaunaldiek –adinekoaren etxean bizitzen jarraitzen dutenek– osatutako etxekoen unitateetan biltzen dira. Osasunarekin eta laguntza-premiarekin lotutako adierazleak honako ildo honekin bat datoz: diru-sarrerera txikiagoak osasun txarragoa duten eta mendetasun-egoeran dauden pertsonen kasuan (urte asko izatearekin lotuta daude alderdi horiek).

5. TAULA. Hileko diru-sarrereren maila, 2010

	< 300 Eur	301-600 Eur	601-900 Eur	901- 1.200 Eur	1.200- 1.800 Eur	> 1.800 Eur
GUZTIRA 60 edo +	0,7	19,6	35,6	24,6	12,2	7,3
GUZTIRA 65 edo +	0,9	23,4	36,3	26,2	9,6	3,7
Adina						
60-69	0,3	10,5	34,1	24,1	17,3	13,8
70-79	0,6	22,8	35,4	28,2	9,6	3,3
80 edo +	1,7	32,4	39,1	19,0	6,7	1,1
Sexua						
Gizonak	0,3	9,4	36,7	28,6	15,2	9,7
Emakumeak	1,0	27,3	34,5	21,6	10,0	5,6
Etxekoen unitate mota						
Pertsona bakarrekoa	0,5	30,7	43,9	18,5	2,9	3,4
Bikotea	0,3	13,1	32,0	34,3	14,5	5,7
Bel. anitz. bere etxean	0,3	16,3	33,9	20,7	16,3	12,5
B. an. seme edo alabaren etxean	3,3	36,7	36,7	20,0	3,3	0,0
Beste bat	9,7	25,8	32,3	16,1	12,9	3,2
Osasun-egoera						
Oso ona+Ona	0,8	14,6	31,5	25,4	16,5	11,2
Hala-moduzkoa	0,7	24,0	38,9	25,8	7,1	3,5
Txarra+Oso txarra	0,0	28,7	42,6	19,8	7,9	1,0
EBJetarako laguntza behar du						
Laguntza behar du	2,3	35,8	34,4	17,9	4,6	5,0
Ez du laguntza behar	0,3	14,4	36,0	26,7	14,7	8,0

ED/EE erantzun-ehuneakoak ez dira zenbatu

Jarduerarekiko loturari dagokionez, adineko gehienek jubilatuak direla aitortu dute (% 54,7), % 18,7k etxeko lanetan dihardu (etxeko andrea edo gizona), % 15,9

aurretiaz lan egin ez duten pentsiodunak dira, % 7,4 lanean ari da eta % 1,9 langabezian dago. 60-69 urteko pertsonen dagokionez, lan egiten dutenen ehunekoak % 16,2raino igotzen da.

6. TAULA. Jarduerarekiko harremana, 2010


	Lanean	Erretiratuak edo pentsioduna	Pentsioduna (aurretiaz lan egin ez duena)	Langabezian	Etxeko jarduerak	Bestelako egoerak
GUZTIRA 60 edo +	7,4	54,7	15,9	1,9	18,7	0,3
GUZTIRA 65 edo +	1,2	58,9	18,3	0,1	20,4	0,3
Adina						
60-69	16,2	51,2	10,6	4,2	16,3	0,4
70-79	0,9	58,0	17,8	0,2	21,9	0,5
80 edo +	0,4	56,3	24,1	0,0	18,0	0,0
Sexua						
Gizonak	8,0	85,4	1,1	3,6	0,4	0,2
Emakumeak	6,9	31,3	27,2	0,6	32,7	0,4
Etxeko unitate mota						
Pertsona bakarrekoa	5,9	54,2	23,2	1,1	13,7	0,7
Bikotea	6,6	58,6	11,6	0,7	21,6	0,0
Bel. anitz. bere etxean	10,2	50,8	13,5	4,0	20,1	0,5
B. an. seme edo alabaren etxean	0,0	50,0	36,1	0,0	13,9	0,0
Beste bat	2,6	60,5	21,1	0,0	13,2	0,0
Osasun-egoera						
Oso ona+Ona	10,1	55,2	12,4	3,2	18,1	0,2
Hala-moduzkoa	4,7	53,7	20,7	0,5	18,3	0,8
Txarra+Oso txarra	3,2	54,8	20,2	0,0	21,0	0,8
EBJetarako laguntza behar du						
Laguntza behar du	0,0	52,0	24,0	0,4	21,5	0,0
Ez du laguntza behar	9,6	55,5	13,5	2,4	17,9	0,5

ED/EE erantzun-ehunekoak ez dira zenbatu

Adinekoek beren jarduerarekin duten loturari dagokionez, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak honako hauek dira: gizon gehienak aurretiaz lan egin duten erretiratuak edo pentsiodunak dira (% 85,4), eta emakumeen kasuan, ostera, % 32,7k etxeko lanetan dihardu, % 31,3 lan egin duten erretiratuak edo pentsiodunak

dira eta % 27,2, azkenik, aurretiaz lan egin ez duten pentsiodunak. Laburbilduz, gizonek lan ordainduarekin lotura handiagoa dute, eta emakumeek, berriz, etxeko lanekin edota ordaindu gabeko jarduerekin.

11. GRAFIKOA. Jarduerarekiko lotura, adinaren eta sexuaren arabera, 2010



Lan-merkatuan jarraitzen duten pertsona gehienak gizonak dira, 60-69 urte dituzte, beren etxeetan bizi dira (belaunaldi anitzeko etxekoen unitateetan), osasun-egoera onean daude eta eguneroko bizitzako jardueretarako ez dute laguntzarik behar. Hots, gizon gazte eta autonomoak, beren etxean hainbat belaunalditako pertsonekin bizi direnak, sostengatzaile nagusi gisa.

Gaur egun lanean diharduten edo lan egin duten pertsonen lanbide-kategoriak honela daude banatuta: % 42,7, trebakuntza duten langileak (kategoria horretan, bulegoetan lan egiten duten enplegatuak nahiz bestelakoak jasotzen dira, eta baita trebakuntza duten beharginak ere), % 22,5, zuzendaritza-karguetan, kudeatzailetza-karguetan edo erdi mailako aginte-karguetan diharduten edo lan egin duten pertsonak, % 22,2 trebakuntzarik gabeko eskuzko langileak, eta azkenik, % 12,5, beren kontura diharduten edo lan egin duten pertsonak.

Lanbide-kategoriari dagokienez, desberdintasun handiak daude emakumeen eta gizonen artean. Emakumeak enplegatuen –trebakuntza dutenen nahiz trebakuntzarik gabeen– taldean eta besteren konturako emakume langileen taldean nabarmentzen dira, eta zuzendaritza-karguetako, kudeatzailetza-karguetako edo erdi mailako aginte-karguetako ehunekoak, berriz, askoz ere txikiagoak dira. Gizonak, berriz, trebakuntza duten enplegatuen taldean eta zuzendatitza/kudeatzailetzaren eta erdi mailako aginteen taldean nabarmentzen dira.

7. TAULA. Lanbide-kategoria, 2010


	Bere konturako langileak	Zuzendaritza/ Kudeatzailtza eta erdi mailako aginte-karguak	Trebak. duten langileak	Treb. gabeko eskuzkolangileak
GUZTIRA 60 edo +	12,5	22,5	42,7	22,2
GUZTIRA 65 edo +	13,7	19,2	43,6	23,5
Adina				
60-69	10,3	27,5	41,9	20,3
70-79	13,7	20,4	43,5	22,4
80 edo +	16,2	13,2	43,4	27,2
Sexua				
Gizonak	8,6	28,9	46,2	16,3
Emakumeak	20,2	9,9	36,0	34,0
Etzekoen unitate mota				
Pertsona bakarrekoa	10,0	18,1	39,4	32,5
Bikotea	10,2	28,5	41,2	20,1
Bel. anitz. bere etxean	14,6	20,6	46,4	18,4
B. an. seme edo alabaren etxean	35,3	11,8	29,4	23,5
Beste bat	17,4	13,0	47,8	21,7
Osasun-egoera				
Oso ona+Ona	12,8	23,7	43,6	19,9
Hala-moduzkoa	8,9	26,2	41,8	23,1
Txarra+Oso txarra	20,9	6,0	35,8	37,3
EBJetarako laguntza behar du				
Laguntza behar du	17,4	18,1	29,7	34,8
Ez du laguntza behar	11,5	23,4	45,7	19,3

ED/EE erantzun-ehunekoak ez dira zenbatu

60 urtetik gorakoak izanik lanean jarraitzen dutenak lan egiten ez dutenak baino gehiago nabarmentzen dira erantzukizun handiko lanpostuak izateagatik (zuzendaritza/kudeatzailtza eta erdi mailako karguak) edo beren konturako langileak izateagatik. 60 urte bete ondoren norbere lanpostuan jarraitzeak zuzeneko lotura du enpresan duten karguarekin. Goi-mailako agintek, zuzendariak eta negozioren baten jabeek lan-merkatuan jarraitzeko joera handiagoa dute. Laburbilduz, lanbide-jarduerarekiko lotura (erantzukizuna beren gain hartu dutelako nahiz egiten duten jarduerak asebetetzea eragiten dielako), funtsezko adierazlea da beren lanpostuan geratzearen, eta beraz, erretirorako adina atzeratzearen ezaugarriak aztertzerakoan.

Ezinbestean adierazi behar da honako hau: azterlan honen emaitzek aditzera ematen dutenez, erretiroa hartzeko batez besteko adina 60,7 urte dira, adin ofizialetik eta estatuko gainerako autonomia-erkidegoetatik (gaur egun, 63 urte inguru) oso behera.

12. GRAFIKOA. Lanbide-kategoria, gaur egun lan egiten ote duten kontuan hartuta, 2010



4.1.2. ELKARBIZITZA-EREDUAK ETA FAMILIA-SAREAK.


Adinekoen arteko elkarbizitza-ereduen eta laguntzarako sare informalaren sorkuntzaren azterketa gerontologia-politikak planifikatzeko alderdi garrantzitsuenetakotzat hartzen da, batez ere horrelako pertsonen premia aldakorrekin bat etorriko liratekeen gizarte-baliabideak sortzeari dagokionez. Izan ere, azterlan honetan ikusitako bilakaera lagungarria izan daiteke zerbitzu soziosanitarioen eskaintza eta horietarako irisgarritasuna berrantolatzeke.

4.1.2.1. Etxekoan unitateen osaera

Euskadiko 60 urte edo gehiagoko pertsonak bizi diren etxekoan unitateen batez besteko neurria 2,23 pertsona dira. % 36,9 bikotekidearekin bizi da, % 35,0, berriz,

bere etxean belaunaldi anitzeko etxekoek unitateetan, eta % 22,3, ostera, pertsona bakarreko etxekoek unitate batean; soilik % 2,7 bizi da seme edo alabaren baten jabetzako etxean belaunaldi anitzeko etxekoek unitate batean, eta % 3,2, azkenik, bestelako etxekoek unitate batean.

13. GRAFIKOA. Elkarbizitza-moduak adinaren arabera, 2010



Adinak gora egin ahala, familia bakarreko etxekoek unitateetan, seme edo alabaren batekin belaunaldi anitzeko etxekoek unitateetan eta bestelakoetan bizi diren pertsonen ehunekoak ere gora egiten du. Adineko gazteenen artean, etxea beraiena izanik belaunaldi anitzeko etxekoek unitateak dira nagusi, hau da, nagusiki gurasoen etxean bizi diren hainbat belaunalditako pertsonen (gurasoak, seme-alabak, eta abar) osatutako etxekoek unitateak. 70-79 urteko tartean, bikote-bizitza nabarmentzen da, gainerako adin-tarteekin alderatuz: adin horretan, seme-alaba gehienak familia-etxetik kanpo daude, baina adineko pertsonen ohiko etxean jarraitzen dute, seme edo alabaren etxera joan gabe (hori mendetasun-egoerak agertzen direnean gertatu ohi da). Urte gehiago dituzten pertsonak, hots, laurogei urte edo gehiagokoak, mota guztietako etxekoek unitateetan egon ohi dira, baina pertsona bakarreko etxekoek unitateen gorakada da nabarmentzekoa (alarguntzeak ere gora egon ohi baitu din horretan), eta baita adinekoak sostengatzaile nagusia izateari uzten dion etxekoek unitateena ere (horrelako kasuetan, adinekoa seme edo alabaren baten etxera joan ohi da bizitzera).

Horrela, 60 urte edo gehiagoko pertsonen % 33,8 seme edo alabarekin bizi da [aurreko etxekoek unitatearen osaera duten belaunaldi anitzeko etxekoek unitateei buruzko datuen desberdinak dira adierazitako zifra horiek (% 35,2 eta % 2,9), kasu

horretan adinekoekin bizi diren seme-alabengandik bereiz islatzen baita datua, eta aurreko kasuan, berriz, seme-alabak, bilobak eta/edo gurasoak izan ditzaketen be-launaldi anitzeko etxekoen unitateez]. Etxekoen unitate horietako gehienek kasuan (% 92,2), etxeak adinekoen jabetzakoak dira, hots, adinekoek seme-alabak hartzen, eta askotan, mantentzen jarraitzen dute. Seme-alaba horien batez besteko adina 38 urte da, eta sexuen arabera ehunekoak honako hauek dira: % 45,9 seme batekin bizi da, eta % 40,3, berriz, alaba batekin. Batetik, adinekoen % 1,4k aitarekin, amarekin edo gurasoekin bizi dela aitortzen du, guraso horien batez besteko adina 88 urte da, % 26,5 aitarekin bizi da, eta gainerako % 73,5, berriz, amarekin. Pertsona gazteenen taldean, berriz, aitarekin, amarekin edota gurasoekin bizi diren adinekoen ehunekoak % 2,9raino iristen da. Etxean bilobekin bizi diren adinekoen ehunekoak % 3,7 da. Adinak gora egin ahala, ehuneko horrek ere gora egiten du (% 1,6tik % 7,8ra). Beraien bizi diren biloben batez besteko adina 17 urte dira.

8. TAULA. Elkarbizitza moduak, 2010

	Pertsona bakarrekoa	Bikotea	Bel. an.bere etxean	Bel, anitz. seme edo alabaren etxean	Bestelakoak
GUZTIRA 60 edo +	22,3	36,9	35,0	2,7	3,2
GUZTIRA 65 edo +	24,8	37,4	30,5	3,6	3,7
Adina					
60-69	17,9	35,2	44,2	0,4	2,3
70-79	24,7	41,9	28,1	2,3	3,2
80 edo +	27,8	29,0	28,6	9,4	5,3
Sexua					
Gizonak	16,4	42,4	37,0	1,3	2,9
Emakumeak	26,8	31,8	33,7	4,3	3,4
Habitata					
Landa-ingurunea	21,6	38,0	33,3	2,3	4,7
Tartekoa	24,0	39,1	29,9	4,5	2,5
Hiri-ingurunea	21,7	32,5	41,3	2,1	2,4
Osasun-egoera					
Oso ona+Ona	19,6	36,0	39,1	1,8	3,5
Hala-moduzkoa	23,1	42,0	29,0	3,1	2,8
Txarra+Oso txarra	34,1	25,2	31,7	6,5	2,4
EBJetarako laguntza behar du					
Laguntza behar du	30,2	25,8	30,9	8,0	5,1
Ez du laguntza behar	20,0	39,6	36,4	1,4	2,7

60 urtetik gorako pertsonen bizi diren pertsonen profilak honako hauek dira:

9. TAULA. Beste norbaitekin bizi diren adinekoen ehunekoa, beraiekin bizi diren pertsonen ezaugarrien arabera 2010

		Ezkontidea	Seme-alabak	Gurasoak	Bilobak	
Guztira	Elkarrekin bizi diren pertsonen %	36,4	33,8	1,4	3,7	
	Batez besteko adina	70,0	38,0	88,0	17,0	
	Sexua	G		45,9	26,5	41,3
		E		40,3	73,5	30,3
60-69	Elkarrekin bizi diren pertsonen %	35,2	38,3	2,9	1,6	
	Batez besteko adina	64,0	31,0	88,0	10,0	
	Sexua	G		45,5	24,1	41,3
		E		37,3	75,9	26,6
70-79	Elkarrekin bizi diren pertsonen %	41,9	28,7	0,4	3,9	
	Batez besteko adina	73,0	40,0	-	13,0	
	Sexua	G		47,8	49,8	38,5
		E		40,0	50,2	31,3
80 edo +	Elkarrekin bizi diren pertsonen %	28,9	33,4	-	7,8	
	Batez besteko adina	83,0	50,0	-	23,0	
	Sexua	G		44,1	-	43,2
		E		48,2	-	31,1

4.1.2.2. Familia-sareak

Herrialde latino guztietan bezala, oso maiztasun handiz izan ohi dituzte harremanak familiako kideekin. Esate baterako, seme-alabak dituzten adinekoen % 78ren hitzetan, egunero edota ia egunero ikusten dituzte seme-alabak, eta % 17,6k, berriz, astean behin edo bitan; horrenbestez, adineko 10 pertsonatik 9k beraiekin bizi ez diren seme-alabetako batekin gutxienez astean behin dute harremana (maiztasun handienez ikusten duten seme edo alabarekiko harremana baino ez da zenbatu). Pertsona horiek 2,56 seme-alaba dituzte batez beste.

Urte gehien dituzten pertsonen artean, eguneroko harremanak behera egin ohi du, baina astean behingo maiztasunari eusten jarraitu ohi zio. Adineko emakumeek gizonek baino maiztasun handiagoz izan ohi dute harremana seme-alabekin, baina ez dago alde handirik.

Adinekoek seme-alabekin harremanak maitasun handienez (egunero) izan ohi dituzten etxekoek unitateak belaunaldi anitzekoak dira, adinekoa sostengatzaile nagusia den kasuetan (% 93,2 egunero edo ia egunero) nahiz adinekoa seme edo alabaren

etxean bizi den kasuan (% 85,7, egunero edo ia egunero). Maiztasun handiko harreman hori etxebizitza berean bizi ez diren seme-alabekin izan ohi dute, eta horren ondorioz, hainbat belaunaldiz osatutako etxekoen unitate horietan, familia-harremanak intentsitate handikoak izaten dira. Aitzitik, bakarrik bizi diren pertsonak maiztasun txikiagoz izan ohi dituzte harremanak seme-alabekin.


10. TAULA. Harremana seme-alabekin, 2010

	Egunero edo ia egunero	Astean behin edo bitan	Hilean behin edo bitan	Maiztasun txikiagoz	Inoiz ez
GUZTIRA 60 edo +	78,0	17,6	2,0	1,7	0,6
GUZTIRA 65 edo +	75,5	19,1	2,8	1,8	0,6
Adina					
60-69	80,0	16,9	1,3	1,5	0,2
70-79	77,8	17,0	2,5	2,0	0,8
80 edo +	72,3	20,7	3,8	1,9	0,9
Sexua					
Gizonak	75,8	18,3	3,4	2,0	0,4
Emakumeak	79,1	17,3	1,4	1,6	0,5
Etxekoen unitate mota					
Pertsona bakarrekoa	65,6	25,5	3,1	3,6	1,6
Bikotea	67,8	26,8	3,2	2,2	0,0
Bel. anitz. bere etxean	93,2	5,1	1,2	0,5	0,0
Be. an. seme edo alabaren etxean	85,7	11,4	0,0	0,0	2,9
Beste bat	69,2	23,1	0,0	3,8	3,8
Habitata					
Landa-ingurunea	72,4	22,7	1,9	2,5	0,6
Tartekoa	76,0	18,9	2,7	1,8	0,6
Hiri-ingurunea	83,9	11,9	2,1	1,3	0,5
Osasun-egoera					
Oso ona+Ona	78,2	18,3	2,2	1,2	0,2
ala-moduzkoa	78,8	17,1	1,2	1,8	0,9
Txarra+Oso txarra	74,3	15,2	3,8	4,8	1,9
EBJetarako laguntza behar du					
Laguntza behar du	73,5	19,2	3,4	2,1	1,3
Ez du behar	78,9	17,3	1,9	1,7	0,2

ED/EE erantzun-ehunekoak ez dira kontuan hartu

Habitata ere, bestalde, familia-harremanen intentsitatean eragina duen aldagarria da, dirudienez. Hiri-habitatetan bizi diren pertsonak maiztasun handiagoz izan ohi dituzte harremanak seme-alabekin. Adierazitakoak eragin handiagoa izate horren arrazoietakoa bat, beharbada, zera da, 60ko eta 70eko hamarkadetan menditik hirira lan bila joan ziren belaunaldiek gure herrialdean gauzatutako landa-exodoa, hain zuzen ere. Belaunaldi horien gurasoek, gaurko adinekoen seme-alabak, –gaur egun aitona-amonak eta birraitonak eta birramonak direnek– landa-inguruneetan bizitzen jarraitzen dute, betiere osasuntsu badaude.


14. GRAFIKOA. Harremana seme-alabekin, sexuaren eta adinaren arabera



Harreman horien intentsitate handiaren kausa nagusietako bat hurbiltasuna da, gurasoak eta seme-alabak gertu bizi direla, hain zuzen. EAEko adineko hamar pertsonatik zazpiren etxearen eta seme edo alabaren etxearen arteko distantzia kilometro batetik beherakoa da (% 34,8ren kasuan, elkarrekin bizi dira). Seme-alabekin bizi ez diren pertsonak dagokienez, bestalde, bi etxeen arteko distantzia 25 kilometrotik beherakoa da horien % 95,2ren kasuan.


Adinekoen % 25,6ren hitzetan, beren etxearen eta gertueneko seme edo alabarenen arteko distantzia 10 minututik beherako denbora-tartean egiten dute. % 47,9ren hitzetan, 10-30 minutu.

15. GRAFIKOA. Gertueneko seme edo alabaren etxearekiko distantzia, 2010



60 urte baino gehiago izanik gurasoak (edo aita edo ama) bizirik dituzten pertsonen dagokionez, % 45,2k egunero edo ia egunero du harremana horiekin, eta % 32,6k, ostera, astean behin edo bitan; horrek zera esan nahi du, adineko hamar pertsonatik zortzik astero izan ohi dutela harremana gurasoekin. Anai-arrebekiko harremanak maiztasun txikiagokoak izan ohi dira, anai-arrebak dituzten pertsonen % 49,4k soilik du harremana astean behin anai-arrebekin. Bestelako ahaideekiko harremanak ere maiztasun txikiagokoak izan ohi dira: % 32,6ren hitzetan, astero dute nolabaiteko harremana horiekin.

16. GRAFIKOA. Beren etxearen eta seme edo alabaren arteko distantzia egiteko behar duen denbora-tartea




11. TAULA. Harremana bestelako ahaideekin, 2010

	Gurasoak	Anai-arrebak	Bestelako ahaideak
Egunero edo ia egunero	45,2	19,0	14,5
Astean behin edo bitan	32,6	30,4	18,1
Hilean behin edo bitan	12,8	19,6	23,1
Maiztasun txikiagoz	6,1	25,8	36,9
Inoiz ez	2,5	4,7	6,1
ED/EE	0,8	0,5	1,4

Adinekoen % 63,8k aitortu du familia nahi duten guztietan ikusten duela, eta % 30,3k, berriz, maiztasun handiagoz ikusi nahi lukeela. Adinak gora egin ahala, familia maiztasun handiagoz ikusi nahi luketela adierazi duten pertsonen ehunekoak ere handiagotu egiten da. Joera horrek lehen ikusitakoarekiko koherentziari eusten dio: zenbat eta urte gehiago orduan eta familia-harreman txikiagoa; horregatik, urte askoko pertsonak –maiztasun txikiagoko harremanak dituztenek–, hain zuzen ere, maiztasun handiagoko familia-harremanak eskatzen dituzte.

17. GRAFIKOA. Nahi zenukeen maiztasunez ikusten al duzu familia? Adinaren arabera, 2010



Gizonen eta emakumeen artean ere antzeko zerbait gertatzen da: maiztasun txikiarekiko harremanak dituzten gizonak familia maiztasun handiagoz ikusi nahi lukete. Adinekoa bakarrik bizi den etxeen unitateetan ere islatzen da hori.

12. TAULA. Nahi zenukeen maiztasunez ikusten al duzu familia?, 2010

	Nahi duen guztia	Gehiagotan ikusi nahi luke	Gutxiagotan ikusi nahi luke	Ez du ahaiderik
GUZTIRA 60 edo +	63,8	30,3	1,0	0,7
GUZTIRA 65 edo +	60,1	32,5	1,2	0,8
Adina				
60-69	69,8	27,7	1,0	0,6
70-79	62,1	31,6	0,7	0,5
80 edo +	54,1	33,6	1,6	1,6
Sexua				
Gizonak	61,6	32,9	1,1	0,8
Emakumeak	65,6	28,4	0,9	0,7
Etxekoan unitate mota				
Pertsona bakarrekoa	55,9	37,4	0,7	1,9
Bikotea	61,6	34,3	1,1	0,5
Bel. anitz. bere etxean	71,9	21,7	0,9	0,5
B. a. seme edo alabaren etxean	55,6	27,8	0,0	0,0
Beste bat	60,5	34,2	2,6	0,0
Habitata				
Landa-ingurunea	63,6	28,9	1,6	0,9
Tartekoa	59,5	33,2	1,1	1,1
Hiri-ingurunea	67,5	29,5	0,2	0,5
Osasun-egoera				
Oso ona+Ona	71,6	25,2	0,9	0,5
Hala-moduzkoa	59,2	37,0	1,6	0,8
Txarra+Oso txarra	49,6	43,1	0,8	2,4
EBJetarako laguntza behar du				
Laguntza behar du	48,9	37,3	1,1	1,1
Ez du behar	68,2	28,2	1,0	0,6

ED/EE erantzun-ehunekoak ez dira kontuan hartu

Ahaideekin harremanak duten asebetetzea oso ona da. 0-10 eskala batean, kontuan hartuz 0 «batere asebeste ez» dela eta 10 «erabat asebeste», Euskadiko adineko biztanleriaren batez bestekoa 9 da seme-alabekin duten harremanarekiko asebetetze-maila ezartzean. Bestelako ahaideekiko harremanaren asebetetze-maila ere altua da, zehazki, batez beste 8,1.

13. TAULA. Asebetetzea ahaideekiko harremanarekin, 2010


	Seme-alabak		Bestelako ahaideak	
	Batez beste	Desb. tip.	Batez beste	Desb. tip.
GUZTIRA 60 edo +	9,0	1,5	8,1	1,9
GUZTIRA 65 edo +	9,1	1,4	8,0	2,0
Adina				
60-69	9,0	1,6	8,2	1,9
70-79	9,1	1,2	8,1	2,0
80 edo +	8,9	1,7	8,0	2,0
Sexua				
Gizonak	8,9	1,7	8,2	1,7
Emakumeak	9,1	1,3	8,0	2,0
Etxekoen unitate mota				
Pertsona bakarrekoa	9,0	1,5	7,9	2,1
Bikotea	9,1	1,3	8,1	1,9
Bel. anitz. bere etxean	9,0	1,6	8,3	1,8
B. a. seme edo alabaren etxean	9,2	1,7	7,7	2,1
Beste bat	8,7	2,2	8,3	2,2
Habitata				
Landa-ingurunea	8,7	1,3	7,6	1,8
Tartekoa	9,3	1,3	8,1	2,2
Hiri-ingurunea	9,1	1,7	8,6	1,7
Osasun-egoera				
Oso ona+Ona	9,1	1,5	8,2	1,8
Hala-moduzkoa	9,0	1,3	7,9	2,0
Txarra+Oso txarra	8,7	1,9	7,7	2,2
EBJetarako laguntza behar du				
Laguntza behar du	9,0	1,6	7,8	2,2
Ez du behar	9,0	1,5	8,2	1,8

4.1.3. ETXEBIZITZA ETA INGURUNEA**4.1.3.1. Edukitza-erregimena eta ekipamenduak**

EAEko adineko pertsona gehienek jabetzako etxebizitza dute, zehazki, % 90,1ek. Etxebizitzaren edukitza-erregimena oso adierazle garrantzitsuztat hartzen da adinekoen baliabideak eta egoera sozioekonomikoa aztertzerakoan. Familia-aurrekontuetan

lasaitasuna eragiten du, eta ondorioz, bizitzaren etapa horretan segurtasun-sentimendu garrantzitsua ekartzen du. Laburbilduz, etxebizitza nahiz haren ingurunea adinekoen bizi-kalitaterako erabakigarriak diren alderditzat hartzen dira. Etxearen kondizio objektiboez gain (laguntza behar duten kasuetan ere, etxearen kondizioek bertan geratzea ahalbide diezaiekete adinekoei), etxe-esparruetan beste hainbat alderdi ere intentsitate handiz agertzen dira, hala nola kontrol-hautematea, egonaldi-hautematea, edota aukeratzeko gaitasunaren hautematea, besteak beste. Hala eta guztiz ere, etxebizitzaren edukitza-erregimena jabetzako izatea askoz ere ezohikoa da Europako gainerako herrialde gehienetan; izan ere, horietan alokairua da nagusi, eta beraz, egoera berrietara edota laguntza-premiara egokitutako etxebizitza-aldaketak egitea askoz ere errazagoa da (Ikus 5.2.3 atala, «Nazioarteko alderaketa» deritzona).

18. GRAFIKOA. Etxebizitzaren edukitza-erregimena, 2010



Seme edo alabaren jabetzako etxebizitzek gora egin ohi dute laurogei urte edo gehiagokoak izanik osasun-arazoak dituzten eta EBJk egiteko laguntza behar duten pertsonen kasuan. Mendetasun- edo ahultasun-egoera dela-eta seme edo alabaren etxebizitzara joan diren adinekoen kasuak ditugu horrelakoak.

Euskadiko adinekoak bizi diren inguruneak urbanizatuak izan ohi dira batez ere. % 95,1 mota horretako inguruneetan bizi da, eta soilik % 3,7 bizi da isolatutako etxe batean, bizilagunik gabe inguruan. Ehuneko hori txikia bada ere, funtsezko garrantzia du zerbitzu-hornikuntzen eta horietarako irisgarritasunaren ikuspegitik. Adinekoen bizi-tokia alderdi garrantzitsua da gizarte-politiketan eta arretaren plangintzan. Hirietan, adineko pertsona ugari egoteak baliabideen antolamendu eta sarbide errazagoa ahalbidetzen die erabiltzaileei. Landa-ingurunean, adineko pertsonak nukleo txiki eta urrutetan sakabanatuta egoteak zerbitzuak ematea zailtzen eta garestitzen du. Gai hori

antolatzea zaila da landa-eskualdeetan. Zenbait gunetan, teknologia berrien erabilera sustatzen ari dira, eta baita etxeko eta gertuko baliabideak bultzatzen ere, arazo hori arintzeko formula berri eta sortzaileen bitartez.


14. TAULA. Etxebizitzaren edukitza-erregimena, 2010

	Jabetza	Seme-alaben jabetza	Beste ahaideren baten jabetza	Alokairua	Utzitakoa edo lagatakoa	Bestelako egoerak
GUZTIRA 60 edo +	90,1	3,5	1,8	3,8	0,2	0,5
GUZTIRA 65 edo +	89,2	4,3	2,1	3,4	0,2	0,7
Adina						
60-69	92,9	0,8	1,2	4,6	0,0	0,6
70-79	91,9	2,5	1,1	3,6	0,2	0,5
80 edo +	81,1	11,1	4,5	2,5	0,4	0,4
Sexua						
Gizonak	91,6	1,7	2,1	3,8	0,0	0,8
Emakumeak	88,9	4,8	1,6	3,8	0,3	0,4
Etxekoan unitate mota						
Pertsona bakarrekoa	86,6	1,5	1,5	8,2	0,4	1,9
Bikotea	97,3	0,5	0,2	1,6	0,2	0,0
Bel. anitz. bere etxean	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
B. a. seme edo alabaren etxean	0,0	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Beste bat	10,3	0,0	43,6	43,6	0,0	2,6
Habitata						
Landa-ingurunea	87,6	3,5	2,8	5,9	0,0	0,2
Tartekoa	90,5	4,7	1,1	3,1	0,6	0,0
Hiri-ingurunea	92,5	2,4	1,4	2,1	0,0	1,4
Osasun-egoera						
Oso ona+Ona	92,3	2,1	2,0	3,2	0,0	0,3
Hala-moduzkoa	90,2	4,1	1,6	3,4	0,3	0,5
Txarra+Oso txarra	81,5	7,3	1,6	8,1	0,0	1,6
EBJetarako laguntza behar du						
Laguntza behar du	81,8	9,5	3,3	3,6	0,4	1,5
Ez du behar	92,7	1,7	1,4	3,8	0,1	0,2

Adinekoen erdia hiri handietan bizi da (zehazki, % 40,8 hiri handietan eta % 9,1 hiri handietako bizitegi-guneetan edota hiri handien inguruetan). Soilik adinekoen


% 14,2 bizi da biztanle gutxiagoko herrietan. Landa-eremuek zahartze-indize handiagoa badute ere (edo beste modu batean esanda, biztanleria-ehuneko handiagoak dituzte bertan gazte gutxi bizi direnez adinekoen garrantzi erlatiboak gora egin ohi duelako), urte gehieneko pertsona gehienak hiri handietan bizi dira. Banaketa horrek biztanleriaren banaketa-eredu orokorrari jarraitzen dio, izan ere, eredu orokor horretan hiri-biztanleriak landa-biztanleriak baino gero eta zeregin garrantzitsuagoa dauka.

19. GRAFIKOA. Etxebizitza zein ingurune motatan kokatuta dagoen, 2010




Adinekoak bizi diren etxebizitza edo eraikin motari dagokionez, gehienak pisu-eraikinetan bizi dira (% 60,2 igogailua dutenetan, eta beste % 31,8, berriz, igogailurik gabekoetan). Bestalde, % 4 finka edo baserriren batean bizi da, eta % 3,3, ostera, etxeren batean, hots, banako txaleten, txalet atxikiren edota familia bakarreko behe-etxebizitzaren batean.

20. GRAFIKOA. Etxebizitza zein ingurune motatan kokatuta dagoen, 2010




21. GRAFIKOA. **Etxebizitza mota, 2010**



Igogailurik gabeko pisuetan bizi diren pertsonen % 8,2 eraikinaren beheko solairuan bizi da, % 31,3, berriz, lehenengo solairuan, % 22,8, ostera, bigarrenean, eta azkenik, 10 pertsonatik ia 4 hirugarren solairuan edo hortik gorakoan. Hau da, igogailurik gabeko pisuetan bizi diren pertsona horien % 90ek eskailera-atalen bat igo behar du bere etxebizitzara iristeko. Guztizko kopuruari dagokionez, igogailurik gabeko eraikinen goiko solairuetan –lehenengoan edo hortik gorakoan– bizi diren adinekoen ehunekoa % 28,9 da, hots, 60 urte edo gehiagoko 156.772 pertsona, gutxi gorabehera.

22. GRAFIKOA. **Igogailurik gabeko pisu-eraikinetan bizi diren pertsonak, bizi diren solairuaren arabera, 2010**



Igogailurik gabeko pisu-eraikinetako goiko solairuetan bizi diren pertsona horiek honela banatuta daude: % 60,9 emakumeak dira, % 24,8, 80 urte edo gehiagoko pertsonak, % 26,0 bakarrik bizi da, % 12,5ek osasun-egoera txarrean edo oso txarrean dagoela aitortu du, eta % 27,7k eguneroko bizitzako jarduerak egiteko laguntza behar du.


Adinekoen etxebizitzaren beste ezaugarri garrantzitsu bat ekipamenduak eskuragarri izatea da. Kontsultatutako adineko ia guztiek sukaldea, hozkailua, garbigailua, te-

lebista, irratia, mikrouhin-labea edo telefono finkoa dauka etxean. Hamarretik zortzik etxebizitza berotzeko sistemaren bat dute. Eta ia % 70ek telefono mugikorra dauka. Ordenagailu pertsonalak ere gero eta ohikoagoak izaten hasi dira adinekoen etxebizitzetan: EAEko adineko hamar pertsonatik ia hiruk ordenagailua dute, eta lau adineko pertsonatik batek, berriz, Interneterako sarbidea. Informazio-teknologia berrien erabilera gero eta handiagoa da biztanleria-talde horretan.

15. TAULA. Igogailurik gabeko eraikinetako goiko solairuetan –lehenengoan edo hortik gorakoan– bizi diren pertsonen profila, 2010

	Profila
Sexua	
Gizonak	39,1
Emakumeak	60,9
Adina	
60-69	34,9
70-79	40,3
80 edo +	24,8
Etxeko unitate mota	
Pertsona bakarrekoa	26,0
Bikotea	35,3
Bel. anitz. bere etxean	29,2
B. a. seme edo alabaren etxean	4,5
ED/EE	5,0
Osasun-egoera	
Oso ona+Ona	48,6
Hala-moduzkoa	38,9
Txarra+Oso txarra	12,5
EBJetarako laguntza behar du	
Laguntza behar du	27,7
Ez du behar	72,3

23. GRAFIKOA. Etxebizitzetan dituzten ekipamenduak, 2010



Adineko pertsonak modu positiboan balioetsi ohi dute beren etxebizitzaren egoera. 0-10 eskala batean, beren etxebizitzaren egoeraren balioespenaren gainean galdetzen zaienean, batez bestekoa 7,83 da. % 1,4k 0tik 4ra bitarte balioesten dute, % 41,1ek 5etik 7ra bitarte, eta % 57,4k, azkenik, 8tik 10era bitarte.

4.1.3.2. Etxebizitzaren eta ingurunearen irisgarritasuna

Lehen adierazi dugun bezala, etxebizitza nahiz haren ingurunea funtsezko alderdiak dira adineko pertsonentzat, eta ondorioz, baita gizarte-politiken plangintzan ere. 60 urtetik gorako EAEko pertsonen % 8,8-18,8k aitortu du ohiko ingurunerako sarbidean arazoren bat dagoela. Ehunekorik txikiena (% 8,8) etxebizitzaren barruan mugitzeko edo lekuz aldatzeko oztoporen edo traba fisikoren bat dutela deritzoten pertsonen dagokie. Eta ehunekorik handiena, berriz (% 18,8), eraikinera sartzeko arazoren bat duten pertsonen dagokie.


Adinak gora egin ahala, arazo horiek handitzen hasi ohi dira. Laurogei urte edo gehiagokoan % 16,6k aitortu du etxebizitzaren barruan arazoak dituela, % 32,3k, os-tera, bizi den eraikinerako sarbidean, % 25,3k, aldiz, hurbileneko ingurunean, eta % 32,4k, azkenik, garraio publikoan mugitzeko.

16. TAULA. Irisgarritasun-arazoak dituzten pertsonen ehunekoa, 2010

	Etxebizitza	Eraikina	Ingurunea	Garraio publikoa
GUZTIRA 60 edo +	8,8	18,8	16,1	13,8
GUZTIRA 65 edo +	10,5	21,2	18,3	17,4
Sexua				
Gizonak	6,6	15,2	14,4	8,6
Emakumeak	10,4	21,5	17,5	17,7
Adina				
60-69	5,6	12,4	11,4	4,7
70-79	8,1	18,7	16,6	14,1
80 edo +	16,6	32,3	25,3	32,4
Etxekoan unitate mota				
Pertsona bakarrekoa	11,8	20,4	20,5	16,2
Bikotea	5,7	17,3	14,8	10,6
Bel. anitz. bere etxean	9,1	16,9	13,9	13,3
B. a. seme edo alabaren etxean	17,0	36,2	27,6	33,5
Habitata				
Landa-ingurunea	10,8	23,0	19,7	15,1
Tartekoa	8,1	20,7	11,7	12,6
Hiri-ingurunea	7,3	13,0	16,3	13,4
Osasun-egoera				
Oso ona+Ona	4,3	12,1	9,4	5,9
Hala-moduzkoa	8,5	19,9	20,7	16,5
Txarra+Oso txarra	23,6	41,0	33,6	38,8
EBJetarako laguntza behar du				
Laguntza behar du	24,9	45,5	35,6	40,6
Ez du behar	4,0	10,9	10,4	5,8

Logikoki, irisgarritasun-arazo horiek ohikoagoak dira ahultasun- eta mendetasun-profilekin lotutako pertsonen artean: seme edo alabaren etxean belaunaldi anitzeko etxekoan unitateetan bizi diren emakumeak, edota landa-habitatetan bizi diren pertsonak, osasun-egoera txarragoa aitortu dutenak, edo eguneroko bizitzako jarduerak egiteko laguntza behar dutela aitortu duten pertsonak.

24. GRAFIKOA. Irisgarritasun-arazoak dituzten pertsonen ehunekoa, adinaren arabera, 201



4.1.3.3. Baliabideen gertutasuna


Pertsonen bizi-kalitatearekin eta gizarte-bizitzan horiek duten partaidetzarekin lotutako beste alderdi garrantzitsu bat zera da, hurbileko ingurunean eskuragarri dituzten baliabideak, hain zuzen ere. Adineko pertsonen ehuneko handi batek aitortu duenez, supermerkatuara, janari-dendara, parkera, berdeguneetara edota osasun-zentrorra oinez joateko 15 minutu baino gutxiago behar ditu. Toki horiek guztiak funtsezko garrantzia dute edozein pertsonarentzat, eta horrenbestez, horietarako sarbide erraza izatea autonomia pertsonaleko oinarritzko adierazlea da zahartze-prozesuan.

Bestalde, aurkeztutako baliabideetako zenbaitzuk sekula erabiltzen ez dituzten pertsona kopuru garrantzitsu bat dago. Esate baterako, % 53,2k aitortu du adinekoen zentroetara ez dela inoiz ere joaten, % 49,2 ez da sekula joaten kultura-etxeetara edota kiroldegietara, eta % 15,3, azkenik, inoiz ez da joaten parkeetara edo berdeguneetara. Ikus daitekeenez, erabili gabeko baliabide gehienak astialdiarekin eta aisiarekin zerikusia dute, eta gizarte-politikak alderdi hori landu behar dute.

Kultura- eta kirol-jardueretako zentrozen kasuan, baliabide mota horiek erabiltzean edo ez erabiltzean eragin nabarmena duen aldagarri bat heziketa-maila dugu. Prestakuntza-maila handienak dituzten pertsonen barruan lehen adierazitako zentroetara joan ohi direnen ehunekoa prestakuntza-maila txikiagoak dituzten pertsonena baino bi aldiz handiagoa da (pertsona analfabetoen % 60,7 ez da horrelakoetara seku-

la ere joaten, eta bigarren mailako edo hortik gorako titulazioaren bat duten pertsonen artean, berriz, ehuneko hori % 33,5 da). Bestalde, parkeetara edota berdeguneetara joateari dagokionez, eragin handiena izan ohi duen aldagarria osasun-egoera dugu; osasun-egoera onean (Ona+Oso ona) dauden pertsonen % 12,4 ez da horrelako tokietara joaten, eta beren osasun-egoera txartzat edo oso txartzat hartzen duten pertsonen kasuan, berriz, ehuneko hori % 36,3 da.

25. GRAFIKOA. Inguruneko hainbat baliabideren distantzia eta eskuragarritasuna, 2010




	Supermerkatua edo janari-denda	Osasun-zentroa	Anbulatorioa/Ospitalea	Adinekoen zentroa	Kultura-etxea edo kiroldegia	Parkea edo berdegunea
■ Oinez < 15 min.	78,6	71,8	43,3	32,2	33,7	74,0
■ Oinez >15 min.	5,9	13,7	14,2	6,3	8,4	8,0
■ Garraio kolektiboan	1,3	3,8	19,6	2,6	2,1	0,5
■ Taxian edo autoan	6,1	8,7	20,2	2,6	2,3	0,4
■ Ez dago	0,2	0,0	0,0	1,8	1,8	0,7
■ Ez naiz sekula joaten	7,5	1,6	2,5	53,2	49,7	15,3
■ ED/EE	0,4	0,5	0,3	1,3	2,0	1,1

4.1.3.4. Bizitegi-mugikortasuna

EAEko adineko pertsonen % 9,1 baino ez da etxebizitzaz aldatu hirurogei urte bete ondoren. Zalantzarik gabe, etxebizitzaren jabetza-erregimeneko borre handiek bizitegi-mugikortasuna eskasa izatea eragiten dute. Ehuneko hori % 16 da laurogei urte edo gehiagoko kasuan.


26. GRAFIKOA. 60 urte bete ondoren etxebizitzaz aldatu diren pertsonak, 2010



Orobat, etxebizitzaz aldatu diren pertsonak osasun-egoera okerragoa dutela eta EBJetarako laguntza behar dutela aitortu dutenak ditugu, eta honenbestez, horrelako aldaketan arrazoi nagusia ahultasun- eta mendetasun-egoerak direla atzeman da.

Etxebizitzaz aldatu diren edota beste lekuren batera joan diren pertsonen dago-kienez, bestalde, banaketa honako hau da: % 25,8 txikiagoa den etxeren batera joan da, % 24, bigarrenik, ahaideren baten etxera, % 19,3, hirugarrenik, hiri-inguruneren batera, % 9,5, bestalde, mendira (jatorrizko herrira itzuli dira horiek), % 5,8, berriz, ahaideren baten etxebizitzatik gertu, % 5, ostera, kostaldera, eta % 8,5, azkenik, bestelako lekuren batera. Etxebizitzaz aldatzeak txikiagoak eta berriagoak izanik irisgarritasun-arazorik ez duten etxebizitzetara joatea esan nahi du normalean. Batzuetan, lekualdaketak ahaideren baten etxebizitzara egin ohi dira, orokorrean, seme edo alabaren etxera, edota hiri-inguruneetara, horrelako tokietan baliabideetarako sarbidea errazagoa izan ohi baita.

27. GRAFIKOA. Nora joan diren, 2010



Toki berriak zuzeneko lotura izan ohi du elkarrizketatutako pertsonen laguntzarako duten premia-mailarekin. Mendetasun-egoeran daudenen kasuan, ehuneko handiagoan aldatu ohi dira ahaideren baten etxebizitzara (zehazki, % 37,3, eta besteen kasuan, berriz, % 18); pertsona autonomoek, ostera, bestelako alternatibak hautatu ohi dituzte, esaterako, txikiagoa den etxebizitzaren bat (zehazki, % 28,1, eta besteen

kasuan, aldiz, % 20,7) edota hiri-ingurune bat (% 22,3, eta besteen kasuan, berriz, % 12,8).


17. TAULA. 60 urte bete ondoren etxebizitzaz aldatu diren pertsonak, 2010

	Exebizitzaz aldatu diren pertsonak
GUZTIRA 60 edo +	9,1
GUZTIRA 65 edo +	11,2
Adina	
60-69	4,2
70-79	11,0
80 edo +	16,0
Sexua	
Gizonak	8,4
Emakumeak	9,6
Etxekoan unitate mota	
Pertsona bakarrekoa	10,0
Bikotea	6,1
Bel. anitz. bere etxean	6,4
B. a. seme edo alabaren etxean	55,6
Beste bat	26,3
Habitata	
Landa-ingurunea	8,9
Tartekoa	12,8
Hiri-ingurunea	6,1
Osasun-egoera	
Oso ona+Ona	5,6
Hala-moduzkoa	13,5
Txarra+Oso txarra	13,0
EBJetarako laguntza behar du	
Laguntza behar du	15,6
Ez du behar	7,1

Etxebizitzaz aldatu diren pertsonen % 64,1en ustez, lekualdaketa horrek bere bi-zi-kalitatea hobetu du. Soilik % 7,9ren aburuz okertu du. Alabaina, hori nabarmendu beharreko zerbait dugu, beste etxebizitza batera aldatzeak bizimoduz aldatzea ekarri ohi baitu, eta hori, zenbait kasutan, kaltegarria izan daiteke. Bizilagun-sarea galdu egiten da, ohitutako giroa aldatu egiten da, ohikeriak ere aldatu egiten dira, eta abar.


Azken batean, beste auzo batera egokitzea zaila izan daiteke. Horrelako prozesuetan arriskuan jarri ohi dira kontrol-hautematea, orientazioa, segurtasuna, partaide izatea eta deslotura. Hala eta guztiz ere, eta egokitzapena batzuetan korapilatsua izan badai- teke ere, egokia ez den etxebizitzan geratzea baino aukera hobea da lekuz aldatzea.

28. GRAFIKOA. Nora joan diren, EBJetarako duten laguntza-premiaren arabera




Etxebizitzaz aldatu ez diren pertsonen % 2,4k baino ez du pentsatzen hurrengo urteetan beste etxebizitzaren batera joatea. Adineko gehienak –zehazki, % 96,4– ez dira beste etxebizitzaren batera bizitzera joatea pentsatzen ari.

29. GRAFIKOA. Aldaketak bizi-kalitatean, 2010




30. GRAFIKOA. **Etorkizunerako planak, hurrengo urteetan etxebizitzaz aldatzeari dagokionez, 2010**



Lekuz aldatzea pentsatzen ari diren % 2,4 txiki horren barruan, honako leku hauetara aldatzea pentsatzen ari dira:

31. GRAFIKOA. **Hurrengo urteetan nora joatea pentsatzen duten, 2010**



Adinekoen ehuneko handi batek etxebizitzaz aldatzea pentsatu duela baina oraindik nora joango litzatekeen ez dakiela edo erabaki ez duela nabarmendu behar da (% 22).


4.1.4. OSASUNA, MENDEBASUNA ETA ZAINTZAK

4.1.4.1. Osasun-egoera subjektiboa

Norbere osasun-egoeraren hautemateari osasun subjektibo deritzo, osasun objektibotik bereizteko (diagnostikatutako gaixotasunak eta antzeko gaitz aitortuak). Egoera fisikoa eta antzeko gaixotasunak islatzen ditu, baina pertsonaren gizarte-, ekonomia- eta ingurune-faktoreak ere bai (Abellán eta Sancho koord., 2008). Adierazle hori herri-administrazioek erabili ohi dute biztanleriaren egoera orokorra zein den jakiteko. Ez ditu beste zenbait adierazle ordeztzen (ospitale-erikortasuna, hilkortasuna, zerbitzuen erabilera, zuzkidurak, ekipamenduak, eta abar), baina herritarrek oso gai delikatu eta garrantzitsu baten gainean (osasuna) duten iritzia jakiteko modua da botere publikoentzat. Herritarren etorkizuneko egoerak, premiak eta gaitasun funtzionalak aurreratzeko erabil daiteke. Pertsona jakin bat ondo sentitzeak eguneroko bizitza nola daraman zehazten du: pertsonak sentitzen diren moduaren eta horiek egiten dutenaren artean lotura estua dago.


Euskadiko adineko pertsonen erdiak baino gehiagok osasun-egoera onean edo oso onean daudela aitortu dute. Alderantzizko egoeran, bestalde, elkarriketatutakoen % 10,5 dago. Adina adierazle erabakigarria da osasuna hautematerakoan: 60-69 urteko adin-tartean 10 pertsonatik ia 7k osasun-egoera onean daudela adierazi dute, eta % 5,9k, ostera, osasun-egoera txarrean dagoela. Aitzitik, laurogei urte edo gehiagokoen kasuan, ehuneko horiek erabat aldatzen dira: elkarriketatuen % 38k adierazi du osasun-egoera onean edo oso onean dagoela, eta % 19,7k, berriz, balioespen negatiboa egin dio bere osasun-egoerari (txarra edo oso txarra). Adierazitako adin-talde horretan, gainera, hala-moduzko osasun-egoeran (osasun txarrarekin onarekin baino lotura handiagoa du horrek normalean) duela aitortu duen biztanleriaren ehunekoak ere gora egiten du.

32. GRAFIKOA. Osasun-egoera subjektiboa, adinaren arabera, 2010



Antzeko beste zenbait azterlanetan ikusitakoaren kasuan ez-bezala, adin horretan sexuen arteko desberdintasunak ez dira oso nabarmenak. Gizonen artean, osasun-egoera onean dagoela aitortu duen biztanleria-ehuneko handiagoa dago baina emakumeekin konparatuz, ehunekoak ez dira asko aldatzen. Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna, beren osasun-egoera onaren balioespenari dagokionez, honako honetan ikusten da: emakumeek hala-moduzko gisa balioesten dute hein handiagoan, eta osasun-egoera txarrean daudela adierazi duten gizonen ehunekoa eta emakumeena oso antzekoak dira.


33. GRAFIKOA. Osasun-egoera subjektiboa, sexuaren arabera, 2010



Haatik, adinak gora egin ahala, sexuen arteko desberdintasunak ere handiagotu egiten dira beren osasuna hautemateari dagokionez, emakumeen balioespena modu esanguratsuan okerragotuz. Osasun-egoera onean edo oso onean daudela adierazi duten emakumeen ehunekoa % 72,0 da 60-69 urtekoen artean, eta laurogei urte edo gehiagoko kasuan, berriz, ehuneko hori % 35,0 da. Gizonen kasuan, berriz, joera logiko horrekin jarraitzen badute ere (zenbat eta urte gehiago, orduan eta osasun-egoera okerragoa), ehunekoaren arteko aldeak txikiagoak dira. 60-69 urtekoen taldearen eta 80 urte edo gehiagoko taldearen artean, osasun-egoera onean daudela uste dutenen ehunekoa soilik % 22,1 jaisten da, eta emakumeen kasuan, berriz, alde hori % 37 da. Adineko pertsona gazteenen taldean (60-69 urte), nabarmendu beharrekoa da emakumeen ehunekoa gizonena baino handiagoa dela osasun-egoera onari dagokionez, eta laurogei urte edo gehiagoko pertsonen taldean, aldiz, ehuneko hori alde-rantzikatu egiten da.

Horretaz gain, beste hainbat aldagarri soziodemografikok ere osasun-egoera subjektiboan eragina dutela ikusi da. Esate baterako, osasun-egoera txarrean honako hauek nabarmentzen dira: seme edo alabarekin haren etxean bizi diren pertsonen ehunekoa, bakarrik bizi diren pertsonena, heziketa-maila txikiak dituzten pertsonena (horri dagokionez, aldagarri horrek generoarekin duen lotura kontuan hartu behar dugu), eta jakina, EBJK egiteko laguntza behar duten pertsonena.

34. GRAFIKOA. Osasun-egoera subjektiboa (Ona + Oso ona) sexuaren eta adinaren arabera, 2010



18. TAULA. Osasun-egoera subjektiboa, 2010

	Oso ona + Ona	Hala-moduzkoa	Txarra + Oso Txarra
GUZTIRA	56,5	33,0	10,5
Sexua			
Gizona	58,6	31,4	10,0
Emakumea	54,8	34,2	11,0
Adina			
60-69	68,7	25,4	5,9
70-79	51,4	37,4	11,3
80 edo gehiago	38,0	42,3	19,7
Etxekoen unitate mota			
Pertsona bakarrekoa	49,8	34,0	16,2
Bikotea	55,2	37,5	7,3
B. a. bere etxean	63,2	27,4	9,4
B. a seme edo alabaren etxean	37,4	39,0	23,6
Heziketa-maila			
Analfabetoa	38,0	42,1	19,9
Ikasketarik gabe/ikasketak amaitu gabe	45,8	39,1	15,0
Lehen hezkuntza	64,6	28,8	6,6
Bigarren hezkuntza/Goi-mailakoak	73,8	22,5	3,7
EBJetarako laguntza behar du			
Laguntza behar du	23,5	44,7	31,8
Ez du behar	65,5	29,8	4,7

4.1.4.2. Mendetasuna eta desgaitasuna

Inkesta honetan, laguntza jasotzeko premia hamabi itenez (eguneroko bizitzako jardueri buruzkoak) osatutako eskala baten bitartez neurtu da. Eusko Jaurlaritzak

1993an garai hartako mendetasun-egoeren eraginaren bilakaera aztertzeke egindako ikerlanean erabilitako eskala berbera aukeratu dugu (Ikus 4.2.1 Epigrafea. Adinekoak Euskadin 1993-2010). Mendetasun- edo desgaitasun-maila honako erantzun-kategoria hauei jarraiki neurtzen da:


- Jarduera zehatza egin dezake.
- Egin dezake baina nolabaiteko zailtasunez.
- Egin dezake, baina laguntza behar du.
- Ezin du egin.

Horrela, biztanleria honako dimentsio hauetan sailkatu da:

- Laguntza behar du: jarduera egiteko laguntza behar badu edo ezin badu egin.
- Ez du laguntzarik behar: jarduera bere kabuz egin badezake, zailtasunez edo zailtasunik gabe.

Azterlan honen emaitzek erakusten dutenez, EAeko adineko biztanleriaren % 22,8k laguntza behar du eguneroko bizitzako jardueraren bat egiteko. % 17,2k nolabaiteko laguntza behar du oinarritzko jarduerak egiteko (oheratzeko eta jaikitzeke, bainatzeko eta dutxatzeko, konketan garbitzeko, oinetako azazkalak mozteko, arropa janzteko eta erantzeko, komuna erabiltzeko eta bakarrik jateko), eta % 17,9k jarduera instrumentaletarako laguntza behar du (erosketak egitera joateko, janaria prestatzeko, etxea garbitzeko, arropa garbitzeko eta esekitzeko, telefonoa erabiltzeko, botikak dosifikatzeko, eta dirua erabiltzeko). (Estatuko datuekin alderatzeko, ikus honako epigrafe hau: 4.2.2 Adinekoen egungo egoera EAEn eta estatuan).


35. GRAFIKOA. Eguneroko bizitzako jardueretarako laguntza behar izatea, 2010



EBJI: Eguneroko bizitzako jarduera instrumentalak
 EBOJ: Eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak
 EBJ: Eguneroko bizitzako jarduerak


Laguntza behar izatea eta adina lotuta daude, eta hori nabarmena da. Adinak gora egin ahala, oinarrizko jarduerak nahiz jarduera instrumentalak egiteko laguntza behar duen –edo egin ezin dituen– biztanleriaren ehunekoa ere areagotu egiten da. 80 urte edo gehiagoko pertsonen taldearen barruan, bi pertsonatik ia batek laguntza behar du EBJ bat edo gehiago egiteko.

36. GRAFIKOA. EBJk egiteko laguntza behar izatea, adinaren arabera, 2010



Dakigunez, mendetasun-egoeren eraginean genero-desberdintasunak daudela begi-bistakoa da. Adineko 10 pertsonatik 3k laguntza behar du EBJtarako, edo ezin du EBJ bat edo gehiago egin. Gizonen artean, ehuneko hori % 16,6ra jaisten da. Datu horiek kontuan hartuz, berriz ere adierazi behar dugu desberdintasun handiak daudela adineko biztanleriaren egitura demografikoaren osakeran; horrela, emakumeek gizonek baino askoz ere garrantzi handiagoa izan ohi dute adinak gora egin ahala.

37. GRAFIKOA. EBJk egiteko laguntza behar izatea, sexuaren arabera, 2010



Seme edo alabaren jabetzako etxebizitzetan belaunaldi anitzeko etxekoen unitateetan bizi diren 10 pertsonatik 6k laguntza behar dute EBJk egiteko. Mendetasun-egoeran dauden pertsonak mota horretako etxekoen unitateetan bildu ohi dira, hots, seme edo alabarekin bizi dira haren etxean. Bestalde, garrantzitsua da nabarmentzea pertsona bakarreko etxekoen unitateetan bizi diren pertsonen % 30,9 ere egoera horretan dagoela, hau da, laguntza behar duela. Bikotekidearekin bizi diren pertsonen dagokienez, berriz, % 16,1ek baino ez du laguntza behar, eta beren etxean belaunaldi anitzeko etxekoen unitateetan bizi direnei dagokienez, berriz, ehuneko hori % 20,0 da. Laguntza behar duten pertsonen elkarbizitza-ereduen azterketa xehatuak oinarri-koak dira horrelako pertsonentzako baliabide soziosanitarioen plangintzarako.

19. TAULA. EBJk egiteko laguntza behar izatea, 2010

	Laguntza behar du		
	EBOJ	EBJI	EBJk guztira
GUZTIRA 60 edo +	17,2	17,9	22,8
GUZTIRA 65 edo +	21,7	22,2	28,5
Adina			
60-69	5,4	6,3	8,6
70-79	16,3	16,5	22,2
80 edo +	44,3	45,1	54,1
Sexua			
Gizonak	12,0	13,8	16,6
Emakumeak	21,3	20,9	27,5
Etxekoen unitate mota			
Pertsona bakarrekoa	22,3	23,4	30,9
Bikotea	10,9	12,1	16,1
Bel. anitz. bere etxean	15,3	16,5	20,0
B. a. seme edo alabaren etxean	60,0	54,3	62,9
Beste bat	35,9	26,3	35,9
Habitata			
Landa-ingurunea	17,4	21,8	24,2
Tartekoa	24,6	18,2	28,8
Hiri-ingurunea	11,1	13,7	16,3
Osasun-egoera			
Oso ona+Ona	5,7	5,9	8,9
Hala-moduzkoa	22,2	22,2	29,2
Txarra+Oso txarra	50,4	56,1	65,0

Antzaenez, habitatak ere eragina du mendetasun-egoeretan. EBJk egiteko laguntza behar izateari dagokionez, landa-inguruneetan edota tarteko inguruneetan bizi diren pertsonen ehunekoa handiagoa da. Zalantzarik gabe, landa-inguruneetan geratzen diren adinekoen taldea hiri-inguruneetan kokatutakoena baino askoz ere zaharragoa da.

Laguntzarik gabe egin ezin dituzten jardueri dagokienez, pertsonen ehunekoa handienez –zehazki, pertsonen % 16,3k– beren kabuz egin ezin duten oinarritzko jarduera oinetako azazkalak moztea da. Eta horren ondoren, honako hauek: bainatzea edo dutxatzea (% 7,2), oheratzea eta jaikitzea, konketan garbitzea eta arropa janzteia eta erantztea (% 5 inguruko ehunekoekin), komuna erabiltzea (% 3,5), eta azkenik, jatea (% 2,5).

38. GRAFIKOA. EBOJk egiteko gaitasuna, 2010




	Oheratzea eta jaikitzea	Bainatzea eta dutxatzea	Konketan garbitzea	Oinetako azazkalak moztea	Arropa garbitzea eta esekitzea	Komuna erabiltzea	Jatea
■ Bai	91,4	88,0	92,5	72,5	91,4	94,0	95,7
■ Bai, zailtasunez	3,6	4,7	2,7	11,0	3,7	2,2	17,1
■ Bai, laguntzarekin	2,1	3,6	2,1	7,3	2,2	1,6	1,0
■ Ezin du	2,8	3,6	2,6	9,0	2,6	1,0	1,5

Jarduera instrumentalen barruan, biztanleriak ehunekoa handienez (zehazki, pertsonen % 14) laguntza behar duela edo egin ezin duela nabarmenena etxea garbitzea da. Eta horren ondoren, honako hauek: erosketak egitea (% 12,3), arropa garbitzea eta esekitzea (% 11,1), janaria prestatzea (% 8,7), eta % 5etik beherako ehunekoearekin, honako hauek: dirua erabiltzea, botikak dosifikatzea eta telefonoa erabiltzea.


Laburbilduz, egunero egiterakoan arazo handienak sortzen dituzten jarduerak oinetako azazkalak moztea, etxea garbitzea eta erosketak egitea joatea dira. Horietan guztietan, gizarte-zerbitzuek eginkizun erabakigarria izan dezakete premia horiei

erantzuteko lanean, horrelako pertsonei ohiko ingurunean bizitzen jarraitzea ahalbidetuz eta mendetasun-egoera larrienak prebenituz.

39. GRAFIKOA. **EBJik egiteko gaitasuna, 2010**




40. GRAFIKOA. **Zein EBJetarako behar duten laguntza edo zein ezin duten egin, 2010**



4.1.4.3. Laguntza jasotzea

Laguntza behar duten pertsonen guztizko kopuruaren % 83ren hitzetan, nolabait jasotzen du laguntza hori. Adierazitakoa gorabehera, EAEko adinekoen artean aipatutako jardueretarako laguntza behar dutenen % 17k ez du horrelako laguntzarik jasotzen.

41. GRAFIKOA. Laguntza jasotzea, 2010



Gai horretan ere, azterlan honen emaitzek agerian uzten dute familia-zaintzak protagonismo handia duela, adinekoek laguntza behar duten kasuetan. Argi eta garbi agertzen da «gizarte-babes ikusezineko armada» hori, batez ere seme-alaba zaintzaileek osatzen dutena eta emakume zaintzaileen kolektiboak (gehienak, etxe-langileen kategorian kokatutako etorkinak) gero eta indar handiagoz sendotzen duena. Laburbilduz, maiztasun handinez jasotako laguntza familia-laguntza izan ohi da. Horrelako laguntzak ematen dituztenen banaketa honako hau da: kasuen % 52k aitortu duenez, jasotzen duen laguntza bakarria ahaideren baten ematen dio, % 27ren hitzetan, hainbat agenteren konbinaziotik iristen zaio laguntza (familia, gizarte-zerbitzuak edota kontratatutako zerbitzu pribatuak), % 15,3k kontratatutako zerbitzu pribatuen laguntza baino ez du jasotzen (etxe-langileren batengandik), eta soilik % 5,5ek jasotzen du gizarte-zerbitzu publikoen laguntza.

Laguntza behar duten eta jasotzen duten pertsonen guztizko kopuruaren % 74,2k ahaideren batengandik jasotzen du laguntza hori, ahaideren batengandik soilik edota bestelako arretaren batekin konbinatuta. EBJk egiteko laguntza ematen duten ahaideren % 36,4 gizonak dira eta % 63,6 emakumeak. Pertsona horien batez besteko adina 59 urte dira. Dena den 70 urte edo gehiagoko adin-taldean biltzen da biztanleria-ehuneko handiena (% 29,2). % 56,2ren kasuan, seme edo alabaren batek ematen

du horrelako laguntza, eta % 25,7ren kasuan, berriz, bikotekideak edota ezkontideak. Lau pertsonatik hiruk egunero edo ia egunero jasotzen du familia-laguntza hori.

20. TAULA. Zaintzailearen profila, 2010

	Guztira	Zaintzaile nagusia	Bigarren-mailako zaintzailea
Adina			
40 baino gutxiago	7,4	6,9	7,8
40-49	21,3	18,0	22,1
50-59	23,2	25,5	36,3
60-69	15,9	12,4	18,8
70 edo gehiago	29,2	35,1	10,5
Ed/Ee	2,9	2,1	5,0
Batez besteko adina	59,0	60,0	56,0
Sexua			
Gizonak	36,4	39,7	54,2
Emakumeak	63,6	60,3	45,8
Ahaidetasuna			
Bikotekidea edo ezkontidea	25,7	33,0	2,2
Semea edo alaba	56,2	50,1	64,2
Anaia edo arreba	7,9	7,1	12,9
Beste batzuk	10,3	9,8	20,7
Laguntzaren maiztasuna			
Egunero edo ia egunero	75,4	76,2	45,0
Astean behin edo bitan	15,8	16,2	41,2
Hilean behin edo bitan	7,1	5,2	10,8
Maiztasun txikiagoz	1,7	2,3	3,0

Inkestak zaintzaile nagusien eta bigarren mailako zaintzaileen arteko desberdintasunei buruzko xehetasunak ematen ditu. Horrela, emakumeek zaintzaile nagusien artean bigarren mailakoen artean baino garrantzi handiagoa dutela ikus dezakegu, edo beste modu batean esanda, intentsitate handienez zaintzen duen pertsona emakumea izan ohi da, baina zaintza-lan horretan laguntzen duen beste norbait dagoenean, gizonak emakumeen oso antzeko protagonismoa izaten hasten dira; bigarren mailako zaintzaileak gizonak nahiz emakumeak izan ohi dira. Bigarren mailako zaintzaileen barruan, biztanleria-ehuneko handiena biltzen duen adin-tartea 50-59 urtekoena da (% 36,3). Zaintzaile nagusiei dagokienez, bestalde, biztanleria-ehuneko handiena 70 urte edo gehiagokoen adin-tartea da (% 35,1). Adierazle horrek, honenbestez, ondo erakusten du zaintzak behar dituzten pertsonen eta horien zaintzaileen profilei da-

gokienez azken urteotan gertatutako aldaketa. Profil baten eta bestearen adinen oso lekualdaketa garrantzitsua ikus dezakegu; horrela, duela oso gutxi arte laguntza jasotzea espero zutenak laguntza-lanak egiten ari dira oraindik. Zaintzaileak zaharragoak dira eta lan gogorrenak emakumeentzat izaten jarraitzen dute, eta gerontologia-politiken planifikatzaileek bi alderdi horiek kontuan hartu behar dituzte.

Zaintzaile nagusien nahiz bigarren mailako zaintzaileen kasuan, semeek edota alabek hartzen dute zaintza-lana beren gain, baina zaintzaile nagusien barruan ezkontidearen edo bikotekidearen lana ere oso garrantzitsua da; bigarren mailako zaintzaileen artean, aitzitik, figura hori desagertu egin ohi da ia erabat. Zaintzaile nagusiek eman ohi duten laguntza ia egunerokoa da, eta bigarren mailakoek emandakoa, berriz, honela banatuta dago: batetik, % 45,0k egunero edo ia egunero laguntzen du, eta % 41,2k, ostera, astean behin edo bitan.

21. TAULA. EBJetarako laguntza behar duten baina jasotzen ez duten pertsonak, 2010

	Ez du laguntzarik jasotzen
GUZTIRA	17,0
Sexua	
Gizona	19,3
Emakumea	16,0
Adina	
60-69	33,3
70-79	19,2
80 edo gehiago	9,9
Etxekoen unitate mota	
Pertsona bakarrekoa	16,7
Bikotea	24,3
Bel. anitz. bere etxean	15,3
B. a. seme edo alabaren etxean	9,1
Habitata	
Hiriburua	27,7
< 5.000	8,5
5.000-20.000	19,1
20.000-50.000	14,9

Zaintzaile nagusien barruan, horrenbestez, adineko emakumeak nabarmentzen dira, zaindutako pertsonaren alabak edo bikotekideak izanik egunero horrelako la-


nak egiten dituztenak, hain zuzen ere (estatuko datuekiko alderaketa ikusteko, ikus honako epigrafe hau: 4.2.2. Adinekoen egungo egoera EAEn eta estatuan).

Pertsonak laguntza hainbat agenterengandik jasotzen duenean, % 98,9ren kasuan laguntza hori ahaideren batek ematen dio, % 66,5en kasuan, berriz, kontratatutako zerbitzu pribatuek, eta % 49,8n, azkenik, gizarte-zerbitzu publikoek. Intentsitate eta maiztasun handienez jasotako laguntza familia-laguntza da (% 58,5), ondoren, kontratatutako zerbitzu pribatuak (% 26,8), eta azkenik, gizarte-zerbitzuak (% 14,6).

Mendetasun-egoeran dagoen pertsona zaintzeko aukerarik hoberenari buruz galdetzean, pertsona horri ohiko etxebizitzan geratzea ahalbidetzen dioten aukeretakoa hautatu du % 59,8k. Horien artean, gehien nahi dutena zera da, zaintza profesionalak jasotzea, beharrezko familia-laguntzarekin batera, bere etxean (% 28,5). Etxetik ateratzea aukeratzin dutenen kasuan, aukerarik gustukoena seme edo alabaren batekin bizitzea da (% 22,1). Egoitza batera bizitzera joatea 60-69 urteko pertsonen % 19,2ren aukerarik gustukoena da, baina laurogei urtetik gorako taldean ehuneko hori % 7,8ra jaisten da, eta seme edo alabaren batekin bizitzea nahiago duten adinekoen ehunekoak, ostera, gora egiten du. Horrela, zaintzaren gaineko itxaropenei dagokienez, belaunaldien artean desberdintasunak daudela ikus daiteke, baina horretaz gain, beste hainbat azterlanetan islatu den bezala, etxe-ingurunea galtzeko arriskua hurbiltzen zaien heinean, adinekoek ingurune horretan egotea nahiago izateko joera dutela ere bai.

Aldagarri hori EBJetarako laguntza-premiarekin lotzen denean, adierazitakoa nahiago dutela islatuta geratzen da. Laguntzarik behar ez duten pertsonen ehunekoak behar dutenen ehunekoak baino bi aldiz handiagoa da, laguntza behar izanez gero nahiago luketen bizitoki gisa egoitza hautatzeari dagokionez.

42. GRAFIKOA. Laguntza beharko balu, non nahiago lukeen bizi, 2010



Seme edo alabaren etxean belaunaldi anitzeko etxekoen unitateetan bizi diren pertsonen % 50ek haien ondorengoen etxera joatea nahiago ohi du, baina hala eta guztiz ere, nabarmendu beharrekoa da % 27,8k bere etxean profesionalen eta ahai-deen zaintza nahiago dutela. Beste modu batean esanda, beren seme-alaben etxean bizi diren pertsona ugari nahiago zuten beren etxean geratu.


22. TAULA. Laguntza beharko balu, non nahiago lukeen bizi, 2010

	Bere etxean geratzea			Etxez aldatzea		EE
	Zaintza profesionala +familiaren laguntza	Familiaren zaintza	Profesionalen zaintza (publikoa edo pribatua)	Seme edo alabaren baten etxera	Egoitza	
GUZTIRA 60 edo +	28,5	18,2	13,1	22,1	14,6	3,6
GUZTIRA 65 edo +	28,7	19,0	13,3	23,0	11,8	4,2
Adina						
60-69	29,6	16,1	14,0	19,2	19,2	1,9
70-79	29,1	19,9	12,4	22,8	12,9	2,9
80 edo +	24,9	19,6	12,2	26,9	7,8	8,6
Sexua						
Gizonak	25,4	20,5	13,6	20,8	15,9	3,8
Emakumeak	30,7	16,4	12,7	23,0	13,6	3,5
Etxekoen unitate mota						
Pertsona bakarrekoa	27,7	18,1	19,9	14,8	15,1	4,4
Bikotea	29,2	21,0	13,7	17,3	16,6	2,3
Bel. anitz. bere etxean	28,3	16,5	9,2	28,8	13,2	4,0
B. a. seme edo alabaren etxean	27,8	5,6	5,6	50,0	11,1	
Beste bat	30,8	17,9	7,7	25,6	15,4	2,6
Habitata						
Landa-ingurunea	26,4	23,5	15,3	19,5	10,1	5,2
Tartekoa	20,7	22,9	11,7	23,5	17,0	4,2
Hiri-ingurunea	37,4	9,0	12,1	23,2	16,8	1,7
Osasun-egoera						
Oso ona+Ona	31,2	16,9	13,3	21,8	16,5	0,3
Hala-moduzkoa	27,4	20,9	12,7	24,3	12,1	2,6
Txarra+Oso txarra	24,4	21,1	16,3	21,1	13,8	3,3
EBJetarako laguntza behar du						
Laguntza behar du	29,3	13,0	11,6	25,7	8,0	12,3
Ez du behar	28,2	19,7	13,6	20,9	16,4	1,1

4.1.4.4. Gizarte-baliabideak

Herri Administrazioek emandako gizarte-zerbitzu edo -laguntzak erabiltzeari dagokionez, sailkapena honako hau da: biztanleria-ehuneko handienarekin (% 5,9), zaintzaileentzako prestazio ekonomikoak, horren ondoren, Etxez Etxeko Laguntzako Zerbitzua (% 5,4k modalitate hori erabiltzen dutela aitortu du); jarraian, oporren programaren erabilera, ondoren, telelaguntza-programa jasotzen duen % 4,2, eta azkenik, eguneko zentroak % 3,2k erabiltzen ditu horrelakoak. Egoitza-zerbitzuen erabilerari buruz ez zaie galdetu elkarrizketatuei (aldi baterako egonaldien kasuan izan ezik), azterlan hau beren etxebizitzetan bizi diren adinekoetara mugatuta baitago.

43. GRAFIKOA. Gizarte-baliabideen erabilera azken urtean, 2010



Lehen bost baliabideak (laguntza ekonomikoak, Etxez Etxeko Laguntzako Zerbitzua, oporrak, telelaguntza eta eguneko zentroak) erabiltzen dituzten pertsonen taldea xehetasun handiagoz aztertu ondoren, begien bistakoa da adina, osasun-egoera eta laguntza-premia lotuta daudela gizarte-baliabide desberdinen erabilerarekin. Urte gehien izanik osasun-egoera txarrean eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak erabiltzen dituzte horrelako baliabideak batez ere, bereziki mendetasuna prebenitzearrekin eta autonomia mantentzearekin lotutako baliabideak. Programa publikoen bitartez oporretara joatea adineko pertsona gazteenek (betiere osasun-egoera onean badaude) neurri handiagoan erabilitako programa dugu.

Espero bezala, pertsona bakarreko etxeko unitateetan telelaguntzaren, EELZen eta eguneko zentroen erabilera da nabarmentzekoa, eta belaunaldi anitzeko etxeko unitateetan (etxea seme edo alabarena izaki), berriz, zaintzaileentzako laguntza ekonomikoetako programaren erabilera.

23. TAULA. **Gizarte-baliabideen erabilera azken urtean, 2010**

	EELZ	Laguntza ekonomikoak	Oporrak	Telegaguntza	Eguneko Zentroak
GUZTIRA 60 edo +	5,4	5,9	5,4	4,2	3,2
GUZTIRA 65 edo +	6,9	6,6	5,6	5,4	4,3
Adina					
60-69	1,9	4,4	6,9	1,0	1,3
70-79	5,9	5,2	5,4	5,0	4,1
80 edo +	12,3	10,2	2,1	10,2	5,7
Sexua					
Gizonak	5,0	5,0	6,1	2,9	3,8
Emakumeak	5,7	6,6	4,8	5,3	2,8
Etxekoen unitate mota					
Pertsona bakarrekoa	9,3	4,1	5,2	10,0	5,9
Bikotea	6,4	6,8	6,6	2,5	3,6
Be. anitz. bere etxean	2,4	5,2	4,7	2,4	1,4
B. a. seme edo alabaren etxean	0,0	8,6	0,0	5,6	0,0
Beste bat	7,7	10,3	5,1	2,6	0,0
Habitata					
Landa-ingurunea	6,8	7,5	7,7	3,5	5,2
Tartekoa	4,2	5,6	4,2	5,3	2,2
Hiri-ingurunea	5,2	4,5	4,0	4,0	2,1
Osasun-egoera					
Oso ona+Ona	3,5	3,2	6,3	2,9	2,4
Hala-moduzkoa	5,4	8,3	5,2	3,9	3,9
Txarra+Oso txarra	15,4	10,6	1,6	11,4	5,6
EBJetarako laguntza behar du					
Laguntza behar du	13,8	12,0	3,6	12,0	6,9
Ez du behar	2,9	4,1	5,9	1,9	2,0

Mendetasun-egoeran dauden pertsonen arreta emateko lehentasunekoak beharko luketen neurriak zeintzuk diren galdetzean, % 51,7k EELZren alde dagoela adierazi du, % 20,8k, berriz, prestazio ekonomikoaren alde, % 17,2k, ostera, egoitza-zerbitzuen alde, eta % 6k, azkenik, bitarteko baliabideen alde, esaterako, eguneko zentroak. Adinak gora egin ahala, nahiago dituzten baliabideak aldatu egiten dira; gehienak EELZren alde badaude ere, egoitza-zerbitzuen eta bitarteko baliabideen alde dauden ehuneko txikiagotu egiten da eta prestazio ekonomikoaren alde dauden ehuneko, aldiz, handiagotu; gaur egun, Mendetasun Egoeran dauden Autonomia Pertsonala eta Arreta Sustatzeko Legean jasotakoak identifikatu ohi dira horrelako prestazio ekonomiko gisa.

Egoitza Zerbitzuei dagokienez, bestalde, hiri-habitatetan bakarrik bizi diren, osasun-egoera onean dauden eta EBJetarako laguntzarik behar ez duten pertsonak egon ohi dira horiekin ados hein handiagoan.

24. TAULA. Mendetasun-egoeran dauden pertsonen arreta emateko lehenetsun neurriak, 2010

	EELZ	Egoitza zerbitzuak	Bitarteko baliabideak	Prestazio ekonomikoak	ED/EE
GUZTIRA 60 edo +	51,7	17,2	6,0	20,8	4,3
GUZTIRA 65 edo +	52,8	16,5	5,5	20,8	4,4
Adina					
60-69	50,6	19,4	8,1	19,4	2,5
70-79	52,3	17,2	5,0	21,7	3,8
80 edo gehiago	52,9	12,7	3,3	22,1	9,0
Sexua					
Gizonak	52,9	17,7	7,4	16,8	5,2
Emakumeak	50,7	17,0	4,8	23,9	3,7
Etxeko unitate mota					
Pertsona bakarrekoa	44,4	21,5	6,3	22,2	5,6
Bikotea	56,6	15,5	4,5	21,4	2,0
Be. anitz. bere etxean	52,0	16,7	7,5	18,6	5,2
B. a. seme edo alabaren etxean	44,4	11,1	2,8	30,6	11,1
Beste bat	43,6	23,1	7,7	20,5	5,1
Habitata					
Landa-ingurunea	62,7	12,0	5,6	14,8	4,9
Tartekoa	50,3	19,8	3,6	21,2	5,0
Hiri-ingurunea	41,6	20,6	8,5	26,2	3,1
Osasun-egoera					
Oso ona+Ona	49,8	17,5	8,0	23,1	1,5
Hala-moduzkoa	58,4	16,8	3,6	18,6	2,6
Txarra+Oso txarra	53,3	18,0	4,1	21,3	3,3
EBJetarako laguntza behar du					
Laguntza behar du	51,8	11,2	3,6	19,9	13,4
Ez du behar	51,5	19,1	6,8	21,0	1,6


Garrantzitsua da honako hau nabarmentzea: Mendetasun Egoeran dauden Autonomia Pertsonala eta Arreta Sustatzeko Legea komunikabideetan eta herri-administrazioen kanpainetan hedapen zabala izaten ari bada ere, pertsonen ehuneko handi batek oraindik ez du haren berri. EAEn 60 urtetik gorako pertsonen erdiak bai-

no apur bat gehiagok baino ez dute ezagutzen aipatutako Legea. Legegintza-ekimen horren berri izan ez duten pertsonak emakumeak dira nagusiki, laurogei urte edo gehiagokoak, landa-habitatetan seme edo alabaren baten etxean bizi direnak, osasun-egoera txarrean daudenak, EBJetarako laguntza behar dutenak eta hileko 600 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituztenak. Alabaina, pertsona horiengan ia zuzeneko eragina du Lege horrek.

25. TAULA. Mendetasun Legearen berri izan duten pertsonak, 2010

	Bai	Ez
GUZTIRA 60 edo +	55,9	42,0
GUZTIRA 65 edo +	51,8	44,1
Adina		
60-69	65,8	31,3
70-79	49,1	47,5
80 edo +	40,6	51,2
Sexua		
Gizonak	59,0	36,1
Emakumeak	51,2	45,2
Etxekoen unitate mota		
Pertsona bakarrekoa	47,2	47,2
Bikotea	56,5	41,2
Bel. anitz. bere etxean	59,3	35,8
B. a. seme edo alabaren etxean	36,1	52,8
Beste bat	48,7	48,7
Habitata		
Landa-ingurunea	46,6	48,5
Tartekoa	60,6	35,2
Hiri-ingurunea	57,5	39,2
Osasun-egoera		
Ona+Oso ona	60,7	37,8
Regular	53,1	44,6
Txarra+Oso txarra	38,7	56,5
EBJetarako laguntza behar du		
Laguntza behar du	40,5	47,1
Ez du behar	58,7	39,5
Hileko diru-sarrerak		
600 eurotik behera	48,6	48,0
601-900	51,8	43,5
901-1.800	62,0	36,1
1.800 euro baino gehiago	72,3	13,8

44. GRAFIKOA. Mendetasun-egoeran dauden pertsonen arreta emateko lehentasunezko neurriak, 2010



4.1.5. EGUNEROKO BIZITZA

Adinekoen bizi-baldintzak aztertzeko egindako inkesta gehienetan bezala, egunegintza jardueren segidaren bitartez sistematizatzen da eguneroko bizitza. Jarduera guztiak bi talde handitan banatu dira azterlan honetan: lehen taldean, etxea mantentzeko eta besteak zaintzeko eta horiei laguntzeko egindako lanak ditugu (etxeko lanak eta familia-lanak), eta bigarrenean, berriz, astialdian egindako jarduerak.


4.1.5.1. Etxeko eta familiako lana

Etxeko eta familiako lan gisa egiten diren jarduerak eta lanak dira benetan esanguratsuenak zahartzaroaren eremuan. Bizitzako etapa horretan, familia egunerokotasunaren ardatz nagusia da, enplegua soziabilitatearen, autoestimatuaren, nortasunaren eta denbora-egituraketaren iturri gisa ordeztuz. Erretiroa hartzeko adinean sartzearekin batera, lan-merkatutik bereizten dira, eta horren ordez familiari eskaintzen zaion denbora handitu egiten da.

4.1.5.1.1. Etxeko lanen banaketa


Honako jarduera hauek bildu dira inkestan etxeko lan gisa: arropa garbitzea, konponketa txikiak egitea etxean, erosketak egitea, garbiketa egitea, kudeaketak egitea, janaria prestatzea eta etxeko unitate barruan gaixorik dauden kideak zaintzea. Emaizten arabera, jarduera horiek guztiak elkarrizketatuak edo horren ezkontideak egiten dituzte batez ere, hau da, etxeko unitateko adinekoek, betiere genero-profil nabarmenaren pean. Adinekoarekin bizi diren ahaideen laguntza honako lan hauetan nabarmentzen da: konponketa txikiak eta kudeaketak egitea (% 11,5 eta % 11,2, hurrenez hurren), batez ere elkarrizketatua emakumea den etxeko unitateetan. Etxeko enpleguaren erabilera areagotu egiten da etxea garbitzeko lanetan (% 8,6).

45. GRAFIKOA. **Etxeko lanen banaketa, 2010**



Etxeko lanak banatzerakoan sortzen diren genero-desberdintasunak nabarmenak dira. Honako hauek dira batez ere emakumeek egiten dituzten jarduerak: arropa garbitzea, erosketak egitea, garbiketa-lanak egitea, janaria prestatzea eta gaixorik dauden etxeko unitateko kideak zaintzea. Lan horiek tradizionalki esleitu zaizkienak dira. Honako jarduera hauetan gizonen ehunekoa emakumeena baino handiagoa da: konponketa txikiak egitea eta kudeaketak egitea. Tradizionalki emakumeen lana izan den eta gizonen ehunekoa handia den lana erosketak egitea da (% 48,1). Hori da zahartzaroan gizoni esleitzen zaizkien jardueretako bat. Etxeko unitate barruan eta familia barruan etxeko eremutik eta eremu pribatutik kanpoen dagoen lana da.

Bakarrrik bizi direnak beraiek arduratzen dira beren etxeko lanak egiteaz, nahiz eta jarduera batzuetan beste pertsona batzuen laguntza nabarmentzen den. Laguntza ematen dutenak honako hauek izaten dira: seme-alabak, bizilagunak, lagunak, beste ahaide batzuk, eta kasu gutxiagotan etxeko langileak. Honako jarduera hauetan behar izaten dute beste batzuen laguntza hein handienera: konponketa txikiak egitea eta kudeaketak egitea; kasu horietan gehienetan ahaideen, bizilagunen edo lagunaren laguntza eskatzen dute. Etxeko langilearen laguntza etxeko garbiketa egiteko nabarmentzen da (kasuen % 18,1).

46. GRAFIKOA. **Etxeko lanen banaketa sexuaren arabera, 2010**


Gazteenen eta 80 urtetik gorakoen artean dauden aldeak nabarmenak dira. Adineko gazteenek joera handiagoa dute jarduera horiek beraiek egiteko, baina adinaren aurrera egin ahala beste batzuen laguntza behar da eguneroko lan horiek egiteko. 60-69 urtekoen % 66,0k bere etxeko garbiketa egiten du, baina kopuru hori % 39,9ra jaisten da laurogei urte edo gehiagokoetan. Ahaide nagusiei laguntzen dietenak ahaideak, bizilagunak edo lagunak izaten dira, eta etxeko langilearen figura ehuneko txikiagoan azaltzen da (garbiketa egiteko izan ezik). Argi dago osasun txarragoa izateak eragozten duela jarduera horiek norberak egin ahal izatea.

 26. TAULA. **Etxeko lanen banaketa, 2010**

	Elkarrizketatua	Bikotekidea	Informala	Profesionala	Beste perts. bat
ARROPA GARBITZEA					
GUZTIRA 60 edo +	58,4	28,1	7,6	5,1	0,7
GUZTIRA 65 edo +	57,4	26,7	9,3	5,9	0,8
60-69	60,7	34,4	2,5	2,1	0,2
70-79	60,0	28,3	6,6	4,5	0,7
80 edo +	50,6	14,4	20,6	12,8	1,6
Gizonak	25,6	59,9	7,3	5,9	1,1
Emakumeak	83,5	3,7	7,9	4,7	0,3
Pertsona bakarrekoa	84,4	0,4	3,3	10,8	1,1
Bikotea	50,7	46,8	0,5	1,1	0,7
Bel. anitz. bere etxean	54,1	29,4	10,8	5,2	0,5
B. a. seme edo alabaren etxean	22,2	8,3	63,9	2,8	2,8
Beste bat	42,1	13,2	31,6	13,2	0,0

.../...

EAEko 60 URTETIK GORAKOEN BIZI-BALDINTZEI BURUZKO AZTERLANA

.../...

	Elkarrizke- tatua	Bikotekidea	Informala	Profesionala	Beste perts. bat
KONPONKETA TXIKIAK EGITEA ETXEAN					
GUZTIRA 60 edo +	47,0	19,3	17,0	4,2	12,3
GUZTIRA 65 edo +	44,4	16,2	22,1	4,7	12,4
60-69	57,0	24,0	5,0	2,7	11,1
70-79	47,6	17,8	19,0	3,8	11,7
80 edo +	24,3	11,9	39,1	8,2	16,0
Gizonak	71,5	9,2	8,6	3,1	7,3
Emakumeak	28,1	27,1	23,4	5,3	16,1
Pertsona bakarrekoa	55,6	0,0	19,3	7,4	17,8
Bikotea	48,3	31,9	7,7	1,6	10,3
Bel. anitz. bere etxean	44,1	20,8	18,6	4,7	11,6
B. a. seme edo alabaren etxean	19,4	0,0	75,0	0,0	5,6
Beste bat	28,2	12,8	33,3	12,8	12,8
EROSKETAK EGITEA					
GUZTIRA 60 edo +	63,1	21,2	11,4	3,6	0,5
GUZTIRA 65 edo +	59,4	22,1	13,7	4,0	0,7
60-69	71,4	22,3	4,0	1,9	0,2
70-79	61,6	24,4	10,6	2,7	0,2
80 edo +	47,5	13,5	28,7	8,6	1,6
Gizonak	48,1	39,7	7,8	4,0	0,2
Emakumeak	74,6	7,0	14,2	3,2	0,7
Pertsona bakarrekoa	79,6	0,4	10,0	8,1	1,9
Bikotea	60,0	37,0	2,0	0,5	0,0
Bel. anitz. bere etxean	61,6	20,3	14,4	3,3	0,2
B. a. seme edo alabaren etxean	20,0	0,0	77,1	2,9	0,0
Beste bat	39,5	13,2	36,8	10,5	0,0
GARBITASUNA EGITEA					
GUZTIRA 60 edo +	57,0	24,3	8,8	8,6	1,1
GUZTIRA 65 edo +	52,9	24,4	10,7	10,5	1,3
60-69	66,0	27,8	2,7	3,1	0,2
70-79	55,6	26,1	9,2	7,9	0,7
80 edo +	39,9	13,6	21,0	21,8	3,7
Gizonak	31,7	50,8	8,0	8,0	1,3
Emakumeak	76,3	4,2	9,4	8,9	0,9
Pertsona bakarrekoa	74,4	0,4	4,8	18,1	1,5
Bikotea	50,5	43,9	1,6	3,4	0,5
Bel. anitz. bere etxean	57,4	22,6	11,3	7,8	0,9
B. a. bere seme edo alabaren etxean	17,1	2,9	65,7	8,6	5,7
Beste bat	39,5	10,5	36,8	13,2	0,0


EMAITZEN AZTERKETA

	Elkarriket- tatua	Bikotekidea	Informala	Profesionala	Beste perts. bat
KUDEAKETAK EGITEA					
GUZTIRA 60 edo +	64,7	16,3	16,8	1,5	0,2
GUZTIRA 65 edo +	58,4	17,8	21,0	2,0	0,2
60-69	79,3	15,0	5,2	0,2	0,0
70-79	60,7	20,8	16,5	1,4	0,2
80 edo +	40,6	11,1	42,2	4,9	0,4
Gizonak	72,7	16,8	9,0	1,0	0,2
Emakumeak	58,7	16,0	22,7	1,9	0,1
Pertsona bakarrekoa	73,0	0,7	21,1	4,1	0,4
Bikotea	64,5	29,8	4,8	0,2	0,0
Bel. anitz. bere etxean	64,2	14,8	19,8	0,9	0,2
B. a. seme edo alabaren etxean	16,7	0,0	83,3	0,0	0,0
Beste bat	51,3	5,1	33,3	7,7	0,0
JANARIA PRESTATZEA					
GUZTIRA 60 edo +	62,4	26,1	6,8	3,9	0,5
GUZTIRA 65 edo +	60,5	26,1	8,4	4,3	0,6
60-69	66,0	29,4	2,1	2,1	0,2
70-79	62,3	28,9	5,6	2,7	0,2
80 edo +	54,3	14,3	19,6	9,4	2,0
Gizonak	32,1	55,3	7,5	4,4	0,6
Emakumeak	85,6	3,8	6,3	3,5	0,4
Pertsona bakarrekoa	86,3	0,4	3,0	9,3	0,7
Bikotea	53,1	45,3	0,5	0,7	0,2
Bel. anitz. bere etxean	60,8	25,5	9,7	3,3	0,5
B. a. seme edo alabaren etxean	35,1	8,1	51,4	2,7	2,7
Beste bat	40,0	12,5	37,5	10,0	0,0
ETXEKOEN UNITATE BARRUAN GAIXORIK DAUDEN BESTE KIDE BATZUK ZAINZEA					
GUZTIRA 60 edo +	48,2	19,3	9,8	1,3	0,9
GUZTIRA 65 edo +	42,8	20,4	12,2	1,8	1,2
60-69	56,4	19,1	3,7	0,5	0,2
70-79	47,1	23,1	7,2	0,9	0,9
80 edo +	30,5	12,4	29,4	4,0	2,3
Gizonak	32,3	35,2	7,1	0,2	0,9
Emakumeak	62,5	5,2	12,0	2,2	0,8
Bikotea	49,9	22,3	1,6	0,9	0,5
Bel. anitz. bere etxean	49,8	18,9	11,6	1,2	1,2
B. a. seme edo alabaren etxean	25,0	2,8	61,1		2,8
Beste bat	35,9	5,1	33,3	7,7	0,0

4.1.5.1.2. Bilobak eta bestelako ahaideak zaintzea

Elkarrekikotasun-printzipioak, familia-eremuan zaintzak besterenganatuz, oso garrantzi handia du gure kulturaren. Garrantzitsua da nabarmentzea adinekoek beste etxekoan unitateei edo familiako kideei ematen dieten laguntza, zerbitzu publikoek betetzen ez dituzten premiak arintzeko balio baitute. Familia da oraindik ere adinekoentzako erreferentzia-unitatea, bai zaintzak jasotzeko garaian, bai haien elkartasunaren xede izaterakoan ere (Abellán, Puga eta Sancho, 2006). Adinekoen artean, gehien egiten duten familia-elkartasunaren praktika bilobak zaintzea da. Adineko kopuru handi batek egiten dituzte laguntzeko lan horiek. Bilobak dituzten Euskadiko adinekoen artean (% 72), % 45,6k adierazi du biloben eguneroko zaintzan laguntzen dietela seme-alabei (% 56,7 da 60-69 urtekoen kasuan). Laguntzeko ekintza hori familia- eta lan-bizitza uztartzeko premiei erantzuteko familiak erabili duen gaitasunetako bat da. Aitona-amonak asko erabiltzen den baliabidea da laneko ordutegiak nahiz lanaren eskakizunak eta familia mantentzea bateragarri egin ahal izateko.

47. GRAFIKOA. Bilobak zaintzea, 2010



Aitona-amona zaintzaile guztien artetik % 52,8 emakumeak dira eta % 47,2 gizonak, 10etik 9 60-79 urtekoak dira, eta ia erdia (% 48,4) bikotekidearekin bizi diren adinekoak dira. Bilobak zaintzea, neurri handi batean, bikotekidearekin batera egiteko lana da, aitona eta amona, biak, tartean sartzen dituenak. Ondoren, etxea adinekoaren jabetzakoa izaki belaunaldi anitzeko etxekoan unitateak daude, zaintza adineko horien % 32,6ren esku dago. Egoera berean dauden pertsona bakarreko etxekoan unitateak % 15,0 dira (Ehuneko bertikalak).

Ehuneko horizontalek adierazten digute bilobak dituzten laurogei urte edo gehiagoko % 18,2k biloba horiek zaintzeko jardueretan parte hartzen duela, oso kontuan hartu beharreko kopurua. Era berean, ez dugu ahaztu behar EBJk egiteko laguntza behar dutenen % 25,1ek ere egiten dituela laguntzeko lan horiek.


27. TAULA. Bilobak zaintzea, 2010

	Ehuneko bertikalak	Ehuneko horizontalak
GUZTIRA 60 edo +	100,0	45,5
GUZTIRA 65 edo +	-	43,6
Adina		
60-69	47,6	57,0
70-79	43,9	48,7
80 edo +	8,5	18,2
Sexua		
Gizonak	47,3	51,4
Emakumeak	52,7	41,3
Etxekeen unitate mota		
Pertsona bakarrekoa	15,0	33,3
Bikotea	48,4	52,6
Bel. anitz. bere etxean	32,6	47,4
B. a. seme edo alabaren etxean	1,7	23,3
Beste bat	2,4	39,1
Habitata		
Landa-eremua	34,3	47,3
Tartekoa	28,2	39,2
Hiri-eremua	37,5	49,8
Osasun-egoera		
Oso ona+Ona	62,3	53,2
Hala-moduzkoa	30,9	43,6
Txarra+Oso txarra	6,7	26,3
EBJetarako laguntza behar du		
Laguntza behar du	12,9	25,1
Ez du behar	87,1	51,8

Laguntza hori, gainera, maiztasun handiz ematen da. Bilobak zaintzen dituztenen % 29,7k egunero zaintzen ditu, kopuru hori laguntza hori astean behin edo bitan eskaintzen duten pertsonen kopuruaren antzekoa da. Hau da, asteko laguntzaren zenbatekoa aitona-amonen % 59,2ra igotzen da. Gure herrialdeko adinekoek, urte gutxi dituzten haurren aitona-amonak direnean, laguntza-rol oso handia betetzen dute.

Baina bilobak zaintzeaz gain, adinekoek beste familia-laguntza mota batzuk ematen dituzte. Euskadiko adinekoen % 12,8k adierazi du ahaideren bati zaintzako zeregin batean edo gehiagotan laguntzen diola haren osasun-egoera dela medio zaintza behar badu (kopuru hori % 16,2ra igotzen da 60-69 urtekoen kasuan eta % 13,5era emakumeen kasuan). Hemen honako lan hauek biltzen dira: zaintza pertsonala, etxeko laguntza, izapideak eta kudeaketak egiten laguntzea, baita lagun-egitea ere.

48. GRAFIKOA. **Laguntza informala ematea beste ahaide batzuei, 2010**



Laguntza hori maizago ematen den etxekoek unitate mota adinekoa eta horren bikotekidea (baldu badu) eta beste belaunaldi batzuk (gurasoak, seme-alabak edo bilobak) elkarrekin bizi diren eta sostengatzaile nagusia adinekoa den etxekoek unitatea da (% 16,5). Ondoren, bikoteez osatutako etxekoek unitateak daude (% 14,4). Semearen edo alabaren etxean bizi diren pertsona bakarreko eta belanaldia anitzeko etxekoek unitateak arlo honetan duten partaidetza txikiagatik nabarmentzen dira.

49. GRAFIKOA. **Emandako laguntza mota, 2010**




28. TAULA. **Laguntza informala ematea beste ahaide batzuei, 2010**

	Ehuneko horizontalak
GUZTIRA 60 edo +	12,8
GUZTIRA 65 edo +	11,6
Adina	
60-69	16,2
70-79	10,8
80 edo +	9,4
Sexua	
Gizonak	11,9
Emakumeak	13,5
Etxekoen unitate mota	
Pertsona bakarrekoa	5,6
Bikotea	14,4
Bel. anitz. bere etxean	16,5
B. a. seme edo alabaren etxean	2,8
Beste bat	13,2
Habitata	
Landa-eremua	13,9
Tartekoa	11,7
Hiri-eremua	12,5
Osasun-egoera	
Oso ona+Ona	14,5
Hala-moduzkoa	9,6
Txarra+Oso txarra	14,5
EBJetarako laguntza behar du	
Laguntza behar du	9,5
Ez du behar	13,8

Biztanleen ehuneko handiago bat betetzen duen laguntza informaleko lana lagun-egitea izaten da (% 12,2), baina lan horien guztien kopurua antzekoa da, % 10 inguru beti. % 9,8k zaintza pertsonaleko lanak egiten ditu, eta lan horiek ahalegin handia eskatzen dute.


Lan mota horietan beste ahaide batzuei laguntzen dieten pertsonak oso maiz egiten dute, intentsitate handiz. Lautik hiruk egunero edo ia egunero eskaintzen diote denbora lan horri.

50. GRAFIKOA. **Laguntzen maiztasuna, 2010**




Zaintza mota hori ematen dioten pertsona bikotekidea izaten da kasuen % 37,7tan eta aita edo ama % 23,5en.

51. GRAFIKOA. **Zaindutako pertsonarekiko ahaidetasun-harremana, 2010**




Laguntza mota hori ematen dieten pertsona kopurua 1,05 da batez beste. Kasuen % 63,6tan, zaintzen dituzten pertsonak adinekoaren etxe berean bizi dira (% 89tan adineko zaintzaileak 80 urte edo gehiago baditu), eta % 36tan beste pertsonak jasotzen duen laguntza bakarra da. Laguntza hori ematen daraman urteen batez bestekoa 9,71 da (13,45 adineko zaintzailea laurogei urte edo gehiagokoa bada).

52. GRAFIKOA. **Laguntzaren intentsitatea/garrantzia, 2010**



53. GRAFIKOA. Zaintza dela medio atzemandako sentimenduak, 2010




	Ez dago eroso lagunak etxera gonbidatzen dituenean	Uste du hobeto zain zezakeela	Bere familiaren zaintza ...(r) uzteko aukera izan...	Uste du gehiago egin beharko lukeela bere...	Zaintza egoerak modu negatiboan eragiten ...	Bere osasuna ahuldu egin da	Bere gizarte-harremanak pairatu dute kaltea	Bere familiaren etorkizunak beldurtzen du	Urduri dago zaintzeaz gain beste lan batzuk...	Ez du beretzat behar adina denbora	
Inoiz ez	76,4	59,0	58,5	58,0	49,2	46,9	44,1	44,1	40,8	40,3	31,5
la inoiz ez	13,2	21,8	9,2	22,2	15,5	26,2	10,9	15,0	14,9	16,4	11,3
Batzuetan	4,7	9,9	17,7	9,5	16,6	14,7	18,8	25,2	17,7	20,5	30,3
Askotan	1,6	4,7	5,2	5,5	4,3	6,3	10,3	3,3	14,9	14,8	11,4
la beti	1,1	2,4	5,9	1,4	11,3	3,5	11,9	9,0	8,2	5,7	13,7
ED/E	2,9	2,2	3,6	3,3	3,3	2,4	4,1	3,4	3,4	2,4	1,8

Familia-zaintzaileetan sortzen den gaitzespena ebaluatzeko gehien erabiltzen den eskaletako bat Zarit-en eskala da. Erabilitako kargaren Eskalan gehien nabarmentzen den alderdi negatiboetako bat, pairatzen duen biztanleriaren ehunekoa handia delako, norberarentzat behar adina denbora ez izatearena da delako (hiruzaintzailetik bat). Familiako erantzukizunen aurrean (zaintza eta bestelakoak) urduritasuna nabaritzea eta familiak izango duen etorkizunarengatik beldurra ere maiz azaltzen diren sentimenduak dira. % 11,9k adierazi du ia beti nabaritzen duela osasuna ahuldu egin zaiola, eta % 11,3k ez duela bizitza pribaturik. Zaintzak eragiten dituen sentimenduen barruan, ezohikoenak honako hauek dira: jendea etxera gonbidatzerakoan eroso ez egotea eta laguntza eskaintzen dioten ahaidea hobeto zain zezakeela uste izatea.

4.1.5.1.3. Zaintzaren balantzea

Laguntza ematen duten adinekoen ehunekoaren eta laguntza jasotzen duten adinekoen ehunekoaren artean konparazio-azterketa bat egiten badugu, aterako den balantzeak honako hau erakutsiko digu: 60 urteko edo gehiagoko pertsonen % 45,3k laguntza mota informalen bat ematen du, bai osasun-egoera dela medio laguntza hori behar duten ahaideei (% 12,8), bai bilobak zaintzen (32,5%)³. Aitzitik, soilik % 23,7k jasotzen du laguntza (honako hau zenbatzen da: norbera zaintzeko laguntza, etxeko laguntza, izapideak eta kudeaketak egiteko laguntza eta lagun-egitea; ez da bereizten laguntza ahaide batek edo beste pertsona batek ematen duen). Beraz, adinekoen taldeari (inoren laguntza behar dutenak, gastuak eta familiaren ahalegina sortzen dutenak) buruz dauden estereotipo errepikariak ez bezala, zaintzak ematen dituzten adinekoen ehunekoa zaintzak jasotzen dituzten adinekoen ehunekoa baino handiagoa da.

54. GRAFIKOA. Zaintzaren balantzea, 2010




4.1.5.2. Astialdia

Honako hauek dira biztanleriaren nagusienak egiten dituen astialdiko jarduerak: praktika sedentarioak, azken urte honetan % 99k gauzatu ditu; praktika fisikoak edo kirol-arlokoak: % 88,9; eta praktika sozialak: % 71,5. Honako hauek biltzen dira jarduera sedentarioen taldean: telebista ikustea, irratia entzutea eta irakurtzea, baina komunikabideen kontsumoa ohiko praktika da biztanleen adina guztietan. Nabarmendu behar da Euskadiko adineko 10 pertsonatik ia 9k jarduera fisikoren bat edo kirolen bat egiten dutela, eta % 67,1ek egunero egiten duela. Jarduera sozialetan honako hauek biltzen dira: tabernara edo kafetegira joatea, adinekoen klubera edo zentrora joatea, bazkaltzera edo afaltzera irtetea, lagunekin biltzea, dantza egitera joatea eta abar. Adinekoen % 22,8k egunero egiten ditu jarduera horiek, eta % 25,6k astean behin edo bitan.

³ Hemen zenbatzen den ehunekoa beren bilobak zaintzen dituzten pertsonena da guztizko adinekoen gainean (% 32,5), beste azterketan adineko zaintzaileen ehunekoa aipatzen zen bilobak dituzten guztizko adinekoen gainean (% 45,5).

55. GRAFIKOA. Astialdia, 2010



Dezente hedatuta dauden beste jarduera batzuk honako hauek dira: erlijio-ekitaldietara joatea, adineko 10 pertsonatik ia 7k adierazi dute ekitaldi horietakoren batera bertaratu izan direla (% 29,8 astero joaten da); % 52,8k bidaiaren bat egiten du urtean; % 47,2k hobby motaren bat egiten du, hala nola eskulanak, brikolajea, kakorrazt-lanak, baratze edo lorategi bat zaintzea eta abar; eta hiru lagunetatik bat jarduera kulturaletara joaten da (zinemara, antzerkara, erakusketetara, hitzaldietara eta antzekoetara).

Honako jarduera hauetan daude biztanleriaren ehuneko txikienak: teknologia berrien erabileran (% 14,2), boluntariotzan edo asoziazionismoan (% 12,8) eta hezkuntza-arloko jarduerak egitea (% 8,5).

Genero-desberdintasun batzuk daude astialdiko jarduerak egiteari dagokionez. Sexuen artean alde handiena duen jarduera teknologia berrien erabilera da: gizonen % 20,5ek erabiltzen du ordenagailua edo Internet; emakumeen kasuan, aldiz % 9,2k erabiltzen du. Aldeak % 10 ingurukoak diren beste jarduera batzuk bidaiak eta jarduera sozialak dira, gizonen ehunekoa emakumeena baino handiagoa baita beti. Emakumeen ehuneko handiena duten jarduerak hobby gisa deitu direnak dira

(emakumeen ehunekoa gizonena baino % 6,6 handiagoa da horrelakoetan), baita boluntariotzako jardueretan parte hartzea ere (aldea % 2,5ekoa da horien kasuan).

29. TAULA. Astialdiko jarduerak egiten dituztenak, 2010

	Fisikoak edo kirol-erlotoak	Sedentarioak	Aisia-Hobbyak	Kulturalak	Gizarte-erlotoak	Turismoa, bidaiak	Erlijio-ekitaldiak	Boluntariotza/Asoziazionismoa	Teknologia berrien erabilera	Hezkuntza-erlotoak
GUZTIRA	88,9	99,0	47,2	33,7	71,5	52,8	68,0	12,8	14,2	8,5
Sexua										
Gizona	92,1	99,4	43,4	33,5	76,8	58,4	62,4	11,4	20,5	9,4
Emakumea	86,5	98,8	50	33,8	67,5	48,5	72,4	13,9	9,2	7,9
Adina										
60-69	95,2	99,6	52,8	44,4	81,2	68,7	63,8	13,6	24,8	14,2
70-79	89,6	99,3	46,3	28,1	70,9	49,1	75,1	14,4	7,9	5,9
80 edo gehiago	74,2	97,1	36,9	20,9	52,0	25,4	63,9	8,2	2,9	1,2
Etxearen unitate mota										
Pertsona bakarrekoa	86,3	99,3	43,3	40,0	74,3	44,7	68,3	18,4	9,4	8,8
Bikotea	92,2	99,4	48,7	34,5	72,5	57,3	73,3	13,5	16,5	7,0
Bel. Anitz. Bere etxean	90,1	99,5	49,1	31,0	72,1	56,4	64,4	9,4	16,1	10,8
B. a. seme edo alabaren etxean	64,8	93,2	34,7	20,0	45,9	21,9	65,0	9,3	8,2	4,7
Habitata										
Landa-eremua	90,1	99,3	52,8	28,1	75,2	46,9	73,1	11,2	10,6	7,9
Tartekoa	87,3	98,2	41,3	35,0	66,1	46,8	67,8	18,7	15,5	5,0
Hiri-eremua	89,1	99,4	46,5	38,1	72,6	63,7	63,0	9,5	16,4	12,2
Osasun-egoera										
Oso ona+Ona	95,2	99,7	53,0	42,2	81,0	67,1	68,8	13,3	17,9	11,4
Hala-moduzkoa	87,8	99,3	47,1	28,4	68,6	43,1	74,7	15,1	11,8	5,8
Oso txarra+Txarra	66,1	97,8	24,4	10,8	41,2	16,3	50,7	5,3	4,9	4,2
EBJetarako laguntza behar du										
Laguntza behar du	70,2	97,2	35,4	22,6	52,3	27,3	57,1	11,5	5,3	4,2
Ez du behar	94,4	99,6	50,7	36,9	77,2	60,3	71,2	13,2	16,7	9,8
Heziketa-maila										
Analfabetoa	69,6	86,5	22,7	8,7	42,5	20,6	47,2	12,5	4,1	7,8
Ikasketarik gabe/osatu gabeak	86,5	99,0	41,2	25,3	65,5	40,3	70,9	12,4	4,2	4,4
Lehen mailakoak	90,5	99,3	52,4	37,7	76,4	64,3	67,4	11,1	16,4	10,3
Bigarren mailakoak/Goi-mailakoak	96,8	100,0	57,4	58,3	83,7	72,5	60,9	20,7	47,6	19,2

Adina beste alderdi garrantzitsu bat da astialdiaren erabilerari dagokionez. Adineko gazteenak honako jarduera hauetan nabarmentzen dira: bidaiak (aldea % 43,3koa da % 60-69 urtekoen eta 80 urteko edo gehiagokoen artean), jarduera sozialak (% 29,1eko aldea), kulturalak (% 23,5eko aldea), teknologia berrien erabilera (% 21,9), jarduera fisikoak edo kirol-arlokoak (% 21eko aldea) eta hobbyak egitea, taldeen arteko aldea % 15,9 izanik. Erljio-ekitaldietara joateari dagokionez, 70-79 urtekoen partaidetza handiena izatea nabarmentzen da. Argi dago adinaren araberrako osasun-egoerak baduela eragina astialdiko jarduerak egiteari dagokionez.

Etxekoan unitate motaren arabera, aipagarriena da seme edo alabarekin haren etxean bizi direnek (bel. anitz. seme/alabaren etxean) astialdiko jardueretan duten partaidetzaren ehunekoak txikiak direla. Kontuan izan behar da, arestian esan dugunez, etxekoan unitate horiek osasun-egoera txarra duten eta eguneroko bizitzako jarduerak (EBJ) egiteko laguntza behar duten pertsonak osatzen dituztela.

Alderdi nabarmen bat eta hemen bilduta dauden astialdiko jarduera guztietan azaltzen dena honako hau da: mendetasun-egoeran dauden pertsonen partaidetza-indizea txikia izatea. Agerikoa da ohitura horren eta mendetasunaren artean harreman estua dagoela, nahiz eta batzuetan zaila izan jakitea zein den kausa eta zein ondorioa; izan ere, sedentarismoa desgaitasuna izateko arrisku-faktoretzat hartu, baina egia da, halaber, mendetasuna eragiten duen gaitasun kronikoa eguneroko ohi-turretan mugikortasun txikiagoa izateko eta sedentarismo handiagoa izateko arrazoi izan daitekeela (Abellán eta Esparza, 2006). Eskuarki, adinekoentzako programak bi segmentutan antolatzen dira, eta segmentu horiek autonomia funtzionalaren mailak oinarri hartuta mugatzen dira. Alde batetik, sustatzeko jardunak eta, bestetik, laguntzekoak. Partaidetza eta aisia ideiak sartzen dituzten ekimenak lehenengo jardunak osatzen dituzte, baina oso nekez azaltzen dira bigarrenetan, hau da, adineko ahulei bideratutako jardunetan. Egoera multzo horrek gauzatzeko dagoen lan bat jartzen du agerian: adineko ahulek lekua izango duten partaidetzako ikuspegia erantsiko duten eskemetan eta praktiketan aurrera egiteko premia. (Pérez Salanova, 2003). Beste urrats bat gehiago egin behar da adinekoei aisia eta astialdia eskaintzeari dagokionez, betiere mendekoen biztanleria-sektorea kontuan hartuta, subjektu gisa txertatuz eta haien partaidetza sustatuz. Mendetasun-egoeran dauden pertsonak modu aktiboan zahartzeko duten aukera irekita utziz.

Astialdiko praktiketako funtsezko beste aldagai bat heziketa-maila da. Prestakuntza-maila handiagoa dutenek ehuneko handiagoan parte hartzen dute astialdiko jarduera gehienetan, eta honako jarduera hauetan nabarmentzen dira: kultura-arlokoetan, gizarte-arlokoetan, bidaietan/turismoan eta teknologia berrien erabileran.

30. TAULA. **Bizi-kalitatea egiten duten jarduera motaren arabera, 2010**

	Bizi-kalitatearen batez bestekoa	
	Egiten du	Ez du egiten
Fisikoak edo kirol-arlokoak	36,1	30,8
Sedentarioak	35,6	33,8
Aisia-Hobbyak	36,5	34,9
Kulturalak	38,1	34,3
Sozialak	36,8	32,5
Turismoa Bidaiak	38,0	32,8
Erlijio-ekitaldiak	35,5	36
Boluntariotza	36,6	35,5
Teknologia berriak	39,0	35,1
Hezkuntza-arlokoak	39,7	35,2

Habitatari dagokionez, alde handiak hiri-inguruneetan bizi diren eta praktika kulturalak eta turismoa egiten dutenen, teknologia berriak erabiltzen dituztenen eta ikastaroetara joaten direnen adinekoen kopurua handiagoa izatean daude. Aitzitik, hobbyak dituzten, erlijio-ekitaldietara joaten diren eta boluntariotzako jardueretan parte hartzen duten landako habitateko adinekoen ehunekoa handiagoa da.

Bestalde, badirudi lotura argia dagoela pertsonak egiten duten jardueraren eta bizi-kalitatearen artean. Hortaz, esate baterako, kirolen bat edo ariketa fisikoren bat egiten dutenak batez besteko 36,1 dira eskala honetan, ohitura horiek ez dituztenen taldea baino 5,3 puntu gorago. Ariketa fisikoa egitea bizi-kalitatean gehien eragiten duten adierazleetako bat dela ikusten da. Era berean, ikusten da aldeak daudela bizi-kalitatearen mailan bidaiak egiten dituztenen, teknologia berriak erabiltzen dituztenen (jarduera hori oso lotuta dago hezkuntza-mailarekin eta diru-sarrereren mailarekin), hezkuntza-ikastaroetan edo hezkuntza-jardueretan eta gizarte-arloko jardueretan parte hartzen dutenen eta kultura-arloko jardueretara joaten direnen artean. Bizi-kalitate oso handia duten pertsonak (39 baino gehiago, batez beste) dira ikastaroetara joaten direnak eta teknologia berriak erabiltzen dituztenak. Bizi-kalitate handia duten pertsonak (37-39) kultura-arloko jarduerak egiten dituztenak eta maiztasunez bidaiatzen dutenak dira. Neurrizko bizi-kalitatea dutenak (35-37, batez beste) gainerako jarduerak egiten dituztenak dira. Gertakari aipagarri bat da badagoela jarduera bat non jarduera hori egiten dutenen bizi-kalitatea baxuagoa den, eta jarduera hori erlijio-ekitaldietara joatea da, nahiz eta aldea ez den oso esanguratsua (esan den bezala, jarduera horiek gauzatzen dituzten pertsonak adineko emakumeak dira).


Adineko 10 pertsonatik ia 7k adierazi dute gizarte-arloko jardueretan parte hartzen dutela nahi luketen adina aldiz. Ehuneko hori jaitsi egiten da adinean aurrera egin ahala. 60-69 taldean, 10etik ia 8 egoera horretan dago, 80 edo gehiagoko adin-tartean, aldiz, kopuru hori % 51,4ra jaisten da.

56. GRAFIKOA. Gizarte-arloko jardueretan nahiko lukeen adinako maiztasunez parte hartzen du, 2010



Adineko gehienak egunero ateratzen dira etxetik (% 86,2). 80 urteko edo gehiagoko pertsonen taldean, % 4,9k adierazi du ez dela inoiz edo ia inoiz ateratzen etxe-koen unitatetik eta egunero ateratzen direnen ehunekoa % 68,5era jaisten da.

57. GRAFIKOA. Etxetik zein maiztasunez atertzen diren, 2010



Otik 10erako eskalan beren denbora erabiltzen duten moduari buruzko asebetetze-mailaren batez bestekoa 7,08 da. Adineko gazteenek ere adierazi dute adineko zaharrenak baino gusturago daudela (lehenak, % 7,35, eta bigarrenak % 6,72).

4.1.5.3. Denboraren hautematea

Denboraren esanahia aldatu egiten da etengabe bizi-zikloan. Denboraren hautemate subjektiboa aldatu egiten da adinarekin. Denbora, sozialki eta psikologikoki, denborarekin egin daitekeena kontuan hartuta neurtzen da (Alba, 1997 in Argulló Tomás, 2001:420); hortaz, pertsona batek eginkizun gutxiago dituenean egiteko, bere bizitzari balioa ematen dion funtsezko alderdirik gabe geratzen da. Egunean zehar denbora igarotzekari buruz duten hautematearen gainean galdetzen zaienean, pertsona gehienek (% 64,7) adierazi dute ez dutela okupazio gehiegirik, baina denbora okupatuta daukatela; % 18,9k adierazi du betebeharrak ez dituela eta ez daukala denborarik, eta % 13,1ek esan du ez duela ezer egiteko eta eguna oso luzea egiten zaiola. 80 urtetik gorakoek taldean igo egiten da ezer egiteko ez duten eta eguna oso luzea egiten zaien pertsonen ehunekoak, gazteenen % 5,7tik zaharreneen % 33,1era igarotzen baita. Horren arrazoietakoa bat honako hau izan daiteke: aisia-kultura txikiagoa izatea biztanleria-sektore honetan, eta horrek beren denbora erabiltzeko aukerak gutxitzea dakar. Era berean, kontuan izan behar da talde horren osasun-egoera ere okerragoa dela, eta horrek zuzenean eragiten du egunean zehar egiten dituzten jardueren aniztasunean.

Gizonen eta emakumeen artean dauden aldeak honako honetan ikusten dira: emakumeen proportzio handi baten ustez betebeharrak gehiegi dituzte eta ez dute behar adina denbora (% 21,8, gizonen kopurua, aldiz % 15,1 da). Ehuneko hori % 33,2ra igotzen da inolako mendetasunik ez duten emakume gazteen artean (60-79 urte). Hau da, inoren laguntza behar ez duten emakume gazteen proportzio handiago batek uste du ez duela bere betebeharrak egiteko behar adina denbora. Emakume horietako askok bilobak zaintzen dituzte, etxeko lanak egiten dituzte eta beste pertsona batzuei laguntzen diete.

Etxekoek unitate motaren arabera, aipagarriena da beste belaunaldi batzuekin beren etxean bizi diren adinekoek ikusten dutela ez daukatela behar adina denbora eguneroko betebeharrak gehiegi dituztelako, seme edo alabaren baten etxean bizi diren belaunaldi anitzeko etxekoek unitateen eta pertsona bakarreko etxekoek unitateen kasuan, ordea, ezer egiteko ez dutenen eta eguna oso luzea egiten zaienen pertsonen kopuruak gora egiten du.

Argi dago aldagai hori lotuta dagoela EBJk egiteko laguntza behar izatearekin. Mendetasun-egoeran dauden hamar pertsonatik hiruren ustez eguneroko denboraren igarotzea oso luzea da. Hautemate horren kausa nagusiaren jatorria pertsona horiek astialdiko jardueretan oso gutxi parte hartzen dutela da.

Heziketa-mailak ere eragiten du dimentsio horretan. Lortutako prestakuntza-maila txikiagoak dituztenek adierazi dute, halaber, denbora gehiegi daukatela egunean

zehar. Mendetasunak denbora-igarotzearen hautematean eragiten duen bezalaxe, kausarik nabarmenena astialdiko jarduera gutxiago egitea da.

31. TAULA. Eguneroko denboraren hautematea, 2010


	Betebehar gehiegi Denborarik ez	Denbora okupatuta	Egiteko ezer ez Eguna oso luzea
GUZTIRA	18,9	64,7	13,1
Sexua			
Gizona	15,1	68,3	13,4
Emakumea	21,8	61,9	12,8
Adina			
60-	27,2	66,5	5,7
70-79	15,4	69,9	10,8
80 edo gehiago	7,4	51,2	33,1
Etxekoen unitate mota			
Pertsona bakarrekoa	12,2	65,8	19,6
Bikotea	19,0	69,0	10,1
Bel. Anitz. Bere etxean	24,6	61,0	9,7
B. a. seme edo alabaren etxean	4,5	50,2	33,4
Habitata			
Landa-eremua	20,6	60,7	15,5
Tartekoa	17,4	64,4	13,2
Hiri-eremua	18,5	69,0	10,5
Osasun-egoera			
Oso ona+Ona	21,2	71,3	6,7
Hala-moduzkoa	18,7	64,6	16,5
Oso txarra+Txarra	11,9	45,7	39,1
EBJetarako laguntza behar du			
Laguntza behar du	10,5	46,9	32,6
Ez du behar	21,4	69,9	7,3
Heziketa-maila			
Analfabetoa	21,0	35,7	31,0
Ikasketarik gabe/Bukatu gabeak	16,2	64,5	15,1
Lehen mailakoak	20,9	66,1	10,2
Bigarren mailakoak/Goi-mailakoak	23,6	65,0	11,0

4.1.6. ONGIZATE PSIKOLOGIKOA

4.1.6.1. Bizi-kalitatea

Erabilitako bizi-kalitatearen eskalaren emaitzek erakusten dute Euskadiko adinekoek beren bizitzarekiko sentimendu positiboak dituztela batez ere. % 84k uste du bere bizitzak baduela zentzua (askotan + batzuetan), % 80,7k itxaropenaz hartzen du egun bakoitza, % 76,4k iraganera begiratzen du zoriontasun-sentsazioarekin, eta % 71,8k uste du egin nahi dituen gauzak egin ditzakeela. Honako hauek dira gehien azaltzen diren sentimendu negatiboak: uste du bere adinak eragotzi egiten diola egitea gustatuko litzazkiokeen gauzak egitea (% 54,1), dirurik ez izateak ere eragotzen dio egitea gustatuko litzazkiokeen gauzak egitea (% 54) eta % 35,9k uste du gertatzen ari dena bere kontroletik kanpo dagoela.

58. GRAFIKOA. CASP-12 eskala, bizi-kalitatea, 2010



32. TAULA. **Batez bestekoa bizi-kalitateari dagokionez, 2010**

	Bizi-kalitatearen batez bestekoa
GUZTIRA 60 edo +	35,6
GUZTIRA 65 edo +	34,6
Adina	
60-69	37,8
70-79	34,7
80 edo gehiago	32,4
Sexua	
Gizonak	36,4
Emakumeak	35,0
Etxekoen unitate mota	
Familia bakarrekoa	34,6
Bikotea	35,5
Bel. Anitz. Bere etxean	36,6
B. a. seme/edo alabaren etxean	32,9
Beste bat	35,1
Osasun-egoera	
Oso ona+Ona	38,0
Hala-moduzkoa	33,6
Txarra+Oso txarra	29,0
EBJetarako laguntza behar du	
Laguntza behar du	31,6
Ez du behar	36,7
Heziketa-maila	
Analfabetoa	32,4
Ikasketarik gabe/Amaitu gabeak	33,8
Lehen mailakoak	36,8
Bigarren mailakoak/Goi-mailakoak	39,3
Habitata	
Landa-eremua	33,8
Tartekoa	34,7
Hiri-eremua	38,1
Egoera ekonomikoa	
600 euro baino gutxiago	33,8
601-900	34,0
901-1.800	36,8
1.800 euro baino gehiago	39,6

Aldagaiak pilatuta landuz, eskalaren emaitza 35,6 da batez beste. Hau da, esan daiteke Euskadiko adinekoen Bizi Kalitatea neurritzkoa dela (35-37 batez beste).

Batez besteko horiek honako tarte hauetan zehazten dira:

- Bizi-kalitate maila txikia: 5etik beherako kopuruak.
- Neurrizko bizi-kalitatea: 35-37.
- Bizi-kalitate maila handia: 37-39.
- Bizi-kalitate maila oso handia: 39-41 batez beste.

Datuek erakusten dute lotura nabarmena dagoela bizi-kalitatearen eta adinaren artean. Adineko gazteenek dute bizi-kalitate maila handia (37,8 batez beste), lau-urogei urte edo gehiagokoek, aldiz, puntuazio askoz ere txikiagoa dute (32,4 batez beste). Gizonek emakumeek baino puntuazio handiagoak dituzte, baina bi kasuetan bizi-kalitatea neurritzkoa da. Etxekoen unitate motaren arabera, eskala honen arabera bizi-kalitate hobearen duten pertsonak belaunaldi anitzeko etxekoen unitateetan (etxebizitza adinekoarena izanik) bizi direnak dira (36,6) eta hautemate txarrenak dituztenak beren seme-alaben etxeetan bizi direnak dira (32,9): Arestian esan dugunez, etxekoen unitate horiek osasun-egoera okerragoa dutenek eta mendetasun-egoeran daudenek osatzen dituzte batez ere, bi elementu horiek funtsezkoak dira bizi-kalitatea murrizteko.

Lortutako heziketa-maila ere funtsezkoa da eskala honen neurketaren emaitzan. Prestakuntza-maila handiagoak dituztenek kopuru handiagoak lortzen dituzte baliabide honetan; hortaz, bizi-kalitatea zuzenean dago lotuta lortutako prestakuntza-mailarekin; zenbat eta heziketa-maila handiagoa izan, orduan eta bizi-kalitate handiagoa. Bigarren mailako edo goi-mailako ikasketak egin dituztenek bizi-kalitate maila oso handia dute (39,3). Gauza bera gertatzen da adierazle hori egoera ekonomikoarekin lotzen denean; diru-sarreraren goragoko tartetan kokatzen direnek kalitate-maila altua hautematen dute.

Aipatu beharreko datu interesgarri bat aldagai honen eta habitataren artean dagoen harremana da. Badirudi, halaber, zuzeneko harremana dagoela bizi-kalitatea handiagoa izatearen eta udalerraren tamaina handiagoa izatearen artean. Landako habitatetan eskala honen batez bestekoa 33,8 da (bizi-kalitate maila txikia), eta hirieremuetan 38,1 (bizi-kalitate maila handia). Ez dugu ahaztu behar landa-inguruneetan garrantzi handiagoa dutela adinekoek.

4.1.6.2. Adierazle psikologikoak


Inkestaren barnean hartutako adineko biztanleriaren ongizate psikologikoa neurtzeko adierazleetako bat Depresioaren Azterlan Epidemiologikoen Zentroko Eskalaren

bertsio murriztua izan zen. Eskala hori funtsezko tresna da depresio-sintomen nagusitasuna neurtzeko.

Eskala horretan biltzen diren adierazleetako bakoitzaren azterketa sakona egiten badugu, ikusiko dugu Euskadiko adineko gehienek sentimendu positiboak dituztela beren eguneroko bizitzan. Biztanleriaren % 70,4k adierazi du pozik dagoela eta % 66,1ek bizitzaz gozatzen duela.

Honako hauek dira sentimendu negatibo orokorrenak: tristezia (% 24,4 triste egon zen aurreko astean) eta loaren hautemate txarra (% 23,5). Garrantzikoa da nabarmentzea aurreko astean emozio negatiboak sentitu zituela esan dutenen ehunekoak ez duela laginaren % 25 gainditzen inoiz. Gutxien orokortuta dagoen sentimendu negatiboa bakardadea da: kasuen % 14,1.


59. GRAFIKOA. CESD-8 eskala, 2010



Biztanleria jakin baten depresio-sintomak neurtu nahi dituzten item horien guztien elkarteak adierazten du, Euskadiko adinekoen kasuan, batez bestekoa -0-8ko eskalan, non 4tik gora egoteak depresio-sintomak daudela esan nahiko lukeen- 1,85 da, muga horretatik oso behera.


Adinean aurrera egin ahala, batez besteko hori ere igo egiten da: 60-69 urtekoetan 1,49 izatetik laurogei urte edo gehiagokoetan 2,61 izatera igaro baita. Hala eta guztiz ere, igoera horrek ez du esan nahi depresio-sintomak gailendu direnik.

60. GRAFIKOA. Depresio-sintomak adinaren arabera, 2010




Emakumeek gizonek baino batez besteko handiagoa dute depresio-sintomen eskalan. Emakumeen batez bestekoa 2,08 da, eta gizonena, aldiz, 1,56.

61. GRAFIKOA. Depresio-sintomak sexuaren arabera, 2010




Halaber, aipatu behar dugu indizea handiagoa dela pertsona bakarreko etxeokoen unitateetan bizi diren pertsonen artean (2,62) eta txikiagoa bikotekidearekin bizi diren artean (1,53).

62. GRAFIKOA. Depresio-sintomak etxeokoen unitate motaren arabera, 2010




Baina indize hori igo egiten da bakardade-sentimenduaren maiztasunari buruzko galderaren ondorioz batez ere. Pertsona bakarreko etxeokoen unitateetan bizi diren % 37,3 bakarrik sentitu ziren, gainerako etxeokoen unitate motetan, aldiz, ehunekoa ez da % 10etik gorakoa.

63. GRAFIKOA. CESD-8 eskala etxeoko unitate motaren arabera, 2010




Depresio-sintomekin nabarmen lotzen den aldagai bat osasun-egoera da. Osasun-egoera txarra edo oso txarra dutela atzematen dutenek eskala honetako depresio-sintomen muga gainditzen dute (4,3).

64. GRAFIKOA. Depresio-sintomak osasun-egoeraren arabera, 2010



Era berean, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko laguntza behar izatea depresio-sintomekin lotzen da, nahiz eta kasu honetan ez den gainditzen CESD-8 eskalak xedatutako muga: (3,16).

65. GRAFIKOA. Depresio-sintomak EBJetarako laguntza behar izatearen arabera, 2010



Azterlan honen barnean hartu den beste adierazle psikologiko bat Goldbergen Antsietate Eskala da. Eskala hori ebaluazio-tresna bat da, antsietate-nahasmenduak atzemateko erabiltzen dena. Kasu honetan, emaitzek erakusten digute laginaren % 18,1ek antsietate handiko sintomatologia duela. Antsietatea, une honetan, adineko zaharrenei gazteenei eta emakumeei baino gehiago (% 19,2 eta % 21,9, hurrenez hurren) eragiten dien nahasmendua da. Egoera honetan daudenen ehuneko handienak ikusten diren etxekoek unitateak, depresio-sintomekin gertatzen den bezala, pertsona bakarreko etxekoek unitateak dira, non adineko 10 pertsonatik ia hiruk pairatzen duten. Osasun-egoerarekiko harremana ere oso nabarmena da, osasun-egoera txarra edo oso txarra dutenen % 43,3k antsietate-sintoma argiak ditu. Aldagai horiek EBJk egiteko laguntza behar izatearekin duen lotura ere nabarmena da, baina ez da hain handia (% 29,3).

33. TAULA. Antsietate-sintomak adina, sexua, etxekoek unitate mota, osasun-egoera eta EBJetarako laguntza behar ote duten kontuan hartuta, 2010

	Antsietatea
GUZTIRA	18,1
Adina	
60-69	19,2
70-79	17,4
80 edo gehiago	16,9
Sexua	
Gizonak	13,1
Emakumeak	21,9
Etxekoek unitate mota	
Pertsona bakarrekoa	27,2
Bikotea	14,5
Bel. anitz. bere etxean	16,7
B. a. seme edo alabaren etxean	11,6
Beste bat	16,1
Osasun-egoera	
Oso ona+Ona	11,4
Hala-moduzkoa	22,6
Txarra+Oso txarra	43,3
EBJetarako laguntza behar du	
Laguntza behar du	29,5
Ez du behar	14,7

4.1.6.3. Asebetetzea

Inkesta honetan neurtu diren beste adierazle subjektibo batzuk bizitzako hainbat alderdirekiko asebetetze-mailak dira. Galdera horien guztien emaitzak erakusten du Euskadiko adinekoen asebetetze-maila handia dela orokorrean.

Neurririk handiena beren harreman pertsonalekiko asebetetze-maila da, batez bete 7,7 puntu baita 0-10 eskala batean, non 0 batere gustura ez eta 10 erabat gustura den. Zahartzaroan funtsezkoa den alderdi batean hain balioespen positiboa izateak esan nahi du berme bat dagoela laguntza-sareen eraikuntzari eta zahartze-prozesu osoan zaintzak eskuz aldatzeari dagokionez.

34. TAULA. Beren bizitzako hainbat alderdirekiko asebetetze-maila, 2010

	Bizitza-maila	Osasun-egoera	Erdetsitako lorpenak	Harreman pertsonalak	Zenbateraino sentitzen zara seguru eta babesuta?	Komunitate bateko kide izatearen sentimendua	Zure segurtasuna zure elbrizunari dagokionez	Zure bizitza espirituala eta zure erlijio-sinismenak
GUZTIRA 60 edo +	6,9	6,6	7,2	7,7	7,2	7,3	6,0	6,5
GUZTIRA 65 edo +	6,8	6,4	7,1	7,7	7,0	7,3	5,9	6,6
Adina								
60-69	7,1	7,1	7,4	7,9	7,5	7,5	6,3	6,2
70-79	6,8	6,5	7,1	7,7	7,0	7,3	5,9	6,7
80 edo +	6,5	5,8	7,0	7,5	6,8	7,0	5,5	6,8
Sexua								
Gizonak	7,0	6,7	7,3	7,8	7,3	7,3	6,2	6,0
Emakumeak	6,8	6,5	7,1	7,7	7,1	7,3	5,9	6,9
Etxekeoen unitate mota								
Pertsona bakarrekoa	6,7	6,1	7,1	7,6	6,7	7,3	5,7	6,6
Bikotea	7,0	6,7	7,3	7,8	7,3	7,4	6,1	6,4
Bel. anitz. bere etxean	6,9	6,8	7,2	7,7	7,3	7,3	6,1	6,5
B. a. seme edo alabaren etxean	6,4	6,0	6,9	7,5	7,0	6,9	6,2	7,3
Beste bat	6,6	6,9	6,8	7,6	7,5	7,4	6,3	6,3
Habitata								
Landa-eremua	6,5	6,2	6,6	7,2	6,7	6,9	5,8	5,8
Tartekoa	7,1	6,5	7,5	8,1	7,3	7,7	6,1	6,7
Hiri-eremua	7,2	7,1	7,6	7,9	7,5	7,4	6,2	7,1
Osasun-egoera								
Oso ona+Ona	7,3	7,6	7,6	8,0	7,6	7,6	6,5	6,7
Hala-moduzkoa	6,6	5,8	6,8	7,5	6,9	7,1	5,7	6,3
Txarra+Oso txarra	5,4	3,7	6,1	6,8	5,7	6,4	4,2	6,3
EBJetarako laguntza behar du								
Laguntza behar du	6,2	5,1	6,7	7,5	6,7	7,0	5,3	6,7
Ez du behar	7,1	7,0	7,3	7,8	7,3	7,4	6,2	6,5

Halaber, ikusten da asebetetze-maila handia dela komunitatearen partaide izatearen sentimenduan (7,3); jarraian, segurtasun- eta babes-hautematea daude, ezaugarri hori estimatua eta garrantzitsua da zahartzaroan, baita bizitzan lortutako lorpenak ere, biek 7,2ko puntuazioa dute batez beste. 7tik behera daude egungo bizitzarekiko asebetetze-maila (6,9); beren osasun-egoerarekiko (6,6), bizitza espiritualarekiko (6,5); eta, azkenik, beren bizitzarekiko etorkizunari dagokionez, (6,6 batez beste).

Bildutako alderdi guztietan, asebetetze-maila jaitsi egiten da adinean aurrera egin ahala; hortaz, 80 urte edo gehiagokoen asebetetze-maila gazteenena baino txikiagoa da orokorrean. Argi dago hori osasun-egoerarekin eta mendetasun- edo ahultasun-egoerarekin lotuta dagoela; osasun-egoera okerragoa dutenek, normalean urte gehiago dituztenek, modu negatiboan balioesten dute beren asebetetzea.

Jarraibide bera ikusten da emakumeen eta gizonen artean, nahiz eta ez den hain nabarmena. Emakumeen eta gizonen asebetetze-mailak alderatzen baditugu, ikusiko dugu emakumeek gutxiago balioesten dutela. Soilik alderdi batean da emakumeen asebetetze-maila gizonena baino handiagoa: beren bizitza espiritualekiko eta erlijio-sinismenekiko asebetetze-maila. Aurrerago ikusiko dugunez, (Ikus 4.1.7.3 Erljioa epigrafea) erlijiositate-maila handiagoa da emakumeen artean.

Belaunaldi anitzeko etxekoen unitateetan beren etxean edo bikotekidearekin bizi diren adinekoek balioesten dute hobekien beren asebetetze-maila. Kontuan izan behar da etxekoen unitate horietan bizi direla adineko gazteenak.

4.1.7. JARRERAK ETA BALIOAK


4.1.7.1. Zahartzaroari buruzko hautemateak

Adinekoen % 68,8k uste du gauzek okerrera egiten dutela zahartzen doazen neurrian. Ehuneko horrek gora egiten du adinarekin, eta % 82,8ra iristen da laurogei urte edo gehiagokoen taldean. Honako baieztapen honi dagokionez ere, kopuruak antzekoak dira: «zahartzen zoazen neurrian gero eta gauza gutxiago egin ditzakezu». Bestalde, adinekoen erdiek baino gehiagok uste dute gazte zenean bezain zorionsua dela, baina adinean aurrera egin ahala kopuru horrek behera egiten du oso nabarmen (% 36,0 laurogei urte edo gehiagokoetan). Biztanleriaren % 52,8ren iritziz, adinean aurrera egin ahala uste zuena baino hobeak dira gauzak.

Zahartzaroko funtsezko beste alderdi bat kalte emozionalaren aldiak, erresilientzia gainditzeko gaitasuna da. Euskadiko adineko gehienek (% 84,0) adierazi dute erraztasunez suspertzen direla une zailak igaro ostean; nolahi ere, laurogei urte edo

gehiagokoen artean gaitasun hori jaitsi egiten da (% 81,4). Gauza bera gertatzen da aldaketetara egokitzeke duten gaitasunari buruz galdetzen zaienean ere.

66. GRAFIKOA. Ondorengo baieztapenekin ados daudenen ehunekoa, 2010



Adinaren eraginak ondorio garrantzitsua du generoen artean ikusitako desberdintasunetan. Emakumeek modu negatiboagoan balioesten dituzte galdera honetan azal dutako ia alderdi guztiak. Aitzitik, antzeko ehunekoak daude une zailetan suspertzeko gaitasunari eta adinean aurrera egin ahala daukaten erabilgarritasun-sentimenduari dagokionez.

Bestalde, alde handiak daude zahartzeari buruzko hautemateetan landako habitatatetan eta hirikoetan bizi direnen artean; hiri handietan bizi direnek modu positiboagoan balioesten dute zahartze-prozesua. Hortaz, hiriko adinekoen % 63,0k dio gauzek okerrera egiten dutela zahartzen diren neurrian, aitzitik, landa-inguruneetan bizi direnen % 73,2k du iritzia hori. Gauza bera gertatzen da erabilgarritasun-sentimenduarekin; hiriko habitatatetan bizi diren adinekoen % 55,9k adierazi du adinean aurrera egin ahala gero eta gauza gutxiago egin ditzakezula; aitzitik, landa-inguruneetako adinekoen % 66,9k adierazi du hori. Nabarmendu behar da hiri-inguruneetan bizi direnen % 60,6k adierazi duela gazteagoak zirenean bezain zorionsuak direla orain; aitzitik, landa-eremuko adinekoen % 42,4k adierazi du hori. Erresilientzia balioesten duten itemetan ere hiri-inguruneetako adinekoak nabarmentzen dira ehunekoari dagokionez.


Hautemate horien ondorio nagusia osasun-egoera da, halaber. Espero bezala, osasun-egoera okerragoa duten adinekoek modu negatiboagoan balioesten dituzte zahartzearekin lotutako alderdi guztiak. Gauza bere gertatzen da mendetasun-egoeran daudenen artean ere.

35. TAULA. Ondorengo baieztapenekin ados daudenen ehunekoak, 2010

	Aldaketara egokitzeko gai naiz	Une latzak igaro ondoren suspertzeko joera dut	Gauzek okerrera egiten dute zahartzen naizen neurrian	Zahartu ahala gauza guxtiago egiteko gai zara	Gazteagoa nintzenean bezain zoriontsua naiz	Zahartu ahala gauzak nik uste nuena baino askoz hobekak dira
GUZTIRA 60 edo +	86,4	84,0	68,8	64,4	51,8	52,8
GUZTIRA 65 edo +	84,9	84,7	72,9	70,5	46,6	50,1
Adina						
60-69	89,8	87,3	61,3	52,6	61,0	56,5
70-79	85,9	83,6	70,3	70,4	49,2	53,2
80 edo +	79,4	81,4	82,8	79,7	36,0	43,4
Sexua						
Gizonak	89,3	84,9	67,8	64,1	53,7	54,2
Emakumeak	84,2	84,8	69,5	64,7	50,4	51,7
Etxearen unitate mota						
Pertsona bakarrekoa	84,4	82,9	73,5	71,2	39,5	43,1
Bikotea	88,0	85,7	71,0	65,7	55,7	56,8
Bel. anitz. bere etxean	86,2	85,0	62,7	56,8	54,9	54,6
B. a. seme edo alabaren etxean	81,3	77,4	83,3	84,4	54,8	45,2
Beste bat	85,7	94,3	62,9	66,7	54,3	58,3
Habitata						
Landa-eremua	81,8	80,8	73,2	66,9	42,4	45,3
Tartekoa	87,1	79,9	70,5	71,7	52,5	53,8
Hiri-eremua	90,4	92,5	63,0	55,9	60,6	59,2
Osasun-egoera						
Oso ona+Ona	91,1	90,9	56,8	53,0	63,3	62,3
Hala-moduzkoa	87,0	81,7	82,3	75,3	41,8	43,6
Txarra+oso txarra	58,8	61,5	91,5	92,4	20,5	28,2
EBJetarako laguntza behar du						
Laguntza behar du	70,1	71,0	86,2	85,4	33,1	43,9
Ez du behar	90,6	88,4	64,2	59,0	56,7	55,0


Pertsona bat zahartzaroan noiz sartu den definitzen duen adin kronologikorik ote dagoen galdetzen denean, biztanleria gehienaren ustez zahartzaroa adinaren mende ez dagoen egoera bat da (% 34,8). Hortik urrun samar daude pertsona bat adinekotzat 70 urtetik gora har daitekeela uste dutenak (% 16). Eta % 15,3ren ustez esan daiteke zahartzaroan daudela 80 urtetik gorakoak.

67. GRAFIKOA. Pertsona bat noiz den adineko galderari buruzko iritzia, 2010



Gai horri dagokionez, alde esanguratsuak daude gizonen eta emakumeen artean. Emakume gehiago dago «ez dago adinaren mende» eta «80 urtetik aurrera» erantzunaren alde; gizonak, aldiz, adin gazteagoak aukeratzeagatik nabarmentzen dira.

68. GRAFIKOA. Pertsona bat noiz den adineko galderari buruzko iritzia, sexuaren arabera, 2010



Gainerakoek adinekoei esleitzen dizkieten adjektiboei dagokienez, biztanleriaren ehuneko handienak honako hauek dituzte, ordena honetan: ez-gatazkatsua (% 79,8), lagunartekoa (% 73,1), gizarteratua (% 70,4), kontserbadorea (% 69,8), sexualki ez-aktiboa (% 67,9), ez-emankorra (% 61,4), gaixobera (% 60,9) eta mendekoa (% 60,0).

69. GRAFIKOA. **Zahartzaroarekin lotutako adjektiboak, 2010**




Adineko 10 pertsonatik hiru asko edo asko samar kezkatuta daude beren zahartzaroarekin. Aitzitik, ia ehuneko bera ez dago batere kezkatuta.


Zahartzaroarekin oso kezkatuta dauden ehuneko ia hirukoiztu egiten da laurogei urte edo gehiagokoan artean gazteenen iritziarekin alderatzen badugu (% 5,8 eta % 14,4). Kezka hori hedatuago dago emakumeen, pertsona bakarreko etxeen unitateetan bizi direnen eta belaualdi anitzeko etxeen unitateetan, etxebizitza seme-

alabena izanik, bizi direnen eta landako habitatetan bizi direnen artean. Osasuna eta laguntzeko premia aldagaia hartzen denean, kezkatuta daudenen ehunekoa % 31,7ra igotzen da osasun-egoera okerragoa dutenen artean eta % 18,9ra mendetasun-egoeran daudenen artean.

70. GRAFIKOA. **Zahartzaroagatiko kezka eta arrazoia, 2010**



71. GRAFIKOA. **Zahartzaroak kezkatzen dituen arrazoia, sexuaren arabera, 2010**



Zahartzaroarekin kezkatuta daudenen artean, kezkaren arrazoi nagusia zahartzaroak berekin dakarren narriadura fisikoa da (% 63,7). Desberdintasunak daude bi sexuen artean, nahiz eta kopuruek maila berari eusten dieten emakumeen nahiz gizonen kasuan, emakumeen kezka gizonena baino txikiagoa da mendetasunari dagokionez, baina emakumeak kezkatuago daude narriadura fisikoarekin; gizonak, ordea, zertxobait gehiago kezkatuta daude erretiroarekin edo erosahalmena jaistearekin.


36. TAULA. Zahartzaroagatiko kezka

	Asko	Asko samar	Zerbait	Gutxi	Batere ez
GUZTIRA 60 edo +	9,9	20,8	25,7	12,9	27,9
GUZTIRA 65 edo +	11,9	20,2	28,2	12,3	23,7
Adina					
60-69	5,8	19,6	24,0	15,4	34,9
70-79	12,2	20,0	29,1	12,8	23,2
80 edo +	14,4	24,7	23,5	7,8	21,4
Sexua					
Gizonak	7,6	20,3	26,4	15,3	28,5
Emakumeak	11,7	21,1	25,3	11,1	27,5
Etxearen unitate mota					
Pertsona bakarrekoa	12,3	24,2	25,7	14,9	21,2
Bikotea	9,3	17,7	29,1	12,7	30,0
Bel. anitz. bere etxean	9,0	21,2	21,5	12,7	31,8
B. a. seme edo alabaren etxean	11,1	33,3	25,0	5,6	13,9
Beste bat	8,1	13,5	40,5	13,5	18,9
Habitata					
Landa-eremua	12,4	27,9	26,5	12,0	18,3
Tartekoa	11,2	15,1	26,3	14,8	28,5
Hiri-eremua	6,4	18,2	24,5	12,5	36,8
Osasun-egoera					
Oso ona+Ona	5,3	15,2	26,8	16,3	36,3
Hala-moduzkoa	11,4	26,9	30,8	10,1	20,5
Txarra+Oso txarra	31,7	35,8	8,9	8,1	12,2
EBJetarako laguntza behar du					
Laguntza behar du	18,9	24,4	23,3	10,2	13,1
Ez du laguntza behar	7,2	19,6	26,5	13,7	32,3

4.1.7.2. Politika


Autokokapen ideologikoaren eskalan, non 0 ezkerria den eta 10 eskuina, Euskadiko adinekoak 4,4ko batez bestekoan kokatzen dira.

72. GRAFIKOA. Autokokapen ideologikoaren eskala, 2010




Politikarekiko interesa 3,38an kokatzen da, hori ere 0tik 10erako eskalan.

73. GRAFIKOA. Politikarekiko interesa, 2010




Adinekoen laurik hiru baino gehiago joan ziren botoa ematera azken hauteskundeetan, baina % 9,7k nahiago izan zuen ez bozkatu.

74. GRAFIKOA. Boto-oroimena, 2010



Era berean, ikusten da gizonekin alderatuta, emakumeen ehuneko handiago batek nahiago izan zuela ez bozkatu (emakumeak % 12,2, aldiz, gizonak % 6,5).


75. GRAFIKOA. **Boto-oroimena sexuaren arabera, 2010**



4.1.7.3. **Erlijioa**

Otik 10erako eskala batean Euskadiko adinekoen erlijio-maila 5,53 da.

76. GRAFIKOA. **Erlijositate-maila, 2010**




Emakumeak 6,15ean daude, batez beste, eta gizonak 4,72an.

77. GRAFIKOA. **Erlijositate-maila, 2010**




Nagusitzen den erlijioa katolikoa da, kasuen % 81,9k praktikatzen baitu. Hurrengo aukera sinestuna ez izatea da: % 9,4. Soilik % 1,6k adierazi du beste erlijio batekoa dela.

78. GRAFIKOA. Zer erlijio duen, 2010



10 emakumetik bederatzik adierazi dute katolikoak direla, gizonen kasuan, aldiz, % 72,5ek esan du katolikoa dela. Nolanahi ere, gizonen % 16,6k adierazi du ez-sinestuna dela, emakumeen kasuan, ordea, % 3,9 da iritzi horretakoa.

79. GRAFIKOA. Zer erlijio duen, sexuaren arabera, 2010



4.2. ADINEKOEN BIZI-BALDINTZEI BURUZKO ALDERAKETA NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

4.2.1. ADINEKOAK⁴ EUSKADIN 1993-2010

«Hirugarren Adina Euskal Autonomia Erkidegoan» deituriko Inkesta 1993. urtean egin zen, etxebizitza partikularretan bizi ziren 65 urte edo gehiagoko 1.484 laguneko eta Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaletan zeuden 102 laguneko laginarekin. Inkesta hori erreferente gisa erabiliko dugu eta aukera emango digu Euskadiko adinekoen taldearen bilakaerari eta joerei buruzko konparazio-azterketa egiteko.

⁴ 65 urte edo gehiagokoak.


Euskadiko bi inkestak konparatzeko azterketa hori egiteko 65 urte edo gehiagoko pertsonen taldea erabiliko da ardatz gisa, 1993ko Hirugarren Adinekoei buruzko inkesta adin horretatik aurreko pertsonak oinarri hartuta egin baitzen.

a) *Demografia:*

Euskadiko Hirugarren Adinekoei buruz 1993an egin zen Inkesta aztertzeke erabili diren datu demografikoak 1991ko Erroldakoak dira: Estatistika-iturri horren arabera, 65 urte edo gehiagoko 271.652 lagun zeuden Euskadin 1991n. Kopuru hori guztizko biztanleriaren % 12,8 da. Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) 65 urteko adinekoei buruz 2009an eman zuen informazioa 409.537 lagunekoa da. Hortaz, Euskadiko 65 urtetik gorako biztanleria Euskadiko guztizko biztanleriaren % 19,2 da.

80. GRAFIKOA. **Profil soziodemografikoa, 1993, 2009**

1991: 65 urte edo gehiagoko 271.652 lagun = % 12,8
 2009: 65 urte edo gehiagoko 409.537 lagun = % 18,9



Adineko gizonen eta emakumeen arteko banaketari bere horretan eutsi zaio denboran; nolahi ere, ikusi da gizonen ehunekoa zertxobait igo dela, baina igoera hori ez da batere esanguratsua. Joera horrek herrialde garatu gehienetan egiten ari diren biztanleria-proiekzioak baieztatuko lituzke. Proiekzio horiek etorkizun orekatuago bat baieztatzen hasi dira sexuen banaketari dagokionez.


Bestalde, egiaztatzen da 75 urte edo gehiagoko taldea nabarmen hazi dela⁵. Talde hori, 1991n guztizko biztanleriaren % 40,3 zen; gaur egun, ordea, % 52 da.

⁵ Euskadiko Hirugarren Adinari buruzko Inkestan azaltzen diren datuetan adin-taldeen araberako banaketa alde batetik 65-74 taldea da eta, bestetik, 75 urte edo gehiagokoa; hortaz, bi inkestetako datuak alderatzeko (1993 eta 2010) bi adin-talde horiek erabiliko dira.


b) *Etxeko en unitateak:*

Etxeko en unitateen osaerak ere bilakaera izan du, bai kualitatiboki, bai kuantitatiboki. Etxeko en unitatearen tamaina jaisten joan da pixkanaka. Gaur egun, 65 urte edo gehiagoko pertsonak osatutako etxeko en unitateen % 24,8 pertsona bakarreko etxeko en unitateak dira, eta % 49,1 bi pertsonaz osatutako etxeko en unitateak. 1993an, pertsona bakarreko etxeko en unitateak guztizkoaren % 16,5 baino ez ziren, eta hirukoak edo gehiagokoak % 40,2. Gaur egun, etxeko en unitateen % 26,2 soilik osatzen dute hiru lagunek edo gehiagok.

81. GRAFIKOA. **Etxeko en unitatearen tamaina, 1993 eta 2010**



82. GRAFIKOA. **Elkarbizitza moduak, 1993 eta 2010**




Etxekoen unitate horietan bizi direnen profila ere aldatu da. Aldaketarik handiena belaunaldi anitzeko etxekoen unitateek (etxea seme-alaben jabetzakoa izanik) pairatu dituzte. 1993. urtean, adinekoen % 15,2 bizi zen seme-alabekin etxebizitza berean seme-alaba horien etxebizitzetan; 2010ean kopuru hori % 3,6ra jaitsi da. Aitzitik, garrantzi handia hartu dute pertsona bakarreko etxekoen unitateen, bikoteak bizi diren etxekoen unitateen eta belaunaldi anitzeko etxekoen unitateen (adinekoaren etxebizitzan bizi direnak) hazkundeak.

Azken batean, egiaztatzen da belaunaldiek modu independentean bizitzeko joera dagoela, eta hori, hasiera batean, kolektibo horren autonomiaren adierazle gisa interpretatu beharko litzateke.

c) *Heziketa-maila:*

Euskadiko adinekoen heziketa-maila zertxobait hobetu da. Adineko analfabeto kopurua ia erdira jaitsi da, 1993an % 4,1 izatetik gaur egun % 2,5 izatera igaro baita. Bestalde, 2010ean erdi-mailako edo goi-mailako ikasketak dituztenen ehunekoa adinekoen % 7,8ra igo da. 1993an, kolektibo horren % 1,3k besterik ez zuen titulazio mota hori.


83. GRAFIKOA. **Heziketa-maila, 1993 eta 2010**



d) *Diru-sarrera maila:*

Egoera ekonomikoari dagokionez, hileko batez besteko diru-sarreraren mailak ere gora egin du, nahiz eta ikusten den zailtasun batzuk daudela alderaketa zorrotzak egiteko. Zailtasun horiek estatuko moneta erabiltzetik euroa erabiltzera igaro izanak ekarri duen aldaketa garrantzitsuen ondorioz sortzen dira.


84. GRAFIKOA. Hileko diru-sarrerren maila, 1993 eta 2010



e) *Etxebizitza eta ingurunea:*

Adineko 10 pertsonatik ia 9 beren jabetzako etxebizitzetan bizi dira gaur egun, baina 1993an lau adinekotik hiru zeuden egoera horretan. Igo egin da beren jabetzako etxebizitzetan bizi diren adinekoen ehunekoa, eta jaitsi egin da beren seme-alaben jabetzako etxeetan bizi diren kopurua, joera hori elkartzen ari da seme-alaben etxeetan bizi diren belaunaldi anitzeko etxeen unitateekin. Era berean, modu esanguratsuan jaitsi da alokairuan bizi diren adinekoen datua, 1993an % 7,5 izatetik 2010ean % 3,4 izatera igaro baita.

85. GRAFIKOA. Edukitze-erregimena, 1993-2010




Inguruneko irisgarritasun-baldintzek ere oso bilakaera ona izan dute aldi honetan. Esate baterako, 2010ean 65 urtetik gorakoen % 17,4k soilik adierazi du arazoak dituela garraio publikoa erabiltzerakoan. 1993an kopuru hori ia bikoitza zen (% 30,6).

Halaber, 1993an, adinekoen % 62k esaten zuen igogailurik gabeko etxebizitzetan bizi zela; orain, ordea, kopuru hori % 35,6ra jaitsi da.

86. GRAFIKOA. Irisgarritasuna, 1993, 2010.


Oztopoak/Trabak aurkitzen dituzte



f) Osasun-egoera subjektiboa:

Atzemandako osasun-egoerari dagokionez, ikusten da aldaketa negatiboa dagoela. Gaur egun, adinekoek adierazi dute 1993an baino osasun-egoera okerragoa dutela. Azterlan askok agerian utzi dute osasun-egoeraren hautematea gizarte baten ongizate-egoeraren igoeraren aurka jaisten dela, hau da, osasun-egoeraren hautemateak okerrera egiten du osasun- eta gizarte-zerbitzuak hobetu edo igotzen direnean. Azken batean, osasun-estandarrei buruzko informazio egokia dutenen «autoeskakizun-maila» handiagoa da. Fenomeno hori beste ideia honek ere azaltzen du: adin handieneko biztanleriaren kopuruak gora egin du eta, ondorioz, osasun-egoera okerragoa dute. Azkenik, gogoan izan behar da, halaber, elkarbizitza-ereduetan izandako aldaketa, bakarrik bizi diren pertsonen kopurua asko igo baita, eta hori bizi-baldintzei buruzko ikerlan guztietan osasunari buruzko hautemate okerragoa izatearekin lotzen da.


87. GRAFIKOA. Osasun-egoera subjektiboa, 1993 eta 2010



g) *Mendetasuna:*

Adin handiagoko adinekoen garrantziak gora egin duenez, laguntza behar dutenen edo eguneroko bizitzako jarduerak egin ezin dituztenen ehunekoak ere gora egin du. Nolanahi ere, adin handiagoko biztanleriaren (laurogei urte edo gehiagokoak) garrantziak izan duen igoera ez dator bat mendetasuna duten edo desgaitasunen baten duten pertsona kopuruak izan duen igoera txikiarekin. Hortaz, pertsona oso zaharren hazkundea handia bada ere, egoera horrek ez du eragin mendetasun- edo desgaitasun-egoeran dauden pertsona kopurua oso handia izatea. Erikortasun-konpresioa deiturikoa gertatzen ari dela esan al dezakegu? (Fries, 1980, Manton, 2001). Mendetasun-egoerak azaltzen hasten diren adina eta ustezko atzerapena ikerlanak egiteko arrazoiak dira herrialde garatu gehienetan. Horrek biztanleriaren ongizatean dituen ondorioak eta zahartzearen eragin ekonomikoa hain handia ez izatea XXI. mendeko erronka nagusietako bat da.


88. GRAFIKOA. **Laguntza behar duten edo EBOJk egin ezin dituztenak, 1993 eta 2010**



Ikus daitekeenez, EBOJetarako laguntza behar dutenen hazkundea oso txikia da. Kopuru horien artean dagoen alde handiena laguntza behar dutenen edo oinetako azazkalak modu autonomoan moztu ezin dituztenen ehunekoan dago: 1993an % 18,7 izatetik 2010ean % 20,5 izatera igaro baitira.


Laguntza behar dutenen edo EBJiak egin ezin dituztenen ehunekoaren arteko aldeak oinarritzko jardueren kasuan azaltzen direnen oso antzekoak dira: aldea ez da % 2ra iristen.

89. GRAFIKOA. **Laguntza behar duten edo EBJIak egin ezin dituztenak, 1993 eta 2010**



h) *Gizarte-baliabideak:*

90. GRAFIKOA. **Zenbait gizarte-baliabide erabiltzea, 1993 eta 2010**



Euskadiko adinekoek gizarte-baliabideak erabiltzeari dagokionez, erabilera hori nabarmen igo da, baliabide horien eskaintza igo izanarekin bat etorriz. 2010ean, laginako adinekoen % 6,9k adierazi du EELZ erabili izan duela, 1993an, aldiz, % 3,3k erabili zuen.

Telelaguntzaren eta eguneko zentroyen indizeek ere gora egin dute nabarmen. Telelaguntzak adinekoen % 0,2 baino ez zuen estaltzen; orain, ordea, % 5,4k erabiltzen du baliabide hori. Eguneko zentroak % 0,2 izatetik % 4,3 izatera igaro dira, inkestako datuen arabera. Egoitzetako aldi baterako egonaldiak ere herritar gehiago erabiltzen hasi dira, nahiz eta kopuruak txiki samarrak diren oraindik ere.

4.2.2. ADINEKOEN⁶ EGUNGO EGOERA EAEn ETA ESTATUAN


Estatu-eremuko datuekin konparazio-azterlana egiteko, estatistika-iturri gisa IMSERSOREn Adinekoen Behatokiak 2006an eta 2010ean egindako inkestak erabili dira batez ere. Lehenengo inkesta (Adinekoen Bizi Baldintzei buruzko Inkesta, 2006) estatuko 65 urte edo gehiagoko pertsoneri egindako 3.507 elkarriketatetako lagina zen. 2009an egindako inkestak (izen bera zuen) adin bereko 2.500 pertsonaren lagina zuen. Euskal Autonomia Erkidegoan egindako inkestarekin alderatzeko, beraz, adin-tarte horretako pertsoneri buruzko datuak soilik erabiliko dira.

a) Demografia:

Arestian adierazi dugunez, 65 urte edo gehiagoko pertsonen multzoa Euskadiko guztizko biztanleriaren % 18,9 da, eta portzentajezko 2 puntutan baino gehiagotan gainditzen du Estatuko adineko biztanleriari buruzko kopurua: % 16,6. (Iturria: INE, 2009).

Adinekoen biztanleriaren sexuen araberrako banaketa antzekoa da bi lekuetan; nolnlahi ere, esan behar dugu Euskadiko emakumeen ehunekoak zertxobait handiagoak direla.


91. GRAFIKOA. Sexuen araberrako banaketa, Euskadi 2010-Estatua 2010



⁶ 65 urte edo gehiagokoak.

Bestalde, eta adin handiena duten adinekoen taldeari dagokionez, azken urte hauetan adin handieneko biztanleria asko igo da EAEn, Estatuko batez bestekoak baino igoera handiagoa izan du (Ikus 1. epigrafea: Bigarren mailako iturrien azterketa estatistikoa)


92. GRAFIKOA. Adinaren arabera banaketa, Euskadi 2010-Estatua 2010



b) Egoera zibila:

Egoera zibilar dagokionez, ikusten da aldeak daudela ezkondata dauden edo bikotekidearekin bizi diren pertsonen eta alargun dauden pertsonen ehunekoaren artean; lehenengo kasuan Euskadiko biztanleriaren artean ehunekoak txikiagoak dira, eta bigarren kasuan, aldiz, ehunekoak txikiagoak dira Estatuko biztanleriaren artean.

93. GRAFIKOA. Egoera zibilararen arabera banaketa, Euskadi 2010-Estatua 2010




c) Heziketa-maila:

Euskadiko adinekoek lortutako prestakuntza-maila Estatuko batez bestekoak lortu duena baino handiagoa da. Lehenengo artean, biztanleriaren ehuneko handiena lehen mailako ikasketak egin dituzten baina amaitu ez dituzten pertsonetan dago (% 35,2). Estatuko adinekoen artean biztanleriaren ehuneko handiena ikasketarik ez duten, baina irakurtzen eta idazten dakitenen artean dago: % 34,9. Era berean,

Euskadiko biztanleriaren ehuneko handiago batek amaitu ditu lehen hezkuntzako, bigarren hezkuntzako eta goi-mailako ikasketak.


94. GRAFIKOA. **Lortutako heziketa-maila, Euskadi 2010-Estatua 2010**



d) *Diru-sarreraren maila:*

Batzuen eta besteen diru-sarreraren mailan ere alde nabarmenak daude. Euskal Autonomia Erkidegoan hilean 300 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten adinekoen % 0,9 baino ez dago; kopuru hori, ordea, % 20,2ra igozten da Estatutan (estatuan ehuneko handi batek adierazi du ez duela inolako diru-sarrerarik, Euskadin inkestatutako biztanleriaren artean, ordea, ez da aurkitu egoera horretan dagoen inor).


95. GRAFIKOA. **Diru-sarrera maila, Euskadi 2010-Estatua 2010**




e) *Etxekoen unitatearen tamaina eta osaera:*

Etxekoen unitateari dagokionez, ez dago alde handirik Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Estatuaren artean. Adinekoek osatutako etxekoen unitatearen batez besteko tamaina 2,23 pertsonakoa da Euskadin; Estatuan, aldiz, 2,3koa da.

96. GRAFIKOA. Etxeko en unitatearen tamaina, Euskadi 2010-Estatua 2006



97. GRAFIKOA. Elkarbizitza moduak, Euskadi 2010-Estatua 2006




Etxeko en unitateen osaerari buruzko azterketa zehatzago batek agerian jartzen ditu alde esanguratsu batzuk. Euskadin pertsona gehiago bizi dira pertsona bakarreko etxeen unitateetan eta belaunaldi anitzeko etxeen unitateetan etxea beren jabetzako izanik. Estatuan, aldiz, bikotez osatutako eta seme edo alaben etxeetan bizi diren belaunaldi anitez osatutako etxeen unitateen ehuneko handiagoa da. Nolanahi ere, kontuan izan behar da gaur egun 2006. urteko estatuko informazioa erabiltzen ari garela.

f) *Familia-sareak:*

Familia-sareei eusteari dagokionez, alde esanguratsuak daude EA Eren eta Estatuaren artean. Seme edo alabarekiko harremanak (harreman handiena duten semearekin edo alabarekin) maizago gertatzen dira Euskadiko adinekoen artean. Euskadiko adinekoen % 75,5ek esan du egunero ikusten duela bere semea edo alaba, Estatuko adinekoen kasuan, aldiz, % 67,5ek esan du hori. Horri kontrajarrita, semea edo alaba inoiz ikusten ez dutenak daude, Estatuan adinekoen % 7 dago egoera horretan, eta Euskadin % 0,6 soilik.


98. GRAFIKOA. **Semearekin edo alabarekin zenbateko maiztasunez dagoen harremanetan, Euskadi 2010-Estatua 2010**



g) *Osasuna, mendetasuna eta desgaitasuna:*

Osasun-egoeraren hautemateari dagokionez ere badaude aldeak; Euskadiko adinekoen ehuneko handiago batek esan du osasun-egoera ona duela (% 51,0k ona eta oso ona, Estatuko adinekoen artean, aldiz, % 44,9k). Osasun-egoera okerragoa dutela pentsatzen duten pertsonen kopurua antzekoa da, hala-moduzkoa erantzunean kokatzen dira pertsona gehiago Estatuan.

99. GRAFIKOA. **Hautemandako osasun-egoera, Euskadi 2010-Estatua 2010**



IMSERSOk egindako ECV-06 inkestan mendetasun-egoeran dauden pertsonen (laguntza behar dute edo ezin dituzte EBJk egin) ehunekoa aztertu zen. Kasu horretan, erabilitako jarduera-zerrendak 18 item zituen. Euskadiko APBBIren zerrendak 14 jarduera dituenez, datuak alderatu ezin badira ere, hainbat joera ikus daitezke eta joera horiek, beste hainbat aldagaitan bezalaxe, Euskadiren aldeko aldeak daudela erakusten dute. Estatuko ECV-06ren arabera, 65 urteko adinekoen % 31,9k aipatu zituen mendetasun-egoerak. Gure inkestan kopuru hori % 28,5 da.

100. GRAFIKOA. Laguntza behar izatea, Euskadi 2010-Estatua 2010



Adinekoei laguntza ematen dieten pertsonen profilean ere aldeak daude Euskadiren eta Estatuaren artean⁷. Estatuko batez bestekoan, zaintzaileak gazteagoak dira, biztanleriaren ehuneko handiena duen taldea 50-59 urtekoa da. Fenomeno horren kausa honako hau izan daiteke: Euskadiko biztanleria Estatukoa baino zaharragoa da, eta, beraz, zaintzaileak ere zaharragoak dira; era berean, kontuan hartu behar da Estatuko inkestaren xede-biztanleria familiako zaintzaile informalak eta familiakoak ez diren zaintzaile informalak zirela. Sexuari dagokionez ere ikusten da alde handiak daudela; Estatuan, lan mota honetan emakumeak duen rola EAEn duena baino askoz ere garrantzitsuagoa da; badirudi generoen arteko alde gutxiago dagoela erkidego honetan. Zaintzaren maiztasuna handiagoa da Estatuan, 10 zaintzailetik 9k egunero ematen dute laguntza, Euskal Autonomia Erkidegoan, aldiz, 10etik 7k ematen dute egunero.

⁷ Laguntzak ematen dituzten pertsonen profila alderatzeko INMERSOk 2004an egindako Laguntza Informalari buzunko Inkestako datuak erabiltzen dira. Kontuak izan behar da inkesta honen xede nagusia adinekoei (60 urte edo gehiago) laguntza informala ematen zieten 18 urtetik gorako pertsonak direla, ahaideak nahiz ahaideak ez direnak aintzat hartuta. Gure inkestan familiako zaintzaileen profilari buruzko informazioa soilik bildu da.


37. TAULA. Zaintzak ematen dituen pertsonaren profila, Euskadi 2010-Estatua 2004

	Euskadi	Estatua
Adina		
40 baino gutxiago	7,4	16,7
40-49	21,3	23,8
50-59	23,2	28,7
60-69	15,9	15,9
70 edo +	29,2	14,9
Sexua		
Gizonak	36,4	16,4
Emakumeak	63,6	83,6
Laguntzaren maiztasuna		
Egunero edo ia egunero	75,4	90,2
Behin edo bitan astean	15,8	6,3
Behin edo bitan hilean	7,1	1,8
Maiztasun gutxiagoz	1,7	1,6

h) Emandako laguntza informala:

Gaixorik edo mendetasun-egoeran dauden ahaideei egunero ematen dioten laguntzari buruz galdetzen denean, ikusten da alde txiki batzuk daudela. Zaintza pertsonaleko lanetan, etxeko laguntzan eta izapideak eta kudeaketak egiten laguntzen duten pertsonen ehunekoa handiagoa da Euskadin. Estatu-eremuan lagun egitea deituriko jarduera nabarmentzen da. Hortaz, ondoriozta daiteke Euskadiko adinekoek beren ahaideei ematen dieten laguntzaren ehunekoa handiagoa dela zertxobait konplexuagoak diren zaintzako lanetan.

101. GRAFIKOA. Emandako laguntza informala, Euskadi 2010-Estatua 2010




Halaber, bilobak zaintzen dituzten aitona-amonen ehunekoa handiagoa da (% 43,1 Euskadin, Estatuan, aldiz, % 34,9). Euskadiko adinekoen ehuneko handiagoak ematen die laguntza beren ahaideei.

102. GRAFIKOA. **Bilobak zaintzea, Euskadi 2010-Estatua 2010**



Nolanahi ere, laguntzaren intentsitatea handiagoa da estatuan. Euskal Autonomia Erkidegoko aitona-amona zaintzaileen % 28,9k soilik egiten du egunero, Estaturkoek, aldiz, % 49,5ek egiten du. Zalantzarik gabe, haurtzaindegi publikoetarako sarbidea Euskal Autonomia Erkidegoan baino txikiagoa da hainbat autonomia-erkidegotan.


103. GRAFIKOA. **Bilobak zenbateko maiztasunez zaintzen dituzten, Euskadi 2010-Estatua 2010**



i) *Etxeko lanak:*


Aldeak dauden beste alderdi aipagarri bat etxeko lanen banaketa da. Euskal Autonomia Erkidegoan oraindik ere generoen arteko aldeak dauden arren, ikusten da gizonetzko adinekoen inplikazioa handiagoa dela etxeko lanak egiterakoan. Euskadiko gizonen kopurua, kasu askotan, Espainiako gizonen kopuruaren bikoitza da hainbat lan egiteari dagokionez, hala nola: erosketak egitea, garbiketa egitea edo janaria prestatzea; eta beste hainbat kasutan kopuru hori hirukoitza da, hala nola etxeko unitate barruan gaixorik dauden beste kide batzuk zaintzea.

104. GRAFIKOA. **Etxeko lanak egiten dituzten gizonak,**
Euskadi 2010-Estatua 2010




Euskadiko emakumeen proportzio handiago batek egiten ditu etxeko lanak. Eta lan hauetan nabarmentzen dira: etxekoen unitate barruan gaixorik dauden kideen zaintzan, garbiketa egitean, janaria prestatzean eta arropa garbitzean. Estatuan etxekoen unitatean konponketa txikiak egiten dituzten emakumeen ehunekoa nabarmentzen da.

105. GRAFIKOA. **Etxeko lanak egiten dituzten emakumeak,**
Euskadi 2010-Estatua 2010



Baina nahiz eta inkesten emaitzek erakusten duten Euskadiko adinekoen ehuneko handiago bat arduratzen dela etxeko lanaz (laguntza informala eta etxeko lanak) Estatuko adinekoen ehuneko handiago batek esaten du betebeharrak gehiegi dituela eta ez duela denborarik egunean zehar. Euskadiko adinekoak nabarmentzen dira, bestalde, betebeharrak gehiegi ez izatearen, baina denbora okupatuta edukitzearen aukeran.


106. GRAFIKOA. Eguneroko denboraren hautematea, Euskadi 2010-Estatua 2010



j) Zahartzaroari buruzko hautemateak:

Norberaren zahartzaroari buruzko kezka hedatuago dago Estatuko adinekoen artean Euskadikoetan baino. Azken horien artean % 11,8 soilik dago oso kezkatuta zahartzaroarekin, eta % 23,7 ez dago batere kezkatuta. Aitzitik, Estatuko adinekoen % 24,5 oso kezkatuta dago bere zahartzaroarekin eta % 19,2 ez dago batere kezkatuta.

107. GRAFIKOA. Norberaren zahartzaroarekin kezkatuta, Euskadi 2010-Estatua 2010




k) Gizarte-baliabideak:

Bestalde, gizarte-baliabideen erabilerari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoa nabarmentzen da biztanleriaren ehuneko handiagoa duelako EELZn eta etxebizitza egokitzeko laguntzetan; neurri horiek oso garrantzitsuak dira «etxean zahartzea» helburua lortzeko, pertsonen lehentasunen arabera. Estatuan, gainerako prestazioek edo

laguntzek ehuneko handiagoak dituzte, batez ere oporrak eta aldi baterako egonaldia egoitzetan nabarmentzen direla.

108. GRAFIKOA. **Baliabideen erabilera azken urtean, Euskadi 2010-Estatua 2010**



Kontuan izan behar da datu horiek ofizialetatik bereiz daitezkeela datu horiek lortzeko metodologia desberdinak erabili direlako. Baina, batez ere garrantzitsua da kontuan izatea ezin dugula zerbitzuen erabilera estaltze-indizearekin identifikatu (kasu gehienetan txikiagoa), zerbitzu bera une eta pertsona desberdinek erabil dezaketelako.

4.2.3. NAZIOARTEKO ALDERAKETA

Nazioarteko konparazioa egiteko honako hauek erabili dira: 2004. eta 2008. urteetako Survey of Health, Ageing and Retirement in Europe (SHARE), Eurostateg⁸ emandako datuak eta 2006ko⁹ .European Social Survey Osasunari, Zahartzeari eta Erretiroari buruz European egindako Inkesta (SHARE) 50 urte edo gehiagokoen osa-

⁸ EUROSTAT-Database, Population and social conditions. Population. Census. National level census 2001 round. (<http://epp.eurostat.ec.europa.eu>).


⁹ ESS: 2002az geroztik bi urtean behin egiten den inkesta. Oinarrizko galdera egonkorak eta txandakatzen diren moduluak ditu. Gizarte-aldagai sorta handia biltzen du: batez bestekoa, konfiantza politikoa, gobernantza, gizarte-balioak, gizarte-bazterkeria, osasuna eta alderdi ekonomikoak eta demografikoak.

sunari, egoera sozioekonomikoari eta gizarte- eta familia-sareei buruzko nazioz gaindiko, diziplina anitzetako luzetarako taula da. Lehenengo saioan (2004) Europako 11 herrialdek hartu zuten parte. Gaur egun, 30 herrialde daude sartuta, 45.000 laguneko laginarekin. Euskal Autonomia Erkidegoarekin alderatzeko, herrialdeen zenbaketa- ren guztizko emaitzak erabili dira. Nolanahi ere, esan behar dugu zailtasunak izan ditugula galdesorta bat bestearekin bateratzen saiatu garenean.

a) *Egoera zibila:*

Egoera zibilean, esaterako, alde txiki batzuk daude Euskadiko biztanleriaren eta SHAREaren guztizkoaren artean. Euskadin, ezkongabeen ehunekoa jaitsi egiten da adinarekin, SHAREan, ordea, igo egiten da. Dibortziatuen kopuruak handiagoak dira SHAREko emaitzen tarte guztietan. Laurogei urte edo gehiagoko alargunen ehuneko txikiagoa da Euskadin, ezkonduen ehunekoa, aldiz, ia % 10 handiagoa da.

109. GRAFIKOA. **Egoera zibila adinaren arabera, Euskadi 2010-SHARE 2004**




b) *Elkarbizitza moduak*¹⁰:

Aztertutako Europako iturria 2001ekoa bada ere, (hamar urtean behin egiten diren biztanleria-errolak erabiltzen ditu) ikusten dugu pertsona bakar batek eta bikoteek osatutako etxekoen unitateak nagusitzen direla Europako batez bestekoan. Euskadin, ordea, belaunaldi anitzeko etxekoen unitateak ere (batez ere adinekoaren jabetzakoak direnak) oso ugariak dira. Egoera horren kausetako bat belaunaldi gazteak berandu emantzipatzea da, egoera hori oso maiz gertatzen da gure herrialdean.

¹⁰ 65 urte edo gehiagokokak.


110. GRAFIKOA. **Elkarbizitza moduak, Euskadi 2010-Eurostat 2001**



c) *Etxebizitza:*

Etxebizitzari dagokionez, 60-69 urteko 10etik 9k beren jabetzako etxebizitzak dituzte Euskadin; aitzitik, SHAREak aztertutako guztizko herrialdeetan emaitza % 71,2 dago egoera berean. Europako herrialde gehienetan, etxebizitza-politikek alokairua sustatzen dutenez, tradizio gutxiago dago jabetzaren kulturari dagokionez. SHAREan, lau pertsonatik ia batek (60-69 urte) du bere etxebizitza alokairuan, Euskadin, aldiz, % 1,9k. Ehuneko hori, gainera, igo egiten da adinarekin SHAREan parte hartu duten Europako herrialdeetan (% 29,3 80 urte edo gehiagokoen artean). Jabetza zahartzaroko nolabaiteko «bizi-asegurua» den arren, batzuetan zaildu egiten du laguntza behar dutenak mugitzea, beren etxearekiko atxikimendua oso handia delako eta seme-alabentzako jaraunspenak garrantzi handia duelako oraindik guretzat.


111. GRAFIKOA. **Edukitze-erregimena, Euskadi 2010-SHARE 2004**




d) *Familia-sareak:*

Familia-sareekiko harremana ere desberdina da. Euskadin, Espainiako gainerako erkidegoetan bezalaxe, seme-alabekin egunero harremanetan daudenen ehunekoa handiagoa da adin-tarte guztietan, kasuen % 70 gainditzen dute beti. SHAREak aztertutako herrialdeei dagokienez, ehuneko hori zertxobait jaisten da: % 60. Euskadin, gainera, argi ikusten da harreman garbia dagoela adinaren eta harremanen artean, adinean aurrera egin ahala, seme-alabekin harremana dutenen ehunekoa murriztu egin da (% 80,1etik % 72,3ra), baina joera hori ez da Europako herrialde guztietan ikusten.

112. GRAFIKOA. **Beren seme-alabekin eguneroko harremana dutenak, Euskadi 2010-SHARE 2004**



Arestian esan dugunez, Euskadin familia-harremana maiz gertatzearen kausa nagusietako bat gurasoen eta seme-alaben etxebizitzak hurbil egotea da. Euskadiko 60-69 urteko % 40,2 seme edo alabaren baten etxekeoen unitatean bizi da. Ehuneko hori SHAREaren biztanleriaren % 23,1era jaisten da. Euskadiko adinekoen 10etik 7 kilometro batetik beherako distantzian dago; aitzitik, SHAREan parte hartu duten adinekoen 10etik 5 dago egoera horretan. Harremanen maiztasuna nahiz seme-alaben etxebizitzekiko hurbiltasuna funtsezko adierazleak dira laguntza-sareak eraikitzeko eta, orokorrean, zaintzak besterenganatzeko.

113. GRAFIKOA. Etxekoen unitatearen distantzia hurbilen bizi den seme edo alabari dagokionez, Euskadi 2010-SHARE 2004

 e) *Bilobak zaintzea*¹¹:

Euskadiko adinekoek SHAREan aztertutako Europako herrialdeen batez besteak baino proportzio eta maiztasun handiagoan zaintzen dituzte beren bilobak. Laguntza mota hori egunero ematen denean bikoiztu egiten da biztanleria-portzenta-jetan Euskadin, bai gizonen kasuan baita emakumeen kasuan ere.

38. TAULA. Bilobak zaintzea, Euskadi 2010-Estatua 2004


	Europa		Euskadi	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
Egunero	4,4	5,1	10,6	9,1
Astero	8,1	7,3	11,1	8,7
Maiztasun gutxiagoz	13,0	11,6	16,7	12,5
Ez dituzte zaintzen	41,1	45,5	35,4	49,2

¹¹ 65 urte edo gehiagokoak.

f) *Erlijiositatea:*

European Social Surveyk (2006) emandako datuek erakusten dute Euskadiko adinekoen erlijiositate-maila inkesta honetan aztertutako Europako herrialdeen batez bestekoaren parekoa dela. Iturri horren arabera, Estatuko gainerako erkidegoetako Estatuko batez bestekoa Euskadiko batez bestekoa baino handiagoa da.

39. TAULA. **Erlijiositate-maila, Euskadi 2010-ESS-06**



5.

LABURPENA

- EAEKO 60 URTETIK GORAKOEN BIZI-BALDINTZEI BURUZKO AZTERLANA aurkeztu da. Ikerlana azterlana kuantitatiboa egitean oinarritu da. Erabilitako lan-metodologiaren informazio-euskarria EAEn bizi diren 60 urte edo gehiagoko pertsonen etxez etxe egindako inkesta bat dugu. Erabilitako lagina 2010eko apirilean eta maiatzean egindako 1.207 elkarrizketetara igo da.
- Aztertu beharreko aldagai sorta handia bildu da: bizi-baldintza materialak, gizarte-sareak, osasuna, denboraren erabilera, gizarte-zerbitzuak, adierazle psikologikoak, balioak eta jarrerak. Era berean, multzo horietakoren bat balioesteko estandarizatutako eta zientifikoki baliozkotutako tresnak erabili ditugu, ondorengo konparazio-azterketak errazteko.
- Ahaleginak egin dira Euskadiko, estatuko eta Europako beste azterlan batzuetan egindako galderak berriz egiteko, errealitate desberdinak alderatzearen. Azterketa horietako batzuk aurkeztu ditugu, ondorio zorrotzak ateratzeko izan ditugun zailtasun handiak adieraziz, batez ere laginen osaera desberdina delako.
- 60 urtetik gorako lagina hautatu da horrela ezarri dutelako azterlan honetan preskripzio teknikoek. Konparazio-azterketak egitera bideratutako ataletan 65 urtetik gorako lagina erabili da.

Profil soziodemografikoa

- INEk hedatutako datuen arabera, 2009an 542.188 lagunek 60 urte baino gehiago zituzten EAEn. Horietatik, 409.537 lagunek 65 urte baino gehiago zituzten. Biztanleria talde horrek (65 urte edo gehiago) portzentajezko 2 puntutan baino gehiagotan gaintzen du Espainiako adineko biztanleriari buruzko kopurua (% 16,6). Hiru hamarkadatan baino gutxiagotan bikoiztu egin da 65 urtetik gorako ehunekoak, 1981ean % 9,2 izatetik 2009an % 18,9 izatera igaro baita. Era berean, 0-19 urteko biztanleriaren garrantzi erlatiboa jaitsi egin da, 1981ean % 34,2 baitzen eta 2009an, aldiz % 17,0. Biztanleria zaharraren ehunekoak ho-

nela banatzen dira probintzien arabera: Araban % 17, Gipuzkoan % 18,6, eta Bizkaian % 19,5.

- Euskadiko adineko biztanleria eta Estatuko gainerako erkidegoetakoa alderatzen baditugu, ikusiko dugu kopurua zertxobait igo dela, baina laurogei urte edo gehiagoko hazkundeari dagokionez, azken hamarkada honetan izan diren aldeak oso esanguratsuak dira; izan ere, Euskadin % 54 igo da 1981. urtetik hasita. Gaur egun, adineko biztanleriaren % 28,6k 80 urte baino gehiago ditu. Aldi berean, pertsona talde hori % 46 igo da Espainiako gainerako erkidegoetan.
- Gure inkestan, elkarrizketatutako biztanleria honela banatzen da: % 43,4 gizonak dira eta % 56,6 emakumeak. Adinean aurrera egin ahala, emakumeen eta gizonen banaketa hori gehiago desorekatzen da emakumeen alde. Laurogei urte edo gehiagoko pertsonen artean, emakumeen ehunekoa gizonena baino % 25 handiagoa da. 90 urte eta gehiagoko artean, % 24 gizonak dira eta % 76 emakumeak, (datu mota hori zuhurtziaz erabili behar da adin bereko estratifikazio honetatik ateratzen den lagin kopurua txikia delako).
- 60 urte eta gehiagoko artean nagusitzen den egoera zibila ezkondua edo bikotekidearekin bizitzen da, % 61,4 baitago egoera horretan. Ondoren, alargunen ehunekoa dago (% 29,4), eta % 10etik beherako indizeekin, ezkongabeen kopurua % 6,2 da, eta dibortziatuen edo bananduen kopurua % 2,9.
- Adinean aurrera egin ahala, ezkonduen edo bikotekidearekin bizi direnen eta alargunen kopuruak berdindu egiten dira, baita alderantzikatu ere. Laurogei urte edo gehiagoko pertsonen artean, alargunen ehunekoa % 52,8ra igotzen da, eta ezkonduena edo bikotekidearekin bizi direnena, berriz, % 40,1era jaisten da.

Heziketa-maila

- Gaur egun, 60 urtetik gora izaki Euskadin bizi diren pertsona gehienek lehen hezkuntzako ikasketak dituzte, baina kasu guztietan ikasketa horiek ez dituzte amaituta (% 30,8k amaitu gabe ditu eta % 31,3k, oster, amaituta). Adin horretako pertsonen artean, irakurtzen eta idazten ez dakitenen % 2k dirau. Generoen arteko aldeak oso handiak dira. Izan ere, analfateboen ehunekotik % 2,8 emakumeak dira % 1 gizonak. Era berean, goi-mailako unibertsitate-ikasketetan % 3,2 emakumeak dira eta % 7,2 gizonak.

Egoera ekonomikoa

- Biztanleriaren ehuneko handiena dagoen diru-sarreraren tartea honako hau da: 601-900 euro hilean (% 26). Esan behar dugu galdera horri erantzun nahi ez duen

pertsonen kopurua oso handia dela (% 26,9). Adinean aurrera egin ahala, diru-sarrerak jaitsi egiten dira. 600 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten laurogei urte edo gehiagoko pertsonak hirukoiztu egiten dute 60-69 urteko pertsonen ehunekoak. Halaber, alde handiak daude sexuaren arabera. Diru-sarreraren tarteei dagokienez, emakume gehienak gizonenak baino txikiagoak dira.

Jarduera

- Adineko gehienek esan dute erretiratuta daudela (% 54,7). % 18,7k etxeko lanetan dihardu (etxeko andrea edo gizona), % 15,9 aurretiaz lan egin ez duten pentsiodunak dira, % 7,4 lanean ari da (% 16,2k 60-69 urte ditu) eta % 1,9 langabea da.
- 60 urte bete ondoren norbere lanpostuan jarraitzeak zuzeneko lotura du enpresan duten karguarekin. Goi-mailako agintek, zuzendariek eta negozioren baten jabeek lan-merkatuan jarraitzeko joera handiagoa dute. Azterlan honen emaitzek aditzera ematen dutenez, erretiroa hartzeko batez besteko adina 60,7 urte dira, adin ofizialetik eta Estatuko gainerako autonomia-erkidegoetatotik (gaur egun, 63 urte inguru) oso behera.

Elkarbizitza-ereduak eta familia-sareak

- Euskadiko 60 urte edo gehiagoko pertsonak bizi diren etxekoen unitateen batez besteko neurria 2,23 pertsona dira. % 36,9 bikotekidearekin bizi da, % 35,2, berriz, bere etxean belaunaldi anitzeko etxekoen unitate batean, eta % 22,3, ostera, pertsona bakarreko etxekoen unitate batean. Soilik % 2,7 bizi da seme edo alabaren jabetzako etxebizitzan belaunaldi anitzeko etxekoen unitate batean, eta % 3,2, azkenik, bestelako etxekoen unitateren batean.
- Adinak gora egin ahala, bakarrik edota seme edo alabaren batekin belaunaldi anitzeko etxekoen unitateetan bizi diren pertsonen ehunekoak ere gora egin ohi du (zehazki, % 27,8 eta % 9,4, hurrenez hurren). Adineko gazteenen barruan, belaunaldi anitzeko etxekoen unitateak (etxebizitza adinekoaren jabetzakoa izaki) dira nagusi; horrelakoetan, hainbat belaunaldi (gurasoak, seme-alabak, eta abar) elkarrekin bizi dira familiaren etxebizitzan. Datu hori ikusita, agerian jartzen da belaunaldi gazteenek etxebizitza lortzeko eta lan-merkatuan sartzeko dituzten arazoak garrantzitsuak direla.
- Familia-sareei dagokienez, herrialde latino guztietan bezala, familiako kideekiko harremanak oso maiztasun handikoak dira. Horrela, seme-alabak dituzten adineko pertsonen % 78,0k egunero edota ia egunero ikusten dituztela adierazi dute,

eta % 17,6k, berriz, astean behin edo bitan; horrenbestez, adineko 10 pertsonatik 9k astero izan ohi du harremana seme-alabetako batekin.

- Harreman horiek intentsitate handikoak izatearen arrazoi nagusietako bat zera da, gurasoen eta seme-alaben bizitokiak gertu egon ohi direla, hain zuzen. EAEko adineko hamar pertsonatik zazpiren etxearen eta seme-alaben etxearen arteko distantzia kilometro batetik beherakoa da (% 34,8ren kasuan, elkarrekin bizi dira). Seme-alabekin bizi ez diren pertsonen guztizko kopuruaren % 95,2ren kasuan, 25 kilometrotik beherakoa da distantzia hori.
- Seme-alabekiko eta bestelako ahaideekiko harremanekin duten asebetetzea oso ona da. 0-10 eskala batean, kontuan hartuz 0 «batere asebeste ez» dela eta 10 «erabat asebeste», Euskadiko adineko biztanleriaren batez bestekoa 9 da seme-alabekin duten harremanarekiko asebetetze-maila ezartzean. Bestelako ahaideekiko harremanaren asebetetze-maila ere altua da, zehazki, batez beste 8,1.

Etxebizitza eta ingurunea

- EAEko adineko pertsona gehienek jabetzako etxebizitza dute, zehazki, % 90,1ek.
- % 95,1 hiri-inguruneetan bizi da (horien % 40,8. hiri handietan), eta soilik % 3,7 bizi da isolatutako etxe batean, bizilagunik gabe inguruan. Ehuneko hori txikia bada ere, funtsezko garrantzia du zerbitzu-hornikuntzen eta horietarako sarbidearen ikuspegitik. Gaur egun, landa-inguruneetan adinekoen % 16,7 bizi da.
- Adinekoak bizi diren etxebizitza edo eraikin motari dagokionez, gehienak pisu-eraikinetan bizi dira (% 60,2 igogailua dutenetan, eta beste % 31,8, berriz, igogailurik gabekoetan). Bestalde, % 4 finka edo baserriren batean bizi da, eta % 3,3, ostera, etxeren batean, hots, banako txaleten, txalet atxikiren edota familia bakarreko behe-etxebizitzaren batean.
- Igogailurik gabeko pisuetan bizi diren pertsonen % 8,2 eraikinaren beheko solairuan bizi da, % 31,3, berriz, lehenengo solairuan, % 22,8, ostera, bigarrean, eta azkenik, 10 pertsonatik ia 4 hirugarren solairuan edo hortik gorakoan. Hau da, igogailurik gabeko pisuetan bizi diren pertsona horien % 90ek eskailera-atalen bat igo behar du bere etxebizitzara iristeko. Guztizko kopuruari dagokionez, igogailurik gabeko eraikinen goiko solairuetan –lehenengoan edo hortik gorakoan– bizi diren adinekoen ehuneko % 28,9 da, hots, 60 urte edo gehiagoko 156.772 pertsona, gutxi gorabehera.
- Adinekoen etxebizitzetako ekipamenduak osatu samarrak dira, baina % 20 inguruk ez du berokuntza-sistematik.

- Adineko pertsonen modu positiboan balioetsi ohi dute beren etxebizitzaren egoera. 0-10 eskala batean, neurria 7,83 da.

Baliabideen irisgarritasuna eta hurbiltasuna

- 60 urtetik gorako EAEko pertsonen % 8,8-18,8k aitortu du ohiko ingurunerako sarbidean arazoren bat dagoela. Ehunekorik txikiena (% 8,8) etxebizitzaren barruan mugitzeko edo lekuz aldatzeko oztoporen edo traba fisikoren bat dutela deritzoten pertsonen dagokie. Eta ehunekorik handiena, berriz (% 18,8), eraikineraren sartzeko arazoren bat duten pertsonen dagokie.
- Pertsonen bizi-kalitatearekin eta gizarte-bizitzan horiek duten partaidetzarekin lotutako beste alderdi garrantzitsu bat zera da, hurbileko ingurunean eskuragarri dituzten baliabideak, hain zuzen ere. Adineko pertsonen ehuneko handi batek aitortu duenez, leku ugaria oinez joateko 15 minutu baino gutxiago behar ditu: supermerkatua edo janari-dendara, parkera edo berdeguneera eta osasun-zentroa. Toki horiek guztiek funtsezko garrantzia dute edozein pertsonarentzat, eta horrenbestez, horietarako sarbide erraza izatea autonomia pertsonaleko oinarritzko adierazlea da zahartze-prozesuan.

Osasuna eta mendetasuna

- Euskadiko adineko pertsonen erdiak baino gehiagok osasun-egoera onean edo oso onean daudela aitortu dute. Alderantzizko egoeran, bestalde, elkarriketatutakoen % 10,5 dago. Adina adierazle erabakigarria da osasuna hautematerakoan: 60-69 urteko adin-tartean 10 pertsonatik ia 7k osasun-egoera onean daudela adierazi dute, eta % 5,9k, ostera, osasun-egoera txarrean dagoela. Aitzitik, laurogei urte edo gehiagokoen kasuan, ehuneko horiek erabat aldatzen dira: % 38k baino ez du adierazi osasun-egoera onean edo oso onean dagoela, eta % 19,7k, berriz, balioespen negatiboa egin dio bere osasun-egoerari. Bestalde, adinak gora egin ahala, emakumeek hautemandako osasun-egoera okerragotu egin ohi da. Hautemate horri dagokionez, adinak ere eragina du genero-desberdintasunetan.
- Mendetasun-egoeren eraginari dagokionez, bestalde, EAEko adineko biztanleriaren % 22,8k laguntza behar du eguneroko bizitzako jardueraren bat egiteko. % 17,3k nolabaiteko laguntza behar du oinarritzko jarduerak egiteko eta % 17,9k jarduera instrumentaletarako laguntza behar du. 80 urte edo gehiagoko pertsonen taldearen barruan, bi pertsonetatik ia batek laguntza behar du EBJ bat edo gehiago egiteko. Mendetasun-egoeren eraginean genero-desberdintasunak daudela begi-bistakoa da. Ez dugu ahaztu behar emakume zahar gehiago egoteak ere laguntza-premia handiagoa sortzen duela.

- Mendetasun-egoeren kasuan, elkarbizitza-modalitate nagusiak bakarrik edota seme edo alabarekin horien etxean bizi diren pertsonak dira nagusiki (% 30,9 eta % 69,2, hurrenez hurren). Ikus dezakegunez, elkarbizitza-modalitate hau mendetasun-egoeran dauden oso adineko pertsonetara mugatuta geratzen ari da.

Laguntza jasotzea

- Laguntza behar duten pertsona guztietatik, % 83k baieztatu du moduren batean jasotzen duela. Hala ere, adierazitako jarduera batzuentzako laguntza behar duten euskal pertsona adinduen % 17k ez du halakorik jasotzen.
- Laguntza horien emaitzen banaketa honako hau da: kasuen % 52k aitortzen duenez, jasotzen duen laguntza bakarria ahaideren batek ematen dio, kasuen % 27aren arabera, laguntza hainbat eragileren konbinaketatik lortzen da (familia, gizarte-zerbitzuak edo kontratatutako zerbitzu pribatuak), % 15,3k kontratatutako zerbitzu pribatuetatik bakarrik jasotzen du laguntza, etxeko langile baten bitartez, eta % 5,5ak gizarte-zerbitzu publikoetatik bakarrik jasotzen du laguntza.
- Laguntza behar duten eta jasotzen duten pertsona guztien artean, % 74,2k ahaideen baten aldetik jasotzen du, hori bakarrik edo beste arreta mota batekin konbinatuta. Eguneroko jarduerak egiteko laguntza ematen duten ahaideen % 36,4 gizonak dira, eta % 63,6 emakumeak. Pertsona horiek batez beste 59 urte dituzte. Laguntza ematen dutenen % 56,2 seme-alabak dira, eta % 25,7 bikotea edo ezkontidea. Lau pertsonatik hiruk egunero edo ia egunero jasotzen du familiaren laguntza hori.
- Zaintzaile nagusien artean adineko emakumeak nabarmentzen dira; normalean zaintzen duten pertsonaren alabak edo bikotea dira eta zeregin hori egunero egiten dute. Biztanleriaren ehuneko handiena 70 urtetik gorakoek betetzen dute (% 35,1). Adierazle horrek argi eta garbi erakusten digu azken urteetan izandako aldaketa, zaintzea behar dutenen eta horiek zaintzen dituztenen profilaria dagokionez. Bi taldeen kasuan adinak nabarmen mugitu dira, eta, hala, duela gutxi arte arreta jasotzea espero zutenek gaur egun oraindik laguntza-zereginak ematen jarraitzen dute. Gerontologia-politikak planifikatzen dituztenek nahitaez kontuan hartu behar dute zaintzaileak zahartzen ari direla eta zeregin astunenetan emakumeak direla nagusi oraindik.
- Mendetasun-egoeran dagoen pertsona bat zaintzeko modu onenari buruz galdeetzen denean, % 59,8k hautatutako aukera batzuetan biltzen da pertsona bere ohiko etxebizitzan geratzea. Gazteenen taldean (60-29) % 19,2k egoitza bat hautatuko luke, eta laurogei urtetik gorakoan artean, aldiz, soilik % 7,8k hautatuko luke hori. Zer da, belaunaldi-aldaketa bat, edo mendetasun-egoerekiko hurbiltasunak pertsonen lehentasunak askoz gehiago zehazten dituela?

- Mendetasun-egoeran dauden pertsonen arretarako lehentasunezkoak izan beharko liratekeen neurriei dagokienez, % 51,7 Etxeko Laguntza Zerbitzuen alde daude, % 20,8 prestazio ekonomikoen alde, % 17,2 egoitza-zerbitzuen alde, eta % 6 bi-tarteko baliabideen alde, hala nola eguneko zentroak. Oraintxe adierazi dugunez, zaintzarako aukerak hautatzerakoan adinak gora egiten duen heinean, egoitzen kontsiderazioa izugarri murrizten da, baita administrazioek ezarri beharreko lehentasunen artean ere.
- Euskadiko Autonomia Erkidegoan 60 urtetik gorako pertsonen erdiak pasatxok bakarrik ezagutzen dute autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran daudenak babesteari buruzko legea. Lege-ekimen horri buruz ezer entzun ez dutenak emakumeak dira nagusiki, laurogei urtetik gorakoak, bere seme-alaben etxean bizi direnak, landa-inguruneetan, osasun-egoera txarrarekin, eguneroko jarduerak egiteko laguntza behar dutenak, eta 600 eurotik beherako hileko diru-sarrerak dituztenak. Hau da, legeak zuzenean eraginpean hartzen dituen pertsonak dira.

Biloben eta bestelako ahaideen zainketa

- Bilobak dituzten euskal adinduen artean (% 72), % 45,6k aitortzen dute beren seme-alabei laguntzen dietela eguneroko zainketan (% 56,7 60-69 pertsonen kasuan). Gainera, laguntza hori maiztasun handiarekin egiten da. Beren bilobak zaintzen dituztenen % 29,7k egunero egiten dute, eta zifra antzekoa da laguntza hori astean behin edo bi aldiz egiten dutenen kasuan. Hau da, astero laguntzen dutenen kopurua aitona-amonen % 59,2raino iristen da.
- Horretaz gain, Euskadiko adinduen % 12,8k aitortu du osasun-egoeragatik laguntza behar duen ahaideren bat zaintzeko zeregin batetan edo gehiagotan laguntzen duela (zifra % 16,2raino igotzen da 60-69 urtekoen kasuan, eta % 13,5era emakumeen kasuan). Bertan biltzen diren zereginak honako hauek dira: zainketa pertsonala, etxeko laguntza, laguntza izapideekin eta kudeaketekin, eta lekuetara joateko laguntza. Laguntza hori eman den urteen batez bestekoa 9,71 da (13,45 zaintzailea laurogei urtetik gorakoa denean). Zainketak ematen dituzten hiru pertsona adindutik batek aitortu du zainketa ematearen ondorioetako bat dela askotan norberarentzako denbora nahikoa ez izatea.
- Laguntza ematen duten pertsona adinduen eta laguntza jasotzen dutenen ehunekoaren arteko konparaketa bat eginez gero, lortzen den balantzea honako hau izango litzateke: 60 urteko eta gehiagoko pertsonen % 45,3k laguntza informalean bat ematen du, eta soilik % 23,7k jasotzen du horrelako laguntza. Ezagutzen ez den errealitate hori zahartzaroarekin lotutako «karga sozialeko» estereotipoaren aurkakoa da.

Astialdiaren erabilera

- Jarduera sedentarioak ia euskal adindu guztiek egiten dituzte. Hala ere, askoz ere garrantzitsuagoa da 10 euskal adindutik ia 9k jarduera fisikoren bat edo kirolen bat egiten duela eta % 67,1ek egunero egiten duela. Biztanleriaren inplikazio txikiena duten jarduerak honako hauek dira: teknologia berrien erabilera (% 14,2), boluntarioak edo elkarrekin (% 12,8), eta hezkuntza-jarduerak praktikatzea (% 8,5)
- Badirudi erlazio argia dagoela ere egindako jardueraren eta pertsonen bizi-kalitatearen artean. Ariketa fisikoa egitea jasotzen da bizi-kalitatean eragin handiena duten adierazleen artean. Era berean, bizi-kalitateko mailan aldeak ikus daitezke honako pertsona hauen artean: bidaiak egiten dituztenak, teknologia berriak erabiltzen dituztenak (jarduera horrek erlazio oso estua dauka hezkuntza-mailarekin eta diru-sarreraren mailarekin), ikastaroetan edo hezkuntza-jardueretan parte hartzen dutenak, gizarte-jardueretan parte hartzen dutenak, eta kultura-ekitaldietara bertaratzen direnak.

Bizi-kalitatea

- Euskal adinduen artean, norberaren bizitzarekiko sentimendu positiboak nagusitzen dira: % 84k uste du bere bizitzak baduela zentzua, % 80,7k ilusioarekin itxaroten du egun bakoitza, eta % 76,4k zoriontasun-sentsazioarekin begiratzen du iragana. Hala ere, oso zaharren bizi-kalitatea nabarmen murrizten da, bereziki inguratzen dituen munduaren gaineko kontrola galtzen dutela sentitzen dutelako eta autoerrealizazioko sentimenduak galtzen dituztelako.
- Aldagaiak multzokatuta aztertuz gero, eskalaren emaitza batez besteko 35,6koa da. Hau da, euskal adinduen bizi-kalitatea neurrizko graduan kokatzen da.
- Elkarrekin bizitzeko modua bizi-kalitatea asko baldintzatzen duen alderdi bat da. Norberaren etxebizitzan belaunaldi anitzekin bizi diren pertsonak kalitate-maila handiagoak izategatik nabarmentzen dira (batez besteko 36,6). Ez dugu ahaztu behar kontrolaren pertzepzioa eta proiektuen existentzia erabakigarriak direla bizi-kalitatearentzat. Seme-alabak oraindik etxean daudenean, errazagoa da bi alderdi horiek aurkitzea. Seme-alaben etxebizitzetako belaunaldi anitzeko etxearen unitateen kasuan da zifra hori txikiena, hots, batez besteko 32,9.
- Landa-inguruneetan ere, bizi-kalitate baxua dutenen ehuneko nabarmentzen da (batez besteko 33,8). Landa-inguruneetako adinduek nagusiki aitortzen dutena da beren bizitzaren gaineko kontrol eta autonomia gutxiago dutela.

- Era berean, begibistako erlazioa dago bizi-kalitate altuaren eta etxekoen unitatean diru-sarrera handiagoak izatearen, osasun-egoera onaren, eguneroko jarduerak egiteko laguntzarik behar ez izatearen eta hezkuntza-mailaren artean.

Adierazle psikologikoak

- Euskadiko pertsona adindu gehienek sentimendu positiboak dituzte beren eguneroko bizitzan. Biztanleriaren % 70,4k aitortu du pozik sentitzen dela, eta % 66,1ek bizitzaz gozaten duela. Eta pertsona bakarreko etxekoen unitateetan bizi direnen % 37,3 bakarrik sentitzen dira, eta gainerako etxekoen unitateetan zifra horiek ez dute % 10 gainditzen.
- Otiak 8ra bitarteko eskala batean, 4tik gorako batez bestekoak depresio-sintomak daudela esan nahi duela aintzat hartuta, batez bestekoa 1,85 da, hau da, mugaren oso azpitik. Depresio-sintomekin begibistako lotura duen aldagai bat osasun-egoera da. Beren osasun-egoera txarra dela sentitzen dutenek eskala horretako depresio-sintomen mugak gainditzen dituzte (4,3).
- Euskal adinduen % 18,1ek *antsietate-sintomatologia* erakusten du. Datuen analisi zehatz batek adierazten duenez, berriz ere, osasuna eta bakardadea adierazle erabakigarriak dira antsietate-sintomatologiaren agerpenean. Hala ere, antsietatearen nahasteak maiztasun handiagoarekin agertzen dira adin-talde gazteenetan. Etorkizun hurbileko itxaropenek eta erretiro-egoerara egokitzeak duten garrantzia aztertu beharko litzateke, une erabakigarria baita bizitzaren etapa horretan
- Bizitzaren alderdi desberdinen gaineko asebetetze-mailari dagokionez, azterlan honek oro har asebetetze-maila altua adierazten du euskal biztanleria adinduaren artean. Neurri altuena harreman pertsonalen gaineko asebetetze-mailari dagokio, 10etik 7,7ko batez bestekoarekin. Era berean, asebetetze-maila altuarekin agertzen dira honako hauek: komunitateko kide sentitzea (7,3), eta, horren atzetik, segurtasun- eta babes-pertzepzioa, zahartzaroan oso maitea eta garrantzitsua dena, eta bizitzan izandako lorpenak, bien batez bestekoa 7,2 izanik.

Zahartzaroari buruzko pertzepzioa

- Adinduen % 68,8k uste du gauzek okerrera egiten dutela adinak gora egiten duen heinean. Ehuneko hori handiagoa egiten da adinak gora egiten duen heinean, lau-urogei urtetik gorako taldean % 82,8raino iritsi arte. Antzeko zifrak ikusten dira erabilgarritasuneko sentimenduei dagokienez. Hala ere, biztanleria adinduaren ia erdiak pentsatzen du gaztaroan bezain zoriontsuak direla, eta, urteak bete ahala, gauzak pentsatu zutena baino hobeto direla.

- Pertsonak zahartzaroan sartzen diren adinaren gaineko pertzepzioari dagokionez, biztanleria gehienak uste du zahartzaroa adinaren mende ez dagoen egoera bat dela (% 34,8). Oso urrun kokatzen dira pertsona bat 70 urtetik aurrera adinduzat jo daitekeela pentsatzen dutenak. % 15,3k 80 urtetik aurrera kokatzen du zahartzaroa. Alde interesgarriak daude sexuaren arabera
- Gizarteak adinduei esleitzen dizkien adjektiboei dagokienez, biztanleria-ehuneko handienak dituztenak, ordenan, honako hauek dira: ez gatazkatsua, lagunartekoa, integratua, eta beste ezaugarri negatiboagoak, ezaugarri negatiboenak honako adjektibo hauekin definituak: kontserbadorea, sexualki ez-aktiboa, ez-produktiboa, eta mendekoa.
- Ideologia-jarrerari dagokionez, euskal biztanleria adindua bitarteko posizio batean kokatzen da: 10en gaineko 4,4, non 0k ezkerreko jarrera adierazten duen eta 10ek eskuineko jarrera; era berean, politikari buruzko interes nahiko baxua adierazten dute (% 3,38). Hala ere, Espainiako gainerako lurraldean bezala, bozkatzeko unean horien parte-hartzearen indizea gainerako biztanleen indizea baino handiagoa da (% 76,2).
- Erlijio-sentimenduei dagokionez, biztanleriaren % 82 katolikoa da, eta beren erlijiotasun-maila 10en gaineko % 5,53 da. Bi adierazle horiek askoz handiagoak dira emakumeen kasuan gizonen kasuan baino.

Konparazio-azterketa

Azterlan honek 1993. urtean «Hirugarren Adina Euskadin» inkestan egindako galdera jakin batzuk errepikatu ditu, denbora-tarte horretan adinduen bizi-baldintzen joerak eta bilakaera aztertu ahal izateko. Era berean, konparazio-azterketa bat egin du IMSERSOren adinduen Behatokiak 2006. eta 2010. urteetan egindako estatu mailako bizi-baldintzei buruzko inkestekin (Nazioartako alderaketa egiteko, SHARE, Eurostat eta ESSren datuak erabili dira). Analisi horiek egiteko 65 urtetik gorakoen lagina hautatu da, konparazioak harmonizatze aldera.

- EAEko etxekoen unitateen osaera kualitatiboki eta kuantitatiboki bilakatu da. Modu berezian azpimarratzen ditugu pertsona bakarreko etxekoen unitateetan izandako aldaketa, 8 puntu handitu baitira, 1993ko % 16,5etik 2010eko % 24,8ra igoz.
- Espainiako gainerako lurraldeari dagokionez, etxekoen unitateen egitura orokorrean alde handirik ez dagoen arren, Euskal Autonomia Erkidegoak 3 puntutik gorako aldearekin gainditzen du bakarrik bizi direnen kopurua, eta 5 puntuko aldearekin gurasoen etxean belaunaldi anitzeko etxekoen unitateen kopurua; Estatuaren kasuan, aldiz, seme-alaben etxean belaunaldi anitzeko etxekoen unitateetan bizi diren

bikoteez osatutako etxekoen unitateen ehuneko handiagoak ikusten dira. Hortaz, ondoriozta dezakegu hemengo biztanleria Espainiako gainerakoan baino autonomoagoa dela eta Europako bizikidetza-ereduekiko gertuago dagoela.

- European, belaunaldi anitzeko etxekoen unitateak oso urriak dira. Euskadin, aldiz, etxekoen unitate horiek (nagusiki adinduaren jabetzako) asko dira. Egoera horren arrazoietakoa bat da belaunaldi gazteak berandu emantzipatzen direla, gure herrialdean oso ohikoa dena.
- *Familia-sareen indarrari* dagokionez, alde handiak ikusten dira Estatuarekin alderatuta. Euskaldunen kasuan soilik % 0,6k ez ditu bere seme-alabak inoiz ikusten, eta espainolen kasuan, aldiz, zifra % 7raino igotzen da. Antzeko zer-bait gertatzen da eguneroko kontaktuekin, euskal biztanleriaren % 75,5en kasuan eta Espainiako guztizko biztanleriaren % 67,5en kasuan gertatzen baita. SHARE azterlaneko datuek ere adierazten dutenez, familia-kontaktuen maiztasuna Euskadin baino txikiagoa da azterlan horretan aztertutako Europako herrialdeetan. Emandako laguntza informalarri dagokionez, Estatuko datuekin alderatuta euskal adinduek ehuneko handiagoan ematen diete laguntza beren ahaideei, zertxobait konplexuagoak diren zainketa-zereginetan. Era berean, bilobak zaintzen dituzten aitona-amonen ehunekoa handiagoa da (% 43,1 Euskadin, eta % 34,9, aldiz, Estatuan), baina zainketa intentsitate txikiagoarekin egiten da.
- Euskal biztanleria adinduaren *instrukzio-maila* pixka bat hobetu da. Analfabetoak diren adinduen kopurua ia erdira murriztu da, 1993ko % 4,1etik egungo % 2,5era jaitsiz. Bestalde, 2010. urtean erdi-mailako edo goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen ehunekoa adinduen % 7,8raino igo da. 1993. urtean adinduen % 1,3k bakarrik zuen horrelako titulazio bat. Estatuari dagokionez, instrukzio-maila handiagoa ikusten da ere euskal adinduen artean, erdi-mailako eta goi-mailako ikasketetan nahiz lehen hezkuntza osoan.
- Alde nabarmenak daude Euskadiko eta Estatuko adinduen artean *diru-sarreraren mailari* dagokionez. Euskal Autonomia Erkidegoan, adinduen % 0,9k bakarrik ditu hileko 300 eurotik beherako diru-sarrerak. Zifra hori % 20,2raino igotzen da Estatuan
- *Etxebizitzaren* egoerari dagokionez, norberaren jabetzako etxebizitzetan bizi diren adinduen ehunekoa handitu egin da, eta seme-alaben jabetzako etxekoen unitateetan bizi direnen ehunekoa, aldiz, murriztu egin da; joera hori bat dator seme-alaben etxebizitzetan belaunaldi anitzeko etxekoen unitateen kopuruan izandako beherakadarekin. Modu nabarmenean murriztu da ere alokairuan bizi diren adinduen ehunekoa, 1993ko % 7,5etik 2010eko 3,4ra. Europarekin egindako konparaketan (SHARE, 2004) ere aldeak ikusten dira edukitze-erregimenari dagokionez;

Europar alokairuaren kultura handiagoa da, izan ere 80 urteko edo gehiagoko pertsonen % 29,3 alokatutako etxebizitza batean bizi baita, eta Euskadin, aldiz, % 2,5.

- Inguruneko *irisgarritasuneko* baldintzak ere modu oso positiboan bilakatu dira aldi horretan. Adibide gisa, 2010. urtean 65 urtetik gorakoek % 17,4k bakarrik aitortu du garraio publikoa erabiltzearekin lotutako arazoak dituela. 1993. urtean zifra hori ia bikoitza zen. Era berean, 1993. urtean adinduen % 62k aitortu zuen igogailurik gabeko etxebizitzetan bizi zirela, eta une honetan zifra hori % 35,6ra murriztu da.
- *Atzemandako osasun-egoerari* dagokionez, aldaketa negatibo bat ikusten da. Gaur egun, 1993. urtean baino osasun-egoera okerragoa dutela aitortzen dute. Bizi-baldintzen hobekuntzaren ondorioz, eta, bereziki, osasun-zerbitzuen eskuragarritasun unibertsalaren ondorioz, biztanleriaren jarrera zorrotzagoa da osasun-estandarrei dagokienez. Bestalde, biztanleriaren zahartze-prozesua eta bakarrik bizi direnen kopuruaren hazkundera fenomeno hori azaltzen duten adierazleak dira. Hala ere, Estatuarekin egindako konparaketan, euskal adinduen ehuneko handiago batek aitortu du osasun-egoera ona duela (% 51,0 egoera ona eta oso ona, eta % 44,9 Estatuko adinduen artean).
- *Mendetasuna*. Pertsona oso zaharren hazkundera aldi horretan oso handia bada ere, egoera horrek ez ditu zifra altuak eragin mendetasun edo ezintasun egoeran daudenen artean, 17 urteko aldiaren aldeak ez baitu % 2 gainditu. Erikortasunaren konpresioa deitutakoaren egiaztapen berri baten aurrean al gaude?
- *Gizarte-baliabideen erabilera* modu nabarmenean handitu da euskal biztanleria adinduaren kasuan, baliabide horien eskaintzan izandako hazkunderarekin bat etorritik. 2010. urtean, adinduen % 6,9k aitortu dute ELZ erabiltzen dutela, eta 1993. urtean, aldiz, % 3,3 ziren. Teleasistentzia-zerbitzuak adinduen % 0,2ri ematen zion estaldura bakarrik, eta orain, aldiz, % 5,4k erabiltzen du baliabide hori. Eguneko zentroak % 0,2tik % 4,3ra igo dira. Garrantzitsua da kontuan hartzea ezin dugula identifikatu zerbitzuen erabilera estaldura-indizearekin –askotan txikiagoa da–, hain zuzen ere zerbitzu bera une desberdinetan erabil daitekeelako eta pertsona desberdinek erabil dezaketelako.
- *Etxeko eginkizunen banaketari* dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoan oraindik genero-desberdintasunak mantentzen diren arren, gizon adinduen inplikazio handiagoa ikusten da etxeko lanak egiteko unean. Euskal gizonek Estatuko gainerako gizonen kopurua bikoizten dute hainbat zeregin egiteari dagokionez, hala nola: erosketak egitea, garbiketa edo janaria prestatzea; eta, beste zeregin batzuetan, Estatuko kopurua hirukoizten dute, hala nola gaixo dauden etxekoek unitateko beste kide batzuen zainketan.

6.
ONDORIOAK

- Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 60 urtetik gorako pertsonak milioi erdi inguru dira, eta beren lehentasunen arabera bizi dira nagusiki: aktiboak dira, beren osasuna zaintzen dute, kirola egiten dute eta familiako kontaktu-sare on bat mantentzen dute zainketa- eta laguntza-transferentzia mota guztiak praktikatzen dituztenekin. Beren bizi-baldintza materialak pixka bat hobetu dira azken urteetan.
- Hortaz, egungo bizitzarekin nahiko pozik dagoen gizarte-talde bat osatzen dute. Neurri altuena harreman pertsonalen gainean duten asebetetze-mailari dagokio, 10en gaineko 7,7 puntuko batez bestekoarekin, eta horren atzetik dago komunitateko eta familia-talde bateko kide sentitzearen gaineko asebetetze-maila (7,3). Zahartzaroan funtsezkoak diren alderdi batzuen inguruan, hala nola gizarte-harremanen inguruan eta kide sentitzearen bidezko munduarekiko konexioaren inguruan, balioespen benetan positibo horiek berme on bat dira edozein zahartze-prozesutan laguntza-sareak eta zainketa-transferentziak eraikitzeko.
- Balioespen benetan positibo horiek ez ditugu inolaz ere orokortu behar adinduen talde osoarentzat. Zahartzaroari buruz hitz egitea modu heterogeneoan pentsatzea da analisiaren edozein ikuspegitik, azterlan honetan etengabe ikus daitekeenez. Homogeneotasunak balioespen okerrak ekartzen ditu, baita zahartzaroari buruzko estereotipoak sortzea ere.
- Hortaz, ezinbestekoa da hiritar adinduen bi talde handi bereiztea: lehena, beren lehentasunen arabera bizitza-proiektu bat gara dezaketen, eta, beraz, autonomoak eta nagusiki 80 urtetik beherakoak diren pertsona gehienek osatua. Bigarren taldea eguneroko jarduerak egiteko laguntza behar duten pertsonak osatzen dute, hau da, biztanleria adinduaren % 20 inguru. Bi taldeen errealitate soziala eta pertsonala oso desberdina da. Horien kasuan, gizarte- eta familia-sare gutxi dituen, bere etxebizitzan irisgarritasuneko arazoak dituen, eta astialdiko jarduera gutxi egiten dituen 80 urtetik gorako emakumearen profila errepikatzen da.

- Bizikidetzaren ereduaren eta adinduen arteko laguntza-sare informalaren eraikuntzaren analisia alderdi garrantzitsuenetako bat bezala ikusten da gerontologia-politikak planifikatzeko, eta, modu oso berezian, gizarte-baliabideak sortzeko, pertsona horien premia aldakorren arabera. Izan ere, azterlan honetan ikusitako bilakaera lagungarria izan daiteke zerbitzu soziosanitarioen eskaintza eta irisgarritasuna berriz orientatzeko.
- 80 urtetik gorakoek azken urteetan izan duten hazkunde nabarmena gorabehera, biztanle-talde horren bizikidetzaren ereduaren autonomia handitzeko joerak, zalan-tzarik gabe, bizitza independente bat izateko gaitasuna eta ahalmena dutela adierazten du. Baiezta dezakegu autonomia zahartzaroan geroz eta garrantzi handiagoa duen gizarte-balio bat izaten hasi dela. Hala ere, pertsona oso zaharrei buruz hitz egiten dugunean, ezin dugu alde batera utzi beste begirada hau: independentzia arrisku larria bihurtzen da gaixotasuna edo ezintasuna agertzen denean, eta gizarte- eta osasun-zerbitzuen eskaeraren hazkunde nabarmen bat eragiten du. Ezin dugu ahaztu Euskadiko 80 urtetik gorako pertsonen % 27,8 bakarrik bizi dela.
- Bizimoduetan hurbiltasunaren eta kontaktuen maiztasuna oso garrantzitsua da adin-talde horretan. Asebetetze-maila handia sortzen du familia-harremanetan, baita zainketak eta afektua trukatzeko bermatzeko sare bat ere. Seme-alabekiko modu independentean bizitzeak, eta haiekin kontaktu eta zainketa-transferentziako kosta altuak izateak berretsi egingo luke euskal adinduen joera «urrutiko intimitate» edo, modu grafikoagoan, «Familia bat, hainbat etxe» deitutakoa bultzatzeko (Abellan, Puga, Sancho, 2006).
- Laguntza jasotzeari dagokionez, berriz ere, Euskal Autonomia Erkidegoan zein Espainiako gainerako lurraldean eta herrialde garatu gehienetan, zainketak neurri oso handian ematen dira familia-inguruneen barruan. Alabek eta emazteek «ezkutuko gizarte-babesekeko oste» garrantzitsu bat osatzen dute oraindik, nagusiki emakumezkoa den beste talde baten geroz eta laguntza handiagoarekin: etxeko inguruneetan mendetasuneko egoerak beren gain hartzen dituzten etorkinak. Botere publikoek jarduera horiei ematen dieten laguntza pixka bat hobetu beharko litzateke, prestakuntzaren bitartez, eta zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak ematearen bitartez. Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran daudenak babesteari buruzko legearen garapena erabakigarria izan daiteke prozesu horretan.
- Zainketak ematearen gaineko balantzea positiboa da adinduek gizaritari egiten dioten ekarpenari dagokionez, eta, modu oso berezian, familia-intimitatearen esparruan. Azterlan honetan argi ikusten denaren moduko errealitateekin este-

reotipoen aurka borrokatzea modu eraginkorra da zahartzaroaren balioespen bi-dezkoago bat lortzeko.

- Gizarte-zerbitzuen eskaintza oraindik urria bada ere, bikoiztu egin da azken hamarkadan etxez etxeko zerbitzuen kasuan. Teleasistentzia eta eguneko zentroak izan dira urte hauetan hazkunde ikaragarria izan duten bi baliabide. Oro har, Euskal Autonomia Erkidegoak aurrera egiten du eta batzuetan Estatuaren buruan kokatzen da «etxean zahartzea» helburuaren betetze-mailari dagokionez. Zahartzeaz arduratzen diren nazioarteko erakunde guztietan aldarrikatzen da helburu hori. Horren ildotik, bizimoduaren inguruan eta mendetasunari aurre egiteko baliabideen inguruan pertsonak dituzten lehenetsiak oso argiak dira: ohiko etxebizitza, eta arreta-prozesuan inplikaturiko guztien laguntzak: ahaideak eta zerbitzu publiko eta pribatuak.
- Etxebizitzaren jabetzaren ehuneko altua zahartzaroan segurtasun-elementu bat bada ere, ezin ditugu ahaztu mendetasun-egoeren ondorioz jabetza hori utzi behar izateak eragiten dituen arazoak. Bestalde, irisgarritasun-arazo garrantzitsu bat dago, hain zuzen ere igogailurik ez izatea, eta beren etxera iristeko gutxienez solairu bat igo behar duten 156.000 pertsona inguru eraginpean har ditzake.
- Azterlan osoan zehar, eta beste ikerketa batzuen ebidentzia berretsiz, 60 urtetik gorako artean alde handiak sortzen dituzten alderdiak ikusten dira, programa espezifikoak diseinatzeko premia dutenak:
 - Genero-desberdintasunak garrantzitsuak dira adierazle gehienek kasuan, sexuen arteko orekarako joera arin bat ikusten bada ere. Hala ere, esku-hartzeak behar dira emakumeei laguntzeko, antzinatek ugalketan oinarritu den etxeko esparrutik irten daitezen eta gizarte- eta komunitate-bizitzan baldintza berdinetan sar daitezen. Azken urte hauetan aurrerapenak ikaragarriak izan dira.
 - Bakardadea bizi-kalitate baxuaren, antsietate- eta depresio-sintomatologiaren eta osasun ahularen adierazle argi bat da. Zaila da egoera horiei aurre egiteko esku-hartzeak gauzatzea, baina lortu beharreko erronka bat da, bereziki zahartzen diren pertsonen etorkizun hurbilak gaur egun baino bakardade-egoera askoz gehiago ekarriko dituelako.
 - Landa-ingurune isolatuak ere bizi-kalitate baxuaren adierazle bat dira. Baliabideak eta zerbitzuak leku horietara hurbiltzen dituzten programetan aurrera egin den arren, oraindik ez dira nahikoak. Teknologia berriak eta arreta-eskaintzarekiko hurbiltasuna sustatzen duten programak, zalantzarik gabe, lagungarriak izan daitezke gabezia horiek arintzeko.

- Osasuna adierazle erabakigarria da pertsonen ongizatean. Eta azterlan honek berriz ere berretsi du. Ezinbestekoa da eguneroko bizitzan ohitura osasungarriak eta mendetasun-egoerei aurrea hartzeko jarrerak txertatzea. Modu aktiboan zahartzea bultzatzen duten programak garatzea da oraindik egin beharreko asko duen erronketariko da.
- Ezinbestekoa da adinduentzako aisia eta astialdiko eskaintzan aurrera egitea, betiere mendetasun-egoeran daudenen biztanleria-sektorea kontuan hartuta, subjektu aktibo gisa txertatuz eta horien parte-hartzea sustatuz. Laguntza behar duten pertsoneri modu aktiboan zahartzeko aukera irekia utziz.
- Anbibalentzia handia ikusten da adinduek zahartzaroaren inguruan dituzten pertzepzioetan, eta, modu oso berezian, haien ustez gizarteak ikusten dituzten moduan. Kasu honetan garrantzitsua da kontuan hartzea zahartzarora gaixotasunarekin eta mendetasunarekin lotzen duten balioespen negatiboak, gaur egun biztanleria zaharrak suposatzen duen ustezko «gizarte-kargari» buruz horien ondorioz egiten diren kontsiderazioekin. Horrelako estereotipoek autoestimu baxuko jarrerak eta adinduekiko tratu desagokiak sendotzen dituzte.
- Mendetasun-egoerak agertzen diren unearen atzerapenari buruzko hipotesia azterketak egiteko arrazoi bat da herrialde garatu gehienetan. Biztanleriaren ongizatearen gainean nahiz zahartze-prozesuaren ondoriozko gizarte-gastuaren eta inpaktu ekonomikoaren gainean dituen ondorioak XXI. mendeko erronka garrantzitsuenen artean daude. Gure ikerketaren datuek adierazten dutenez, 17 urteko aldian laguntza-premiaren hazkundera oso urria izan da. Bizi-baldintzen hobekuntzak, prebentzioak eta osasunaren sustapenak, eta gizarte-zerbitzuekiko irisgarritasunaren unibertsalizazioak ezinbesteko papera dute gizartearen aurrerapen garrantzitsu horretan. Azterlan zorrotzagoak behar diren arren, erikortasunaren konpresioari buruzko teoria berresteko bidean aurrera egiten ari gara, horixe izanik XXI. mendeko erronka nagusia.

7.
BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK

- ABELLÁN GARCÍA A., PUGA GONZÁLEZ M., SANCHO CASTIELLO, M.(2006): «Mayores y familia en la sociedad actual» en *Informe España 2006: Una interpretación de su realidad*. Encuentro fundazioa.
- ABELLÁN GARCÍA, A. ETA ESPARZA CATALÁN, C. (2006): «Las personas mayores con dependencia» non: *Envejecimiento y Dependencia. Una mirada al panorama futuro de la población española*. Modial Assitance. Madril.
- ÁLVARO PAGE, M. (1996): *Los usos del tiempo como indicadores de la discriminación entre géneros*. Emakumearen Institutua.
- ARBER, S. ETA GINN, J. (1996): *Relación entre género y envejecimiento. Enfoque sociológico*. Narcea.
- ARGULLÓ TOMÁS M.S. (2001): *Mayores, actividad y trabajo en el proceso de envejecimiento y jubilación: Una aproximación psico-sociológica*. IMSERSO
- BARRIO, E. (ord.) (2007): *Uso del tiempo entre las personas mayores*. Boletín Perfiles y Tendencia, 27. Adinduen Behatokia. IMSERSO.
- BLUSTEIN, J., CHAN, S. ETA GUANAIS, F.C. (2004). Elevated Depressive Symptoms among caregiving grandparents. *Health Services Research*, 39(6): 1671-1690.
- BRACKE, P., LEVECQUE, K. ETA VAN DE VELDE, S. (2010). The psicometric properties of the CES-D8 depression inventory and the estimation of cross-national differences in the trae prevalence of depression. International Workshop on Comparative Survey Design and Implementation.
- BUENO MARTÍNEZ, B., BUZ DELGADO, J., (2006): *Jubilación y tiempo libre en la vejez*. Madril, Portal Mayores, *Informes Portal Mayores*, 65. zk. Lecciones de

- Gerontología, IX [Argitaratze-data: 2006/10/16]. <[ettp://www.imsersomayores.csic.es/documentos/documentos/bueno-jubilacion-01.pdf](http://www.imsersomayores.csic.es/documentos/documentos/bueno-jubilacion-01.pdf)>.
- CAPV (2009): Azterketa Demografikoa eta etxebizitza-merkatuaren bilakaera epe luzean EAEn, 2009.
- CAPV (1993): Hirugarren Adina Euskadin Inkesta, 1993.
- DEIMLING GT, BASS DM. (1986): Symptoms of mental impairment among elderly adults and their effects on family caregivers. *J Gerontology*; 41: 778-784.
- EUROPEAN SOCIAL SURVEY: ROUND 2006 (<http://www.europeansocialsurvey.org/>).
- EUROSTAT-Database, Population and social conditions. (<http://epp.eurostat.ec.europa.eu>)
- EUSTAT: Demografia, 2004 (Inkesta Demografikoa 2002).
- EUSTAT: Biztanleen eta Etxebizitzen Erroldak. Udal Biztanleriaren Eguneratzea. 2020 Biztanleria Proiekzioak.
- FERNÁNDEZ BALLESTEROS, R (2000): *Gerontología Social*. Pirámide.
- FREIXAS, A. (1993): *Mujer y envejecimiento: aspectos psicosociales*. Barcelona: Fundació La Caixa.
- FRIES, J.F. (1980): The compression of the morbidity: near or far? *En Milbank Quaterly*, 6, 2.
- GILHOOLY M. (1984): The impact of care-giving on care-givers: factors associated with the psychological well-being of people supporting a dementing relative in the community. *British Journal of Medical Psychology*, Vol 57, Pt 1, Ps. 35-44.
- GOLDBERG D, BRIDGES K, DUNCAN-JONES P, et al. Detecting anxiety and depression in general medical settings. *Br Med J* 1988; 97: 897-899.
- HYDE, M., WIGGINS, R.D., HIGGS, P. Y BLANE, D.B. (2003). A measure of quality of life in early old age: the theory, development and properties of a needs satisfaction model (CASP-19). *Aging and Mental Health*, 7, 86-94.
- INE: 1991ko errolda.
- INE: Biztanleen Udal Errolda, 2009 eta 2010.
- IMSERO: Adinduen bizi-baldintzei buruzko inkesta, 2006 (Ink. 2.647).
- IMSERO (2010): Adinduen bizi-baldintzei buruzko inkesta, 2006.

- JOWELL, R. AND THE CENTRAL COORDINATING TEAM, EUROPEAN SOCIAL SURVEY 2006/2007 (2007): Technical Report, London: Centre for Comparative Social Surveys, City University (available at <http://www.europeansocialsurvey.com>).
- MANTON, K ETA GU, X, (2001): Changes in the prevalence of chronic disability in the US black and nonblack population above age 65 from 1982 to 1999. *Proc Natl Acad Sci USA*, 2001 May 22;98 (11): 6345-9.
- PÉREZ ORTIZ, L. (2006): La estructura social de la vejez en España. Nuevas y viejas formas de envejecer. IMSERSO.
- PÉREZ SALANOVA, MERCÈ (2003). *Activando el envejecimiento activo*. Madril, IMSERSO, *Estudios I+D+I*, 18. zk. [Argitaratze-data: 2005/05/06] (<http://www.imsersomayores.csic.es/documentos/documentos/imserso-estudiosidi-18.pdf>).
- RADLOFF, L.S. (1977). The CES-D Scale: A self-report depression scale for research in the general population. *Applied Psychological Measurement*, 1, 385-401.
- SANCHO CASTIELLO, M. (Koord.) (2008): *Informe 2008: Las personas mayores en España*. Adinduen Behatokia, IMSERSO.
- SANCHO CASTIELLO, M. (Koord.) (2007): *A propósito de las condiciones de vida de las personas mayores. Encuesta 2006*. Adinduen Behatokia, IMSERSO.
- SHARE (2004 eta 2008): Survey of Health, Ageing and Retirement in Europe.
- TOBIO, C., FERNÁNDEZ CORDÓN, J.A., ETA AGULLÓ, M. S. (1998): *Análisis cuantitativo de las estrategias de compatibilización familia-empleo en España*. Madril: Emakumearen Institutua (Ikerketa Txostena).
